


Goienkaria

2010eko urriaren 29a > Egubakoitza > X. urtea > 440. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 URTE
www.goiena.net TOKIKOM

"Jendarte oparo baten bizi gara eta pobrezia pantailan ikusten dugu"

Jon Sarasua
Lanki ikertegiko zuzendaria > 07



G2a Bailarako txistularien lehen topaketa etzi > 31

ARRASATE Azokako saltoki guztiak lehiaketara atera dituzte > 12

BERGARA Euskarazko liburuak trukatzeko azoka antolatu du Jardunek > 17

KIROLA Abenduaren 18an ziklo-krosa egingo da Oñatin > 28

GERTAERAK > LAPURRETAK

Lapurretak gora egin dute nabarmen

ETXEAN Bailaran 31 etxetan lapurte dute urtarriletik hona, gehien Arrasaten

AHOLKUA Atea giltzaz itxeko aholkatu dute, lapurreten %90 hala galaraz daiteke-eta > 04

JENDARTEA > ONDAREA

Arrikruzteak badu museoa

Bisitariendako interpretazio-gunea ireki dute asteen > 04

POLITIKA > MOBILIZAZIOAK

Bergaran ere azaldu dute kezka


Segiren aurkako operazioan atxilotutakoen egoeraz gain, Aitziber Plazaola bergararrak ere kezkatu dira. > 04

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 07
Elkarrizketa > 07
Herriak > 11-27
Kirola > 28-29
Kultura > 32-33
Gazteak > 34
Sailkatuak > 35
Telebista-Irratia > 36
Zerbitzuak > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

Ordu aldaketa

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko **hiruretan ordu biak** izango dira. Ez ahaztu!



ZER DIOTE DEBAGOIENEN ABOKATUEK?



ARDURADUNAK Aitor Urtzelai (MIKeko zuzendaria) eta Lander Beloki (fakultateko dekanoa). LEIRE KORTABARRIA

Enpresagintza eta MIK, batera campus berrian

Mondragon Unibertsitatearen, Enpresagintza Fakultatearen eta Oñatiko herriaren aspaldiko amets bat egia bihurtu da: Enpresagintza Fakultateak badauka campus berria, eta bere jarduerak hobeto egin ahal izango du instalazio berrietan. Bestalde, MIK kudeaketa ereduaren ikerkuntza zentroa ere hantxe dago. Eguazteenan inauguratu zuten campusa. > 02-03

HEZKUNTZA > MU-REN ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

Ikerkuntzaren, enpresaren eta hezkuntzaren campusa

INAUGURAZIOA Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza Fakultateak campus berria inauguratu du Oñatin, Ibarra

BAT EGINDA Leku berean daude orain Enpresa Zientzien Fakultatea eta MIK zentroa, kudeaketa ereduak ikertzen dituen

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

Mondragon Unibertsitatearen, haren Enpresagintza Fakultatearen eta Oñatiko herriaren aspaldiriko amets bat bete da: fakultate horren campus berria zabalik dago eta hantxe dute bere egoitza MUren Enpresa ikasketek eta Mondragon Innovation & Knowledge (MIK) ikerketa zentroak. Joan den eguaztenean inauguratu zuten campusa ordezkaritza politikoen eta akademikoen; han izan ziren Hezkuntza sailburu Isabel Zelaia, ahaldu nagusi Markel Olano, Espainiako Gobernuaren ordezkaritza Mikel Cabieces, Mondragon Unibertsitateko errektore Josu Zabala, Enpresa Zientzien Fakultateko dekanok Lander Beloki, fakultateko errektore kontseiluaren presidentea Xabier Mugartza, eta MIKeko presidentea Javier Sotil eta zuzendari-kudeatzaile Aitor Urtzelai. Gonbidatuen artean politika, enpresa eta hezkuntzako pertsona ezagunak zeuden.

Campus berria ia 700 ikasle dabilta orain, baina etorkizunean 1.000 ere har ditzake. MUK inbertsio handia egin du: 13.200.000 euro. Campusak 20.000 metro koadroko hedadura dauka, eta horietatik 8.500 dira eraikitakoak. Eraikin berriak dauka hiru solairu eta sotoa. Angel de la Hoz arkitektoaren lana da.

Horrenbestez, Enpresagintza Fakultateak eta MIKek ziurtatuta daukate etorkizunari aurre egiteko leku aproposa; eta, era berean, bi lotura indartu egiten dira: batetik, MUK enprekin eta euskal jendartearekin dutena; eta bestetik, Oñatirekiko fakultate horrek daukan betiduniko lotura, mende erdikoa.

Campus berriak hezkuntza eredu berriak sortu dituzten beharrak asebeteko ditu. Zelaia sailburuak esan zuenez, MU "modu eredugarrian" moldatu da Boloniako eredura, eta campus berriak eredu horri erantz-

DATUA

13

MILIOI EURO

Mondragon Unibertsitateak 13.200.000 euroko inbertsioa egin du Enpresagintza Fakultatearen campus berria egiten. Oñatiko sarreran dago, MIK ikerketa Zentro Teknologikoaren ondoan.

DATUA

20.000

METRO KOADRO

Campusak 20.000 m² hartzen ditu denetara, eta horietatik 8.500 dira eraikitakoak. Hiru solairu eta sotoa ditu eraikin berriak, eta etorkizunean 1.000 ikasle hartzeko diseinatuta dago.

ten dio: "ikaslea da protagonista; eta trebetasunen eta baloreen etengabeko ebaluazioak espazio berdiseinatzea eskatzen zuten: taldeka edo seminario txikietan lan gehiago egingo da, eta ikasgela gehiago dago modu interaktiboan lan egiteko", esan zuen Isabel Zelaia. Ohartarazi zuen, MUren ikasturte inaugurazioan esan zuen bezala, ekonomia aldetik garai zailak direla, baina Eusko Jaurlaritzak diru aldetik bere ekarpena egingo duela, gobernuak "goi hezkuntzarekin eta ikerkuntzarekin daukan konpromisoaren adierazgarri".

TEKNOLOGIA, INTENTSIBOKI

Aipatutako zortzi ordezkariek hitzalditxo bana egin zuten inaugurazioan, eta denetara, ideia komun batzuk helarazi zituzten:

etorkizuna, formazioa, MUren eta euskal enpresaren arteko lotura, ilusioa... izan ziren gehien entzun ziren berbetako batzuk.

Josu Zabala errektoreak hasi zuen hitzaldi txanda. Azaldu zuen instalazio zaharrak ez zirela nahikoa Enpresagintza Fakultatearen premietarako, eta nahi zutela "formazioa eta ikerketa gune bakar baten" batzea. "Campus berriaren zutabeak hiru dira: irakaskuntza, ikerketa eta berrikuntza", esan zuen. Era berean, fakultate duen unibertsitate tradizioarekin lotu zituen, gogoratuz Euskal Herriko lehengo unibertsitatea hantxe sortu zela 1550. urtean.

Bere txandan, Lander Beloki Enpresagintza Fakultateko dekanok gehiago azaldu zituen hiru zutabe horiek: batetik, "gradu eta gradu ondoko ikasketak" emango dituztela esan zuen, eta Europan egokitutako aurreraturako kudeaketa ikerkuntza egingo dela campusean. Horretarako "teknologia berriak modu intentsiboan erabiltzeko leku eta baliabide gehiago" ditu campus berriak.

Bigarrenik, zuzendaritza postuetan daudenendako etengabeko formazioa eta graduondokoak ere emango direla esan zuen; eta hirugarrenik, azpimarratu zuen "MIK Enpresagintza Fakultatearekin lotuta" geratzen dela, eta hala, "kantitate eta kalitate handiko" lana egin ahal izango dela.

BATA ZURI BAKO IKERTZAILEAK

Mondragon ikerketa zentroko bi ordezkarik ere egin zuten berba. Lehengo, Javier Sotil presidentea, oso hitzaldi laburrean, esan zuen zentro berriak "globalizazioarako pertsonak sortuko" dituela.

Aitor Urtzelai MIKeko zuzendari gerenteak azaldu zuen zer-



Ezkerretik eskumara, Beloki, Sotil, Olano, Zabala, Zelaia, Mugartza, Cabieces eta Urtzelai, zinta...

tan datzan MIK-en lana: "Ez darabagu bata zuririk; baina ikerketaileak gara. Kudeaketa hobea izan dadin ikertzen dugu. Egiteko moduak berritzeko lan egiten dugu". Gaineratu zuenez, "I+D+i ez teknologikoak gero eta garrantzi handiagoa du". Berretsi zuen

"jakinduria sortzen jarraitzeko eta hura enpresei eta jendarteari transferitzeko konpromisoa".

Xabier Mugartzak gogoratu zuen Enpresa Zientzien fakultateak 50 urte dituela aurten; lehen ETEO moduan, eta gaur egun Enpresagintza Fakultate gisa.

ESANAK

"Irakaskuntza, ikerkuntza eta berrikuntza dira gure ardatzak"

Josu Zabala

> Mondragon Unibertsitateko errektorea

"Globalizazioarako pertsonak sortuko ditugu; hori da MIK-en erronka"

Javier Sotil

> MIKeko presidentea

"Euskadin kudeaketa arloan paregabeko ahalmena daukagu MIK zentroan"

Aitor Urtzelai

> MIKeko zuzendari gerentea

"Egoera ekonomikoa zaila da, eta enpresa unibertsitatearekin lotzea klabea da"

Markel Olano

> Gipuzkoako ahaldu nagusia

"Enpresarendako aukerako unibertsitatea da honakoa"

Xabier Mugartza

> Errektore Kontseiluko presidentea

"Enpresa lehiakorrago egiteko, kudeaketaren ezagutza garatzen jarraituko dugu"

Lander Beloki

> Enpresagintza Fakultateko dekanoa

"MUK beti izan du elkarlan borondatea: gobernu erakunde eta entitate zibilekin"

Mikel Cabieces

> Espainiako Gobernuaren ordezkaritza

"Mondragon Unibertsitatea modu eredugarrian egokitu da Bolognako eredura"

Isabel Zelaia

> Hezkuntza sailburua



mozten.



Eraikina bisitatzen.



Eraikin berria, kanpotik.

LEIRE KORTABARRIA



Liburutegiaren alderdi bat.

LEIRE KORTABARRIA

DEIA

Ikasle ohi guztiak gonbidatu gura dituzte Kursaalera

Azaroaren 18an, Kursaalaren batu gura ditu Enpresagintza Fakultateak irakasleak, enpresak eta gaur egungo ikasleak zein ETEOkoak izan direnak. "600 lagun inguruztea pentsatu dugu, eta dagoeneko 250 ikasle ohi inguruk izena eman dute", azaltzen du Enpresagintza Fakultateko marketin arduradun Amaia Aizpuruk. Ekitaldi "dinamikoa" nahi du unibertsitateak; horretarako, agintarien hitzaldiez gain, bideo batzuk prestatu ditu, iragana, etorkizuna eta ingurunea irudikatzen. Mahai-inguru bat ere izango da; eta azkenik, ikuskizun berezi bat. Joaten diren guztiei fakultatearen historia jasotzen duen Jose Antonio Azpiatzuren *Historiatik etorkizunera begira* liburuaren ale bat emango diete, izena emateko, www.mondragon.edu webgunera jo behar da.

Esan zuen Mondragon Unibertsitatearen betiko "berezitasuna" dela "enpresarekiko duen lotura", eta hori "euskararen enpresendako pribilegioa" dela. "Enpresak MUn daude: haren erabaki-organoe-tan eta ekarpen ekonomiko gisa", esan zuen.

LEHIAKORRAGO IZATEKO Euskadiko, Gipuzkoako eta Espainiako gobernuetako ordezkariak MU zoriondu zuten lorpen berri horrengatik. Espainiako ordezkari Mikel Cabiecesek, labur-labur, esan zuen "plazera" zela berretako han egotea, eta ziur

zegoela "arrakasta" izaten jarraituko zuela Enpresagintzak.

Markel Olano ahaldun nagusiak "lurralde oreka" ideia plazaratu zuen lehenengo: "Oñatik eta Debagoienak askotan esaten dute Donostiatik urrun sentitzen direla, baina horrelako campus bat

lurralde baten periferian egotea oso gutxitan gertatzen da".

Bigarrenik, krisia gogora ekarri zuen, esanez "oraindik, egoterra ekonomikoa oso zaila" dela, eta etorkizunean "lehiakor izaten jarraitu" behar duela Gipuzkoak. "Campus hau enpresarekin lotu-

ta egotea gipuzkoarron etorkizunerako klabe bat da", esan zuen.

Hezkuntza sailburuak laburbildu zuen ordezkari guztion inpresioa: "Mondragon Unibertsitatea ohoreekin titulatu da campus berri honekin eta Boloniara egin duen egokitzapenarekin".

Donostia Hiriko Kutxa Literatur Saria 2010. Antzerkia



Argazkia: Manuel Díaz de Rada

NO ME HAGAS DAÑO

Egilea: Rafael Herrero
Ekoizpena: Tanttaka teatroa

ANTZERKIA

Non:
Arrasateko Amaia Udal Antzokian.

Noiz:
Urriaren 31n, domeka, 19:30ean

Sarrera: 6 €

Babeslea:



Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

GERTAERAK > LAPURRETAK

Etxeetan egindako lapurretek gora egin dute gurean

Lapurretak saihesteko atea giltzarekin ixtea gomendatu dute Udaltzaingoeak

E.M. > BERGARA

Bergarako Ertzaintzako komisarioak eta Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara eta Sorluzeko udaltzaingoeak osatzen duten polizien koordinaziorako mahaiak aditzera eman dutenez, etxebizitzetan egindako lapurretek gora egin dute nabarmen azken asteotan. Ahal den neurrian lapurretak saihesteko atea giltzarekin ixtea komenigarria dela adierazi dute ibarreko udaltzaingoeak eta Ertzaintzak. Haien arabera, horrelako neurri erraz batek gertatzen diren lapurre-

ten %90 galaraziko lituzke. Atea giltzarekin ixten ez bada lapurrei erraztasun handiak ematen zaizkiela azpimarratu dute.

ETXEAK, ENPRESAK ETA AUTOAK Bergarako Udaltzaingoeak emandako datuen arabera, azken 12 hilabeteotan 41 lapurreta izan dira Debagoienean eta 2010ean 31 zenbatu dituzte dagoeneko. Arrasaten gertatu dira lapurreta gehien, orain arte, urtarriletik hona: 10. Bergaran 7 zenbatu dituzte, Aretxabaletan 6 eta Antzuolan 3.

Bestalde, Debagoieneko enpresetan egindako lapurretak 34 izan dira 2010ean eta azken 12 hilabeteotan 50 salaketa jaso dituzte. Azkenik, autoei dagokienez, 41 salaketa jaso dituzte azken 12 hilabeteotan eta urtarriletik urrira bitartean 33 izan dira.



Udal ordezkariak zein herritar ugari batu zen Bergaran eguaztenean egindako prentsaurrekoan.

LANDER MUÑAGORRI

POLITIKA > EGUBAKOITZEKO ATXILOKETEN AURKAKO MOBILIZAZIOAK

Atxiloketak gaitzesteko mobilizazioak egin dira

Bergaran egin dituzte batik bat, Aitziber Plazaola bergararrari, zein atxilotuei babes eskaintzeko; Udalak ere gaitzespen mozioa onartu du

LANDER MUÑAGORRI > BERGARA

Joan den egubakoitzean Polizia Nazionalak Segi erakundearen aurka egindako operazio polizialak mobilizazio ugari eragin ditu Euskal Herrian, zein gurean. Operazioaren baitan, Aitziber Plazaola bergararraren etxea eta haren gurasoena miatu zuen polizia nazionalak egubakoitzean, gaztearen bila.

Miaketa zein atxiloketen aurkako hainbat mobilizazio egin dira Bergaran, horietatik azkena, eguaztenean. Hain justu, herriko hainbat eragile politiko eta kulturelek deituta, lehenengo prentsaurrekoa, eta gero manifestazioa egin zuten herriko plazan, *Gazte Altxa! Iraultzak aurrera darrai!* lelopean.

Aitziber Plazaolarekiko eta gainontzeko atxilotuekiko kezka eta elkartasuna adierazi zuten, eta "euskal gazteriaren aurkako eraso larri" bezala jo zuten. Horrez gain, "ezker abertzaleak abiatutako prozesu demokratikoaren aurkakotzat" ere jo zuten.

Ez zen eguneko bateratze bakarra izan, ordea. Goizean, GazteEHherriak deituta mobilizazioak egin ziren ikastetxe eta unibertsitateetan. Bergarako ikastetxeetan ere egin zituzten geldialdiak eta manifestazioak ere egin zuten.

Goizean eta arratsaldean zehar egindako manifestazioetan, bestalde, Ertzaintzak bost pertsona identifikarazi zituen.

UDALAK, MOZIOA

Bergarako udalbatzak astelehenan egindako osoko bilkuran, Gazte Independentistek atxilotuen aurka aurkeztutako mozioa onartu zuen, Udal Gobernuaren eta EAren aldeko botoekin, EAJren abstentzioarekin eta PSE-EEren aurkako botoekin.

Mozioarekin udalbatzak "elkartasun osoa" helarazi nahi die "atxilotu dituzten zein operazioaren jomuga izan diren gazte guztiei eta haien senide eta lagunei". Era berean inkomunikazioa gaitzetsi dute. Osoko bilkura osteko manifestazioan ere parte hartu zuten hainbat zinegotzik.

HEZKUNTZA > EUSKARA

Laneki: lanbide heziketako materiala, euskaraz

Euskarazko 'on line' hiztegia, lanbide heziketako 5.600 kontzeptu inguru jaso dituzte

5.600 KONTZEPTU

Hiztegia azken hamar urteotako lanaren emaitza da eta lanbide heziketarekin zerikusia duten 5.600 kontzeptu baino gehiago batu dituzte. Esan bezala, Interneten eskuragarri dago, www.jakinbai.com helbidean.

Bultzatzaileen arabera, lanbide heziketari buruzko informazioa gizartearen eta edozein erabiltzailearen esku jartzea da, eta, era berean, gizartearen eta euskararen garapenaren alde egitea. Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan dute. Terminoei dagokienez, euskarazkoak 5.900 dira eta gaztelaniazkoak 5.600. Iaz 21.399 erabiltzaile izan zituen webguneak.

E.M. > BERGARA

Laneki euskarazko on line hiztegia aurkeztu zuten aurreko egubakoitzean Donostian. Lanbide Heziketa sustatu eta hobetzeko elkarte da Laneki eta tartean dira Debagoieneko ikastetxe publikoak eta Oñatiko Zuazola Larraña institutua, Aretxabaletako ALE GMHI eta Bergarako Miguel Altuna institutua.



Atxiloketak salatzen manifestazioa egin zuten herriko kaleetan zehar.

L.M.



IKASTARROAK

- **MINTZAPRAKTIKA INGELESEZ**
Erdi-mailako ezagupena dutenentzako
Hasiera: azaroak 10.
Klase eguna: asteazkena
Ordutegia: 18:15 - 20:45
Matrikula epea: azaroaren 5era arte

Informazio gehiagorako:
Tel.: 943 76 90 33
info@bergara.uned.es

> TURISMOA

36ko gerraren gaineko ibilbideak Intxortan datozen asteotan

36ko gerra Euskal Herrian oinarri hartuta, Intxortako ibilbide tematikoa egiteko aukera izango da azaroaren 7ean (euskaraz), 28an (gaztelaraz), abenduaren 5ean (euskaraz) eta abenduaren 19an (gaztelaraz). 5 kilometro inguruko ibilbidea da. Izenematea eta argibideak: 943 71 89 11 edo 943 79 64 63 .

> ELKARTASUNA

Jangela Solidaria erakundea Arrasaten izango da azaroaren 13an

Jangela Solidaria gobernuaren kanpoko erakundeak postu bat jarriko du Seber Altube plazan datorren azaroaren 13an. Etiopiako umezurtzen aldeko erakundea da Jangela Solidaria. Laguntza emateko interesa dutenek Internet bidez ere egin dezakete, www.jangelasolidaria.com helbidean.

> SARIA

ONCEn loteriak 280.000 euro utzi ditu saritan Aretxabaletan

ONCEn loteriak 280.000 euro utzi ditu saritan Aretxabaletan. Izan ere, 35.000 euroekin saritutako zortzi txartel herrian saldu ziren. Hain zuzen, Mitarte kalean kioskoa duen eta ONCEn produktuak saltzen dituen Patxi Nuñez Morenok saldu zituen. Saria eguaztenean, hilaren 27ko, zozketan eman zen.

UDALBILTZA

Rodriguez eta Ubera, Bermudez epailearekin

Auzitegi Nazionalaren prozesua salatu dute Batzar Nagusiek

E.M. > BERGARA

Rebeka Ubera eta Ander Rodriguez, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Aralar eta Alternatibako eledunak, Udalbiltzaren aurka Auzitegi Nazionalan egiten ari den epaiketan izan ziren martitzenean, Madrilen, Batzar Nagusiak ordezkatzen. Hain zuzen, Rodriguezek eta Uberak Batzar Nagusietako osoko bilkurak onartutako testua helarazi zioten Gomez Bermudez epaileari.

Aipatutako testuan, Auzitegi Nazionala egiten ari den prozesua salatzen dute Batzar Nagusiek eta Espainiako Fiskaltzari dei egiten diote salaketa erretiratu eta auzia artxiba dezan. Era berean, Batzar Nagusiek agirian adierazten dute zilegi dela Udalbiltzaren sortze prozesuan ezarritako bost puntuen alde lan egitea; lan hori ezin daitekeela delituzat jo azpimarratzen dute eta lan horregatik alkate eta hautetsiak kriminalizatzea demokraziaren kontra jardutea dela.

EPAIAREN ZAIN

Rodriguezek eta Uberak nabarmendu dutenez, "Udalbiltzaren kontrako epaiketarekin *Guztia ETA da* istorioaren beste atal bat ikusten ari gara. Aralar eta Alternatibatik premisa horren aurka gaudete eta uste dugu, gutxienez, maila demokratikoan, kasua artxibatzea izango litzatekeela. Gomez Bermudez buru duen epaimahaiak epaiaren zain utzi zuen martitzenean epaiketa. Uztailean hasi zuen ahozko saioa. Udalbiltzako auzipetuen aldeko ekitaldien artean, bertso saioa izan zen domekan Arrasaten.



Imanol Biain, Idoiaga alkatea eta Murgiondo zinegotzia, martitzeneko ekitaldian. E.M.

JENDARTEA > ONDAREA

Arrikruzteko interpretazio-gunea zabaldu dute

Bisitariei zuzendutako panelak jarri dituzte; proiektuak 19.000 euroko aurrekontua izan du

EDU MENDIBIL > OÑATI

Arrikruz-Oñatiko Kobetako harrera-gunearen inaugurazio ekitaldia egin zuten martitzenean. Lourdes Idoiaga Oñatiko alkateak azpimarratu zuenez, Arrikruzti balio erantsia emango dio gune berriak: "Edukiez betetako espazio hau hutsune bat betetzera dator eta esperientzia berriak jaso ahal izango dituzte bisitariak aurrerantzean. Nolabait esatearren, koben *liburua* izango da hau eta aberasgarria izango da guztiendako, tartean hona hurbiltzen diren ikasleendako. Eskerrak eman nahi dizkiet proiektu honetan lan egin duten guztiei".

PANELAK IKUSGAI

2007ko ekainean Arrikruz Kobetako 53 galeria bisitariendako zabaldu ziren. Orain, hilabetetako lanaren ondorioz, koba munduan guztiz murgildu eta esperientzia berria bizi izateko aukera eskainiko dute. Imanol Biain oñatiarra da proiektuan parte hartu dutenetako bat. Harekin lanean ibilitakoen lana goraiatu zuen martitzenean: "Datu pila bat genituen, espeleologo, paleontologo eta abarrek urtetan batutakoak, eta laburpen txiki bat egin dugu. Lur azpian benetako

altxorrak daudela erakutsi nahi genuen eta hau guztia itsaso azpian zegoenetik honako ibilbidea jaso dugu". Hainbat panel jarri dituzte ikusgai Arrikruzteko sarreran: paisaia karstikoaren gainekoa, 1871tik Oñatiko espeleologiaren historia jasotzen duena edota Gesaltza-Arrikruz-Jaturabe multzo karstikoari buruzkoa. Era berean, leize lehoiaren eta leize hartaren hezurdura daude ikusgai eta sekuentzia guztiak batzen dituen kronograma ere bai. Orain, gainera, duela bi urte topatu zuten Arrikruzteko hilarriak egiten die ongietorria bisitariei.

Aurrekontua 19.000 euro izan da eta Jaurlaritzak eta Oñatiko Udalak ordaindu dute.

ESANAK

"Espazio hau hutsune bat betetzera dator; esperientzia berriak jasoko dituzte bisitariak aurrerantzean"

Lourdes Idoiaga > Alkatea

JENDARTEA > VI. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK

Gazta eta onddoak VI. jardunaldi gastronomikoetan

L.M. > BERGARA

Udazkenari ekin berri diogu, eta harekin batera Debagoienerako gastronomia jardunaldien beste edizio bat hasi da. Menu bereziak prezio berezian eta garaiko produktuekin eskaintzea da ekimen horren helburu

nagusia, eta udazkenean ere ildo horretatik jarraituko du. Gaurtik abenduaren 12ra arte iraungo dute jardunaldi gastronomikoak. Bertan bost jatetxek hartuko dute parte: Arrasateko Hilarion, Bergarako Lasa, Leintz Gatzagako Soran eta Oña-

tiko Etxe-Aundi eta Goiko Benta, hain zuzen ere.

Eskainiko dituzten menuetan, Idiazabal jatorrizko gazta, onddoak eta erreserba handiko Cruzcampo edo ardo ondua egongo da.

Jardunaldiek irauten duten bitartean bi ekitaldi ere egingo dira: azaroaren 5ean Arrasateko Kulturaren gazta dastaketa egingo da eta azaroaren 19an Arrasateko Seber Altube plazan onddo eta txistor pintxoak banatuko dira.

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

URRIKO ZOZKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA

Bidali KLUBA ZIRA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.



ESAIT-EKO KAMISETA GORRIA

Bidali KLUBA KAMISETA [bazkide zenbakia] 5195 zkra



DANBAKAKO PACKA

Bidali KLUBA DANBAKA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.



UMEENTZAKO LIBURUA

Bidali KLUBA LIBURUA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.



SARI NAGUSIA UZTAILA-URRIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

WII SPORTS RESORT PACK TXURIA



Sistemen salmenta eta mantenua TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak Webguneen diseinua.

Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean) BERGARA Tel.: 943 76 51 95



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



zabalik

Sergio Azkarate

Luze doie kontue

Notizia jakin eta belaxe prentsurrekue, TVE1ko telediarixuen, *La Noria*-n, *Espejo público*-n, komunikauek atara... Eta hala-ko baten, desagertu egin da Alberto Contador. "Hamar eguneko kontue" zana asko luzeketan dabil; asunto txarra.

Setienbrien jakin geuen gehixenok, baiñe Contadorrek berak hillebete lehenau ekixen: agostuen 24en esan eutzien Pintokuei klenbuterola agertu zala berai egindeko kontrol baten, txixan. Kantidade txikiñe, baiñe hor euen. Hortan, positibo. Klenbuterola exogenu da, ez dau gorputzak berez sortzen. Tourreko bigarren deskantsu egunien izen zan positibo hori, julixuen 21ien.

Eta orduen hasi zan solomilluen *show-a*; izen be, Contadorren bersiñue da Irungo karnizerixa baten erositako okela jan euela deskantsu egunien eta harek eukela klenbuterola. Hurrengo egunien Tourmaletoko etapa dezisibue jokatut biher zan, eta munduko ziklista onenak, kontrato millonarixuekin, dana zaindu-zaindute daukonak... aurreko egunien zer eta auskalo nun erositako solomillue (ez da agertu karnizerixen izenik), okela!, jan euela? Ziklistak berak esan euen solomillue jan euela Irundik eruen eutzenai "mespretxu ez egittiarren". Zer? Ez dakit ba... deskantsu osteko etapie egin euen 170 ziklistetatik zenbatek jango euen aurreko egunien okela, gorputzak erreteko denbora luzie biher dauen alimentue...

Gero jakin da plastiko hondarrak be agertu diela julixuen 20xen egindeko kontrol baten; batzuek segiduen lotu euen odol transfusiñuekin. Dopiñan kontrako munduko agentziak (WADA), baiñe, esan dau ezin dala %100 baieztatu plastiko horreik odol poltsanak dienik, nahiz eta implizitoki rekonozidu plastikuek egon badauzela.

Ba, urte biko sanziñue jaso leike, edo ez; izen be, nere ustez, gauza bat bakarrrik egin biher dau Contadorrek berak: probetie klenbuterola bere gorputzien euela okela jatiarren. Lortuko dau?

usteak uste

Arantzazu Ezkibel

'Uyyyyy!' programa eta neskak

Ez naiz jarraitzaile sutsua, baina inoiz ikusi izan dut ETB2n Oscar Terolek aurkezten duen *Uyyyyy!* kirol programa. Gauza bat ez zait gustatzen: emakumeei ematen zaien tratua. Gonbidatu eta laguntzaileak mutil kirolariak izaten dira, edo kirolari izandakoak, behintzat: futbol jokalarriak, pilotariak, saskibaloio jokalarriak, entrenatzaileak... Emakumeak, berriz, bi dira eta biak modeloak. Gainera, neska horien edertasunaren gaineko komentario tentelak egiten dituzte behin eta berriz. Uste dut nahikoa dela.

"Munduko ziklista onenak auskalo nun erositako solomillue jan?"

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

Zertan dabil Ibarretxe?

Mikel Iturria

http://eibar.org/blogak/iturria

Urtebete baino gehiago pasa du lehen lerrotik aldenduta.

[...] astelehen goizean doktore-tesia irakurri zuen Ibarretxek Donostiako Zuzenbide Fakultatean. Tesiaren izenburua: *Printzipio etikoa, printzipio demokratikoa eta giza garapen jasagarria: eredu demokratiko baten oinarriak*. [...]

[...] nondik nora ibili den azken bolada honetan jakiteko, googlen begira egon naiz. Asteleheneko aurkezpenak betetzen du toki dezente, baina eguneratzeak izeneko aukerarekin izan dut *Berria* egunkarian urriaren 12an ateratako albiste honen berri: *Ibarretxe berriro jendaurrean agertzea "normaltasunez" hartu behar dela dio EAJk*. Izan ere, 13an Bruselan hitzaldia eman behar baitzuen.

Astelehen arratsaldean, gainera, beste hitzaldi bat eman zuen Kursaal. [...]

Gauzak horrela: zertan dabil Ibarretxe?

Zibilkizuna

Anjel Lertxundi

http://berria.info/blogak/lertxundi

Ezagutuko duk testutxo egokiren bat, poemaren bat, glosa aproposen bat ezkontza batean irakurtzeko. Udaletxean duk ezteia, eta badakik zer gertatzen den horrelakoetan: ezin asmatu zer egin, nola antolatu bertako ospakizuna. Denbora, ohitura, jarduna behar ditiagu zibilkizunak normaltzeko, zibilkizunen oinarriko molde eta eszenografia asmatzeko...

Zibilkizun hitza entzundakoa an aurregi arraroa jarriko nion nik, laguna ni lasaitu nahian hasi baitzait: "Bai, ados, *zibilkizun* espresioa *elizkizun* hitzaren ispilutik aterea zagok, baina ez hadi pipertu, ez al da ba hik heuk idatzia arnasten dugun aire-parte handi batek sakristia-usaina izaten segitzen duela oraindik? Denborari denbora, ez zagok beste biderik".

Uste dut laguna hitza saldu nahian aritu zaidala testutxo bat eskatzeko aitzakian. Lortu du: hitz berria burutik kendu ezinik eta zibiltasuna zenbateraino dugun eginkizun, horretantxe eman dut eguna.

koplak

Xabier Igoa

Finlandiako hotzetik jarriak

Finlandian nago hotzikaraka eta zerbait idazteko aprobetxatu nahi dut lagunei goraintziak bidaltzeko!

"Beratzietan" argitu eta bostetako ilargia, hemen dexente luza daiteke gauak dakarren magia!

Gaua luzea da hemen oso eta horrela dut aipa, hori bai juergan ezin da dena azkartxo zarratzen baita!

Minus hirutik hiru gradura ditugu dagoeneko, baina eskerrak kapazak garen gure kabuz berotzeko!

Sarri askotan esan dut zera hona etorri ta gero: Aramaioxoko Gazte *asanbladak* gisa "Hotzien be bero!"

Internet bidez dut horko berri kanpoko askoren gisan, arazoei eutsi a(ha)! bada eta zoriontsu izan!

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAK
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak, Goienkaza eta Gehigarriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea), **Oinarriko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Igone Osinaga, Ziortza Martín, Ederne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxia • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAK 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko
JaurlaritzaGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Gertakari txikien zatiak, esperien-
tzen kontakizunak eta gogoeta
laburrak bildu ditu Jon Sara-
suak *Ertzeko zatiak* liburuan.
Hego hemisferioan izandako lan-
bidaletan, sei urtean zehar ida-
tzitako testu laburren bilduma
da. "Arrasate ez da eredu bat",
dio. "Egin genezakeena da ideia
praktiko batzuk elkartrukatu eta
handik asko ikasi", Lurrik Bare-
koen Mugimenduaren gainean.

Jon Sarasua > Lanki ikertegiko zuzendaria

"Jendarte oparo batean bizi gara eta pobrezia pantailan ikusten dugu"

ENEKO AZKARATE > ARETXABALETA

Jon Sarasua (Aretxabaleta, 1966) Huheziko irakasle eta Lanki ikertegiko zuzendaria *Ertzeko zatiak* liburu aurkeztu du oraingo astean. Miren Arregi kazetariak elkarriketatu du *Gipuzkoa Kultura* Goiena Telebistako saiorako. Pape-
rera ekarri dugu elkarrizketa.

Zergatik *Ertzeko zatiak* izenburua? Ze esan gura izan duzu?

Ertzak esan gura du periferia-koak direla, ez direla zentrokoak. Azken finean, liburuko testuak dira Brasilen eta herri indigenetan egindako lanen inguruko gertaera edo gogoeta zatiak. Hori gaur egungo jendartean nahiko periferikoa da, pobrezia inguruan egindako eta gertatutako gauzak dira-eta. Hor agertzen diren gogoetak ere nahiko periferikoak dira, jendarte honen zentzuari, ertzetik begiratzen dioten gogoetak eta gertaerak. Zentzu horretan, ertzekoak.

Eta zatiak?

Zatiak direlako. Ez da testu jarraitua. Azken 6 urteotan Hego Amerikan lanean nengoela, lane-koendako eta ingurukoendako egindako testu zatiak dira, gogoeta laburrak. Eurengan pentsatuaz eginak. Paragrafo zati independenteak dira alaitzera bildutakoak. Horixe adierazten du liburuak.

Ez dira, hortaz, liburu baterako propio idatzitako gogoetak?

Hau da liburu bat, liburu izateko pentsatu barekoa. Liburuaren erdia ia, orain dela 6 urte idatzitako testuak dira. Hegazkintan, aireportuetan idazten joan naizenak, baina jende konkretu bati bidaltzeko pentsatuak. Hortaz, liburuak da geroztik osatutako collage edo testutxo bilduma bat. Ez dago zentsurarik. Lehen erabilpen pribaturako idatzitako testuak modu ordenatuan jarri eta argitara eman ditut.

Hego hemisferioan idatzitako gogoetak dira, baina Euskal Herriarekin loturarik ere badutenak.

Egia da Latinoamerikan, Brasilen, herri indigenetan idatzitako testuak direla, baina, azkenean, dira geuk geure nazioartekotasuna garatzeko sortutako adar mehe baina adar baten inguruan idatzitakoak. Sakonean dira Mundukide, Lanki eta Garabidoren kooperazio lanaren bueltan idatzitakoak. Hortaz, agertzen dira gogoetak geure buruaz, geu-

re kooperazioaz, geure lanaz, eta, bide batez, egiten dira hango herri eta jendarteetatik geureari buruzko gogoeta laburrak. Gogoeta zipriztinak dira, baina ez da, propio, gogoeta liburu bat. Gogoeta zorrotz bat idaztekoan, neure buruari gehiago eskatu beharko nioke. Gertaera batzuen inguruan irtendako zipriztinak dira.

Diozu liburuan: "Lurrik Barekoen Mugimenduak, Sao Paulon, anekdota marjinal bat dirudi"...


Hura handia da. Lurrik Barekoen Mugimenduak berak bakarrik mobilizatu eta antolatzen ditu 150.000 familia, hau da, ia milioi bat pertsona. Munduko mugimendu sozialik handienetakoa da eta inportanteena batzuen ustez. Hura guretako ikaragarria da, konparatuz Arrasateko Kooperatiba Mugimenduarekin, esaterako. Gainez egiten digu. Baina, bestetik, Brasilen handitasunean, haren moduko mugimendu bat txiki geratzen da.

Ekonomia solidarioaz ere badiharduzu eta Arrasateko kooperatiben mugimendua hangoendako zein garrantzitsu den aipatzen duzu.

Bai, bagenekien batez ere Arrasateko kooperatiben mugimendua munduan daukan garrantzia eta erakargarritasuna. Mugitu gara enpresa zirkuluetan edo Ameriketako Estatu Batuetako unibertsitate inportanteenetan hasi eta Lurrik Bareko Mugimendu iraultzaile muturreko batera arte. Eta ikusi dugu horietan guztietan, batean zein bestean, Arrasatek interesa pizten duela. Ideia praktiko batzuk interesgarriak egiten zaizkie. Guk egiten duguna da mezua zelanbait modulatu: "Kontuz, Arrasatek badauzka ideia praktiko onak, baina badauzka kontraesan eta paradoxak ere". Arrasate ez da eredu bat. Egin genezakeena da ideia praktiko batzuk elkartrukatu eta handik asko ikasi. Nik uste dut gaur egun asko daukala ikasteko euskal jendarteak eta, zehazki, Arrasateko kooperatiben mugimenduak.

Liburu esku artean daukazula, zer sortu edo eragin gura zenuke irakurlearengan?

Uste dut liburu horretan dagoela testigantza bat. Hamar urteotan egindako lanaren testigantza. Eta lana bera baino garran-



Jon Sarasua, argitaratu berri duen liburu eskuan duela, Donostian. MIREN ARREGI

IKUSI ETA IKASI
"Askotan gehien ikasten dugu ez garenean konturatzen ikasten gabiltzala"

TXIROA-ABERATSA
"Pobreak gu bezain aberatsak, edo aberatsak dira dimentsio askotan"

tzitsuagoa da zergatik egin dugun lan hori. Hor agertzen da sakoneko filosofia bat eta da gure moduko herri batek zer egin dezakeen hego hemisferioan. Eta da gure esperientziarik onena konpartitu eta hori konpartitzerakotan sare errealek sortu eta euren-gandik jaso eta ikasi. Hori da sakoneko ideia. Izan ere, liburuan badago Lurrik Bareko Mugimenduko lilura eta ikasteko jarrera bat: hasi haien espiritualtasunetik, mistika lantzeko modutik, lurra ulertzeko modutik... antolatzeke modura. Uni-

bertso txiki baten testigantzatxo bat dago, nagusiki, nire gogoetak baino gehiago. Eta, gero, nire gogoetak ere agertzen dira, bai, hangoak eta hemengoak.

Erljioaz ere badiharduzu liburuan...

Bueno, erlijioa ere bada nire kezka pertsonaletako bat. Erljioa edo espiritualtasuna edo, azkenean, galdera existentzialaren iturria. Eta, zentzu horretan, gai horri begira Euskal Herria lehorragea da eta, beharbada, munduaren beste parte horretan freskotasan handiagoa dago eta sus-trai batzuekiko lotura handiagoa. Erljioaren edo espiritualtasunaren ikuspuntutik hura beste mundu bat da, batez ere ikasteko eta zabalik egoteko.

Zer erakutsi dizu hego hemisferioak?

Uste dut, batetik, pobreak beti erakusten duela. Azkenean, jendarte oparo batean bizi gara eta pobrezia pantailan ikusten dugu. Baina pobrezia adiskide terminoetan, bertatik bertara, haien etxean lo eginez..., horrek bakarrik, asko aberasten du. Bestetik, Lurrik Bareko Mugimendua, pobre izateaz gain, pobrezia antolatua da. Pobrezia horretatik sortu duten antolakuntza berri hori da polisa edo jendarte modu mikro batean birpentsatzeko ahal-egin bat. Horretan asko dauka ikasteko haiengandik. Besteak beste, zentzuaren dentsitate handiagoa delako haien artean gurean baino eta hori gure artean ere badaudela zentzuaren elementu inportante batzuk geure identitatearen inguruan eta abar. Baina, han, zentzuaren dentsitatea oraindik handiagoa da. Bestalde, direna ospatzeko duten modu sistematiko hori... Askotan gehien ikasten dugu ez garenean konturatzen ikasten gabiltzala.

Pobrezia da liburuaren gai nagusia?

Ez nuke esango liburuaren nukleoa pobrezia denik. Ze, pobrezia gutxi aipatzen da. Pobreziatik datozen edo pobrezia gu baino gertuago duten pertsonekin gertatzen direnak kontatzen ditut. Baina gaia ez da pobrezia, gaia da utopia, antolakuntzako esperientziak, indigenen arteko bizipenak... Ze, askotan uste dugu pobrezia dela gai bat eta ez, pobrezia da kondizio bat, baina pobreak gu bezain aberatsak edo aberatsak dira dimentsio askotan.



DESKA

1.830 XL ERRETXINAZKO ARMAIRU



Tresnarik gabeko muntaia

182x89x54 cm.
Leku handia.
(104991)



Eguzkiaren erradiazioei erresistentzia: izpi ultramoreen aurkako tratamendua!

79,95€

1.211 KOMUNEKO ALTZARI

Hauts-koloreko akabera.
Helduleku metalikoak.
Ispilua eta konketa
zeramikoa barne.
Zabalera 81 cm / Sakonera 40 cm
(504875)

Txorrita ez dago barne.



SAKONERA TXIKIA

KAXOIA ITXITURA PROGRESIBOAREKIN

ATEA ITXITURA PROGRESIBOAREKIN

169€

34.474 m² ZORU ESTRATIFIKATU

HDF euskarria . Lodiera: 7 mm, haritz koloreko akabera.
(302668)



eco
BRICO

AC5
KALITATEA



Klik sistema

6,45€

2,66 m²-ko paketetan salgai.
Paketea 17,16 € da

ARGAIK

**BRICO
DEPOT**
PREZIO BAXUAK EGUNERO

URRIAREN 29TIK AURRERA

**3.439
IGORLE
TERMIKO
LEHOR
(900 W)**

Aluminio lehorreko erradiadorea. 900 wateko potentzia. Pantaila digitala astebeterako programagailuarekin (804909)



79€



**665
EGUR-BEROGAILU**

4 mm-ko altzairuan egina. Burdinurtuzko parrilla eta nautsak jasotzeko sistema. Beroaren aurkako pintura. Keak ateratzeko bidea: D120/125 mm. Pisua: 78 kilo. Potentzia: 13,5 kW. Altuera 73,5 cm Sakonera 44,5 cm (504894)

245€



**430 ERREMOLKE
TOLDOAREKIN**

Altzairu galbanizatuan egina. Karga-ahalmena: 400 kilo. Kanpoko neurriak: 129x93x82 cm (903888)

Atzeko ate toleskor eta desmuntagarria: erosotasun handia



329€

1.830 errebinazko armairu, 1.211 komuneko altzari, 34.474 m2 zoru estratifikatu, 3.439 igoile termiko, 665 egur-berogailu eta 430 erremolke toldoarekin. Kopuru mugatuak denda 2010eko urriaren 29tik aurrera: 60 errebinazko armairu, 50 komuneko altzari, 1.532 zoru estratifikatu, 50 igoile termiko, 30 egur-berogailu eta 12 erremolke toldoarekin.



eco BRICO EKOLOGIKO, MERKE ETA OSASUNGARRIA HORRELAKOA DA ZURE EGOITZA BERRIA. **eco BRICO** Energia aurrezten laguntzen dizuten produktuak **eco BRICO** Basoen ustiapen ona ziurtatzen dizuten produktuak **eco BRICO** Ura aurrezten laguntzen dizuten produktuak **eco BRICO** Airearen kalitatea mantentzen laguntzen dizuten produktuak

Gure prezio guztiek BEZa barne dute eta baliozkoak dira urriaren 29tik abenduaren 2ra arte

**BRICO
DEPOT**
PREZIO BAXUAK EGUNERO

**GASTEITZ
GORBEIA MERKATARITZA-GUNEA**
A-622 errepidea, 9. Km
Etxabarri Dibina. Zigoitia
TEL.: 945 46 05 10 FAXA: 945 46 05 27
Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 21:00etara etenik gabe
www.bricodepot.es

A KING FISHER GROUP COMPANY



Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 20-21 Aretxabaleta > 22-23 Eskoriatza > 24 Antzuola > 25 Aramaio > 26 Elgeta > 27 Gatzaga > 27



> **ARRASATE**
Herriko ludoteka zerbitzuak 20 urte bete ditu, osasun betean > 12



> **BERGARA**
Euskarazko liburuen truke azoka egingo du Jardunek > 17



> **OÑATI**
'Oñati 2030', herriak zelako Oñati gura duen jakiteko > 20



> **ARAMAIO**
Azoka, herri bazkaria eta beste ekintza batzuk daude bihar > 26

ARETXABALETA > EUSKARA

Herritarron hizkuntza ohiturak jakiteko inkesta bat prestatu dute

KONTSUMOA

'Euskaraz kontsumitzen duzu?' delako galdeketa-orria banatu du Udalak

AZAROAK 5

Udaletxean, Arkupen, euskaltegian edo Zainduzen utz daiteke hilaren 5a baino lehen

LEIRE KORTABARRIA > ARETXABALETA
Eraginez eragin, Euskaraz, plazerra delako ekimenari abian du Udaleko Euskara Zerbitzuak. Eta beste fruitu bat eman du: Euskaraz kontsumitzen duzu? izenburuarekin aretxabaletarroi Udalak egin gura dien inkesta. Erantzuten dutenen artean 60 euroko bi bonu zozketatuko ditu Udalak, herriko komertzioetan gastatzeko.

'EUSKARA PLAZERRA DA'

Udaleko Euskara teknikari Ane Lore Estalak honakoa dio: "Badira hilabete batzuk Udalak Eraginez eragin, Euskaraz, plazerra delako ekimenari hasiera eman zioa. Ekimenaren helburua, bere garaian esan zen moduan, herriko merkatariari hizkuntzaren inguruko zerbitzua eman eta elkarlana abiatzeaz gain, herritarri gogoeta eragitea izan zen, bai euskaraz ez dakienari eta baita euskaraz jakinda ere, erabiltzeko ohiturarik ez duenari ere. Azken finean, dakigunoi ere pentsaraztea eta gogoeta eragitea, sarritan ezin izaten baitugu euskaraz nahiko genukeen bezala bizi".

Bere esanetan, "begi bistakoa da" herrian, merkatari eta ostalaritzan "gero eta ugariagoa" dela euskararen presentzia; Udalaren asmoa, baina, "presentzia hori bazter guztietara iristea da, erakusleho, ohar, karta, menu, eskaintza... guztietara iristea. Hori dela eta, atari digital berria jarri da martxan Euskara Zerbitzuti, Merkatari atari digitala, hain zuzen ere. Bertara, udalaren web



Aretxabaletarrei euren komunikatzeko ohituren gainean galdetuko die Udalak.

MIRARI ALTUBE

orritik sartu ahal izango du, lehenik eta behin merkatari eta ostalarriak, eta zer esanik ez herritarriak, izan ere, zerbitzuaren hartzaile zuzenak herriko merkatari-ostalarriak badira ere, guztion interesekoa eta guztion lagungarri izatea nahiko genuke.

Bertan, idazki eta kartel eredu ezberdinak eskaintzen zaizkie alorreko profesionali, idatziak zuzen idazteko arauak, hiztegiak, eta mota ezberdineko informazioa: dirulaguntzak, lotura interesgarriak, albisteak... Gainera, euskaraz ez dakitenentzako edo

idatziz baldar samar moldatzen direla uste dutenentzako, itzulpen eta zuzenketa zerbitzuak ere martxan jarri dira, aholkularitza zerbitzuarekin batera. Esan beharrik ere ez dago, aipatu berri diren zerbitzuetara jotzen dutenek, kontsulta egin bezain laster izango dutela erantzuna, luzera handiko itzulpen eta zuzenketak ez badira behintzat".



Merkatari.com webgunea.

ARETXABALETAKO UDALA

Euskaraz erabili gura duten merkatariendako

Batez ere merkatariari eta ostalariei zuzenduta, Merkatari.com delako webgunea martxan jarri du Euskara Zerbitzuak. Euren jardunean euskaraz erabili gura duten merkatariari laguntzeko hainbat tresna batzen ditu webgune horrek: esaterako, zuzenketa, itzulpen eta zalantzak argitzeko zerbitzua eta loturak; errotulazioa euskaraz jartzeko eredu erabilienak; euskarazko hiztegi orokorra eta hiztegi espezializatua; eska ditzakeen dirulaguntzak, euskararekin lotutakoak; eta beste hainbat zerbitzu.

raz biziko bagara. Eta ez dakienak ikasi egin beharko du, baina dakigunok eragin behar diogu gorpilari gure bizitzaren alor guztietan euskaraz bizitzeko eta espazio horiek, guk eginez eraginda berreskuratzu".

Hortik abiatuta dator herritarrei Euskara Zerbitzuak proposatzen dien inkesta: "Inkesta egunerokoan ditugun kontsumo ohiturekin lotuta dago, eta bere helburua ez da inor mintzea ezta inor katalogatzea edo zerrendatzea ere. Bertan esaten den bezala, helburua bertako dendetan, tabernetan, jatetxeetan, zein hizkuntza erabiltzen dugun jakin eta gogoeta eragitea bultzatzea da. Inkesta betetzerakoan bakoitzak dituen hizkuntza-jarreraren inguruan pentsatzea nahi dugu, era inkontzientean egiten dugun hori era kontzientean aztertzea. Oraindik ere eremu asko ditugulako irabazteko eta irabaztea edo galtzea gure esku dagoelako".

Inkestak udaletxeko Euskara Zerbitzuan, Arkupen, Zainduzen gimnasioan edo euskaltegian utzi behar dira, azaroaren 5a baino lehen.

LABUR

Parte hartzeagatik, 60 euroren aukera

Inkesta betetzen duten guztien artean 60 euroko bi bonu zozketatuko dira, herriko komertzio, taberna eta jatetxeetan gastatzeko.



Inkesta orria.

ZERBITZUAK > LUDOTEKAK

Ludotekak: aisialdia eta heziketa, balioetan oinarrituta

Arrasaten ludotekek 20 urteko ibilbidea dute; orain hiru daude: zentroan eta auzoetan

Umekin lolasteaz gain, umeen ongizate emozionala lantzen dute hezitzaileek

UBANE MADERA > ARRASATE

80ko hamarkadan zabaldu zuten lehenengo ludoteka Arrasaten: Seber Altuben, 1988an, justu. Harrezkero, berriak zabaldu eta orain hiru daude Arrasaten: Santa Marinakoa, Okendokoa eta Usaetxekoa.

Hiruren artean 3-12 urteko ia ia 500 umeri ematen diete zerbitzua. Hala ere, ikasturte honetan ez dira oraindik kopuru horretara iritsi, eta ume gehiago gustura hartuko lituzkete. Hori bai, beste auzo batzuetan badira ludoteketarako eskaera gehiago: "Musakola auzoan gurasoek eskatu dute eta San Andresen ere bai", azaldu du Mirari Arandok, Txatxilipurdi elkarteko ludotekaren arduradunak.

ERDIALDEAN ETA AUZOETAN

Izan ere, agerikoa da ludotekak erabat txertatuta daudela Arrasaten, Udalak berak ere ahalegin berezia egin du eta hala izateko: "Arrasatez gainera, auzoetako ludotekak ez daude herri askotan, kasu gehienetan dago bakarra eta erdigunean", adierazi du Blanka Jauregi, Udal Gazteria Saileko teknikari-buruak.

"Arrasaten auzoetara zabalteko saiakera 80ko hamarkadan planteatu zuten Udaleko hainbat sailek. Ikusi zen zerbitzu asko erdigunean bakarrik zeudela eta auzoetara ere zuzendu beharra zegoela, eta hala egin zen. Adibidez, Santa Marinan hasieran gela



Maialen Gorosabel, Mirari Arando, Iñaki Manuel (hirurak Txatxilipurdikoak), Blanka Jauregi (Udala) eta Arantza Osoro (Txatxili). U.M.

DATUA

30

EURO

Ludoteka bateko bazkide izateak kostatzen du 30 euro urtean "oso prezio sinbolikoa da. Eta hori oztopo ez izateko, gizarte zerbitzuetan dauden familien kasuetan kuota murriztua aplikazen da".

bakarra zegoen, baina ikusita zenbat jende gerturatzen zen, bigarren gela zabaldu genuen", azaldu du udal ordezkariak.

ONGIZATE EMOZIONALA

Bestalde, ludoteka baten funtzioaren garrantzia ere azpimarratu gura izan dute Txatxilipudi zein Udaleko ordezkariak; umek jolasteko lekua baino askoz ere gehiago dela azpimarratu: "Aisialdiko gune hezitzailea da. Umeak datoz ondo pasatzera, baina heziketa ere lantzen da, balioak: elka-

rekiko errespetua, aniztasuna, autonomia, ingurumena, kultura-artekotasuna, gurasoekin harremanak, berdintasuna, etorkinen integrazioa... guztia euskaraz. Oso inportantea da umeen ongizate emozionalerako, euren sentimenduak espresatzeko, haserre-ak bideratzen laguntzen zaie, sormena garatzen... Eta oso garrantzitsua da guzti hori garatzeko aukera izatea, hezitzaileen laguntzarekin, leku seguru eta eroso batean, batez ere kanpoan euria eta hotza dagoenean, laguntxoekin eta jostailuz inguratuta".

TXATXILIPURDI KUDEATZAILE

Hori guztia umekin lantzeko hezitzaileak daude ludoteketan, Txatxilipurdiko hezitzaileak, "gela bakoitzeko bi; eta bada hezitzaile bat premia bereziak dituzten umei arreta egiteko: behar fisiko zein psikosozialak dituztenei...".

Txatxilipurdi elkarte 1994an hasi zen Arrasateko ludotekak kudeatzen eta 2003an lehiaketa publikoa atera zuen lan horretan segitzeko, eta 2008an bigarren.

MATERIALA

Ikastoletan eta argitaletxeetan duten materiala

Ludoteketan umeen arteko harremanak lantzen dituzte, horiek dira "gakoa", baina horiek lantzeko baliabideak jolasak dira. Eta jolasak eskuratze orduan ahalegin berezia egiten du Txatxilipurdik: "Euskaraz dagoen material guztia eta erdarazko (alemanez...) jostailu batzuk euskarara itzulita, jolas kooperatiboak batez ere. Urtero begiratzen dugu ea ze ateratzen duen Ikastolen Elkarteak, Elkarrek, Elhuyarrek... saiatzen gara jostailu berri guztiak eskuratzen eta ludoteketan askoren artean lantzeko egokienak ikusten ditugunak eskuratzen ditugu. Horrez gain, psikomotrizitatea lantzeko txokoak daude ludoteketan, txoko lasaia ipuin kontakete-tarako, jolas sinbolikoetarako txokoak, eta abar".

oharrak

IKASTAROA

> Yoga ikastaroa

Ekialdeko eta mendebaleko masajeak eta nork bere zainketak lantzeko ikastaroa egingo dute azaroaren 13-14ko asteburuan; eta baita astean behin ere (hasiera kontsultatu). Erlaxatze-ko masajea, kiromasajea, oinetako masajea, lepo-buru-garezurreko masajea, Thailandiako masajea, Koreako erlaxazioa, elikadura, sendabelarrak eta bes-

te landuko dituzte. Irakaslea Jose Luis Abuin izango da, urte luzez Musakolako kiroldogian masajista izan dena. Izena emateko: 943 77 01 33 edo 639 02 47 14, edo www.masajesabuin.com.

TAILERRA

> Xaboa egiteko

Xaboa egiteko tailerra antolatu du Bedoña Batu Kultura Elkarteak. Azaroaren 6an da ikastaroa, eskola-etxean. Parte hartze-

ko ikasle kopurua mugatua denez, eskertu egingo lukete interesa dutenek izena ahal bezain azkarren ematea. Lehentasuna izango dute Bedoñako auzotarrek. Ikastaroa euskaraz izango da eta prezioa 10 euro da.

KINTOAK

> 1955eko kintoak

Azaroaren 27rako egin dute hitzordua 1955an jaio direnek Errioxara joan eta bazkaria egi-

teko. Joan gura duenak izena eman behar du azaroaren 19a baino lehen, 60 euro sartuta Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 02 02 762021037810.

KINTOAK

> Lizarrara irteera 56koek

Azaroaren 13an Lizarrara joango dira 1956an jaiotakoak. Izena ahalik eta lasterren eman behar da 60 euro sartuta honako kontuan: 3035 0001 50 001 1149525.

ZERBITZUAK

Azokako saltoki guztiak, lehiaketara

Saltokietako baten esne-makina ipini gura dute, baserriko esnea saltzeko

U.M. > ARRASATE

Lehiaketa publikora aterako dituzte azoka plazako saltoki guztiak urtea amaitzean. Hala, azokako 49 saltokietakoren bat eskuratzeke interesa daukan edozeinek aurkeztu ahal izango du proposamena. Saltokietako bat eskuratuz gero, lau urterako kontzesioa emango du Udalak.

BASERRITARREN ESNEA

Hori bai, saltokietako baten esne-makina ipini gura du Udalak. Vending erako makina izango da, dirua sartu eta esne batu berria emango duena. Izan ere, Udalaren helburua da hemengo baserritarren esnea saltzea, baserritar batek hartuta makinaren ardura edo baserritarrek osatutako elkarte baten bitartez.

ZERBITZUAK

Domu Santu egunerako autobus bereziak

Domekan orduro pasako da autobusa eta astelehenean ordu erdian behin

U.M. > ARRASATE

Domu Santu egunean eta bezperan, hau da, domekan eta astelehenean ezohiko ibilbide eta ordutegia izango ditu urbanoak. Domekan, 10:00etan aterako da lehenengo Gorostizatik, eta 18:00etan azkena; orduro pasako da. Eta astelehenean ere 10:00etan hasiko da, baina ordu erdian behin pasako da eta 18:30ean irtengo da azkena.

Ibilbidea honako hauxe izango da: Gorostiza-Erguin-Arimazubi (Bolintxo)-San Andres-Garibai-Maala-San Frantzisko biribilgunea-Legarre-Musakola-Joan Bengoa-Santa Teresa-Agarre-Obenerreka-Makatzena-Hilerria. Jakina, beheranzko ibilbidea gorakoaren alderantzizkoa izango da.

GAZTERIA > AISIALDIA

Probaz osatutako jinkana eta zuzeneko musika, 'Erdigunea piztu'-ren itzulerarako

Gaztetxoan aste bukaerako hutsunea betetzeko, ikasturteko lehen ekintza antolatu dute biharko Udalak eta Txatxilipurdik; eguraldi txarragatik, Kulturaten egingo dute

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Bueltan dator *Erdigunea piztu!* ekimena. Iaz sortu zuten Udalak eta Txatxilipurdik, 12 eta 17 urte arteko gaztetxoan aste bukaerako aisialdian ikusten zuten hutsunea betetzeko asmoz. Hala, hileroko gutxi gorabehera-ekin-tza ezberdinak antolatu zituzten. Zapatuan elkartzen ziren, herriko erdigunean.

Hori ez da aldatuko: ekimenaren bigarren ikasturteko lehen ekintza bihar, zapatua, egingo dute. Hasierako asmoa Monterron parkean proba ezberdinez osatutako jinkana egitea zen, baina, eguraldi iragarpen eskasak ikusita, antolatzaileek erabaki dute ekimena Kulturateko areto nagusira pasatzea. Jinkana eran



Erdigunea piztu ekimenaren iazko irudi bat.

ARTXIBOA

izango da, baina probak berriro planteatu behar izan dituzte. Probak amaitu eta osteko sari bana-ketaren ondoren, zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek. Eta ez da edozein talde etorriko, gainera: Los Galerna laukote arrasatearrak joko du. Hortaz, nerabeek Arrasaten surf musika egiten duen talde entzuetuena ikusteko aukera izango dute; etxeokak eta goi mailakoak.

IZENEMATE MUGATUA

Lander Juaristi Txatxilipurdiko koordinatzaileak jakinarazi duenez, izenemate mugatua izango da. Gehienez zazpi talde egingo dituzte, eta talde bakoitzean gutxienez bost eta gehienez hamar kide izango dira.

Izena emateko gazte txokotara edo gazte bulegora gerturatu beharko dute parte hartu gura dutenek. Lekua geratzen bada,

bihar bertan izena emateko aukera egongo da. Proba ezberdinak egingo dituzte eta haiek amaitu ostean puntuazio onena jasotzen duen taldeak saria izango du.

UDALA, POZIK EKIMENAREKIN

Bestalde, Udala pozik dago *Erdigunea piztu!*-k nerabeen artean izan duen harrerarekin. Blanca Jauregi Gazteria Saileko ardura-dunak adierazi duenez, nerabeen erantzuna "ona" izan zen iaz: "Gainera, hiru auzotan dauden gazte txokoetako eskaintza herri mailara zabaltzea lortu da ekimenarekin". Hori bai, oraindik ez du gaztetxoan asteburuko eskaintzarik eza betetzerik lortu, haren ustez: "Nerabeei zuzendutako aisialdi eskaintza hutsuneak jarraitzen duenez, eta horri erantzuna emango dion Gazte Gunea martxan jarri bitartean, *Erdigunea piztu!* egitarauarekin jarraituko dugu, gaztetxoei ondo pasatzeko ekintzak bideratu eta parte-hartze aktiboa bultzatzen".

Izan ere, Jauregik uste du hutsune hori betetzeko proiektua Gazte Gunea dela. Oraindik, baina, itxaron egin beharko du: diru falta da gune hori egokitzearen traba nagusia.

> OSPAKIZUNA

Gazte Eguna bihar, egun osorako egitarau oparoarekin

Gazte Eguna egingo dute bihar gaztetxean. Egun osorako egitarau prestatu dute: 10:30ean Arrasateko gazte mugimenduarren gaineko mahai-ingurua egingo dute. Herri bazkaria ere izango da -txartelak Irati tabernan dau-de salgai, bost eurotan-, baita kalejira berezia ere. Azkenik, kontzertuak izango dira, 22:30ean hasita: Bergarako Emon taldea eta herriko The Convicts eta Alcoholic Sound igoko dira agertokira.

> ELKARRETARATZEA

Herriko hainbat kirolarik deitu dute urriko 'Azken ostirala'

Kondena beteta duten eta larri gaixo dauden presoak askatzeko eta euskal presoak eskubide guztien jabe izatea aldarrikatzeko, elkarretaratzea egingo dute gaur Herriko Plazan (19:30). Herriko hainbat kirolarik deitu dute urriko *Azken ostirala*; Mondra futbol taldeak, Arrasate eskubaloi taldeak eta Arrasate Kanpazar errugbi taldeak bat egin dute, baita bakarka diharduten beste kirolari batzuek ere.



ELKARLAGUNTZAKO ELKARTEA
Sociedad de Socorros Mutuos

www.sanfelipeapostol.com
fsanfelipe@telefonica.net

Gipuzkoa etorbidea 33 behea
Tel.: 943 79 16 82
Tel./Faxa: 943 77 30 22

ARDURADUNAK
Alberto Ojanguren Ugarte
Kontxi Bedia Madinabeitia

1. ERAKUNDEA SAN FELIPE APOSTOL etekinak lortzeko asmorik ez duen eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Segurantzza eta Lan Departamentuko Gizarte Segurantzza Zuzendaritzan izena emanda duen elkarte bat da, **1.898ko apirilaren 13an sortu zen eta 12.950 bazkide** ditu.

2. Eskaintako prestazioak

San Felipe Apostol elkarteak hildako bazkideari honoko gastu hauetan lagunduko dio:

- **Espaniako Estatu barruan** egin beharreko leku aldaketak; hau da, hileta gertatzen den tokitik hildakoa bizi zen edo erroldatua zegoen herrira eramatea
- Hildakoari lur emateko arka.
- Herrian zehar eskelak jartzea.
- Auzitegian egin beharrekoak. Mediku ziurtagiria.
- Hildakoen janzte lanak.
- Auzitegian egin beharrekoak. Mediku ziurtagiria
- **600 euroko diru-laguntza**, hildako bakoitzagatik.

3. SARRERAKO KUOTAK

40 urtera arte sarrera doan	
41 etik 45 urtearte	110 €
46 etik 50 urtearte	170 €
51 etik 55 urtearte	280 €
56 etik 60 urtearte	390 €
61 etik 65 urtearte	560 €
66 etik 70 urtearte	900 €
70 urtetik gorakoak	1.350 €

4. URTEKO KUOTAK

Titularrak:	23 €
Ezkontideak:	23 €
Onuradunak:	11 €



SAN FELIPEKO ZUZENDARI BATZORDEA:

Zutik ezkerretik eskumara: Jesus Mari Heriz (Presidentea), Alberto Ojanguren (Maiorala) eta Juan Luis Merino (Bokala). **Eserita daudenak eta ezkerretik hasita:** Santiago Garai (Diruzaina), Joshe Elorza (Idazkaria), Roberto Bolinaga (Bokala) eta Ramon Luengo (Bokala). **Azaltzen ez direnak:** Luis Etxebarriarteun (Presidenteordea), Koldo Arnaiz (Bokala), Enrike Dolara (Bokala) eta Gaizka Mondragon (Bokala)

**INFORMATU
ETA EGIN
BAZKIDE**

> ATLETISMOA

Malen Ruiz de Azuak ez du bere mailan kontrariorik

Kadete mailako Kluben Arteko Espainiako Txapelketako finala jokatu zuten joan den asteburuan Zaragozan, eta, beste behin, Malen Ruiz de Azua lehenengo sailkatu zen (3,35), bere kategorian kontrariorik ez duela erakutsita. Arrasatekoak Bidasoa taldea defendatu zuen, eta taldeka bederatzigarren sailkatu ziren. Lesio bat dela-eta Izar Gorroño goitiaz ez zen lehiatu.

> ERRUGBIA

Arrasateko taldeek deskantsua izango dute asteburuan

Asteburuko zubia dela-eta Arrasate Errugbi Taldeko ordezkari guztiek deskantsua izango dute. Hala, azaroaren 6ko eta 7ko asteburuan itzuliko dira lanera. Orduan, Igor Isasiren mutilek Elorriora egingo dute bidaiari. Arrasateko eta Durangoko neskek etxean jokatu dute, Uribealdearen kontra. Gazteek, berriz, Baztan izango dute kontrario, eta kadeteek CRS taldea.

> MENDIA

Gipuzkoako beteranoek hitzordua dute domekan

Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatuta mendi irteera egingo dute domekan, hilak 31, Ordizian.

Mendi irteera helduen ibilaldi neurtua izango da. Ibilaldiaren irteera 08:00etan izango da Ordiziako plazatik eta Sarasola, Bilkoin, Balarrairena eta Bostaitzetatik igaro ondoren Ordiziara itzuliko dira mendizaleak. Besaidek bat egin du irteerarekin.

Zaldibar**EMAITZAK**

Iluntz-Dublin	4-4
Ekaitz-Steaua del Grifo	4-2
Abokajarro-McAwenDauen	0-4
Fidel & Disc-Portaboleiros	1-2
Iriztu-Fuxxion	6-3
Betrayer-Lasagabaster	3-4

SAILKAPENA

	P	J
1. Ekaitz	6	2
2. Lasagabaster	6	2
3. McAwenDauen	6	2
4. Iriztu	6	2
5. Dribling	3	2
6. Betrayer	3	2
7. Abokajarro	3	2
8. Portaboleiros	3	2
9. Dublin	1	2
10. Iluntz	1	2
11. Cipris	0	2
12. Fidel & Disc	0	2
13. Fuxxion	0	2
14. Steaua del Grifo	0	2

Asteburuan, deskantsua

Zubia dela-eta oraingo asteburuan ez da Zaldibarko txapelketarik jokatu; horrenbestez, azaroaren 6an eta 7an jokatu dute hirugarren jardunaldia.

Ekaitz lider, ondo indartu eta gero

Bigarren astez jarraian Ekaitzek erakutsi du taldea ondo indartu duela. Lider dira, jokatu-tako bi partiduak irabazita. Hala ere, asteburuan orokorrean partidu guztiak parekatuak izan dira, McAwen Dauen taldeak bakarrik irabazi zuen nahiko erraz.

Bestalde, antolatzaileek adierazi dute oraindik hainbat taldek ez dutela izenematea ordaindu, eta datorren asteburuan jasoko dutela dirua.



Ford Mugarriko Ezkibel, Barakaldoko defentsen aurrean, falta jasotzen.

GOIENKARIA

> ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Ondo indartu den Askartzaren kantxara Ford Mugarri bihar

Iaz kategoriako oilarretako bi izan zirenen arteko partiduak erakutsiko du aurten zelan dauden

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Iazko talde indartsuetako bi izango dira bihar Leioako kantxan zein baino zein gehiago. Aurten ere oilar bilakatzeko bidean dira Askartza eta Ford Mugarri Arrasate, baina, Araba aldean batez ere, badirudi kontrario gogorrak izango dituztela; izan ere, Cora-

zonistas eta El Pilar taldeek oraindik ez dute bakarra ere barkatu: "Corazonistas ondo indartu da, hainbat fitxaketa egin dituzte-eta. Besteak beste, Iker Romeroen [Bartzelonako jokalaria] anaia -Aitor Romero- klubera itzuli da eta kanpotarren bat ere eraman dute taldera. El Pilarrek,

berriz, ez dut uste hor aurrean jarraitzeko moduko taldea duenik", adierazi du taldeko entrenatzaile Edu Orgazek.

Biharko kontrario Askartza ere aurrean dago, orain arteko partidu guztiak irabazita: "Iaz lehia estua izan genuen eurekin, eta azkenean gure atzetik gertatu ziren. Euskadiko selekzioan ibilitako pare bat jokalaririk dituzte, eta euren kantxan jokatzeko dutenez ez da erraza izango".



Muko jokalariek erasoan, La Sallekoen taulapean.

GOIENKARIA

> SASKIBALOIA > OINTXE!

Larreategiren mutilek EHU Arabaren kantxan jokatu dute, kontrario zuzenak dira

Euskal ligako gazteek atsedena izango dute zubian, baina seniorren bigarren taldeak ez

X.U. > ARRASATE

Gasteizen, EHU Araba taldearen kantxan jokatu du MUK zapa-tuan (19:30). Jokalari gazte eta

azkarrez osatutakoa da EHU Araba, baina talde zuri-moreko entrenatzaileak nahiago du hori, joan den astean kontrario izan zuten

Askartzakoak aurrean izatea baino: "Askartzak erakutsi zigun kategoria honetan normalean zelan jokatzeko den: jokalaririk handiak, indartsuak, zonan defendatzen dutenak eta jokaldietan gorputza ondo erabiltzen dakitenak", adierazi digu Josu Larreategi entrenatzaileak.

Entrenatzaile eskoriatzarrak nahiago du biharko kontrarioa: "Baskonian lekuri izan ez duten jokalariek osatzen dute EHU Araba, baina teknikoki jokalaririk onak dira. Azkar jokatzera ohituta daude eta bakarkako defentsa egingo dute. Alde horretatik, gure ezaugarri antzerakoak dituzte, erritmo handiko norgehiagoka izango dela uste dut, eta horrelako partiduetatik gehiago ikasten dugu".

> GARAIPENA GAZTEENDAKO

Lehen taldekoek ez bezala, Euskal Ligako gazteek atsedena izango dute oraingo asteburuan. Hiru partidu irabazi gabe egon ostean, aurreko asteburuan garaipena eskuratu zuten Iturripen Tabirakoren aurka. Hala, orain arte jokatu dituzten sei partiduetatik zortzi puntu batu dituzte, eta sei-garren dira sailkapenean.

Bestalde, bigarren mailako seniorrek Oiartzunen jokatu dute domekan eguerdian, 12:00etan.

ZER DIO MIKEL LASKURAIN AKTOREAK?**ZER DIO MAIDER UNDA BORROKALARIK?**

ANTZERKIA > GENERO-INDARKERIA

'No me hagas daño' Tanttakaren antzezlana domekan Amaian

Antzezlaren estreinaldia urriaren 15ean egin zuten Donostian

Gaztelaniazko antzerkiaren atalean Donostia Hiria saria jaso du Rafael Herrero Martinezen lanak

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Tanttaka taldeak *No me hagas daño* antzezlana ekarriko du domekan Arrasatera. Amaia antzokian izango da emanaldia, 19:30ean, eta sarrerak 6 eurotan daude salgai generaltickets.com webgunean. Kike Diaz de Rada, Maiken Beitia, Olaia Gil, Tania de la Cruz eta Isidoro Fernandez dira antzezlaren protagonistak. Fernando Bernues donostiarrak zuzendu du lana.

Rafael Herrero Martinez kazetari eta idazlea da *No me hagas daño* lanaren egilea. *Apaga la luz*, *Al escondite* eta *Estudias o trabajos* (azken hau Jorge Diaz txile-



Tania de la Cruz eta Maiken Beitia, antzezlaren irudi baten.

M. DIAZ DE RADA

tarrarekin batera idatzita) dira haren beste lanetako batzuk. Tebistan ere jardundakoa da Rafael Herrero. Donostia Hiria antzerki saria jaso du aurtien *No me hagas daño* lanak gaztelaniazko antzerkiaren atalean eta Alberdaniak eman du argitara. Antzezlaren estreinaldia urriaren 15ean egin zuten, Donostiako Antzoki Zaharrean.

GENERO-INDARKERIA

Izenburuak iradokitzen duen moduan, genero-indarkeriaren gaineko lana da *No me hagas daño*. Rafael Herreroen arabera, gaia antzokietara eramateko arrazoi nagusia hauxe izan da: egoera horretan dauden emakumeek bakarrik ez daudela jakin dezaten.

Unibertsitate irakasle bikaina da Raul (Kike Diaz de Rada), eta tratu txarrak ematen dizkio Luisa emazteari (Maiken Beitia). Gaiztoaren rola jokatzeko egokitu zaio Diaz de Radari. Maiken Beitia kasuan, haren pertsonaia genero-indarkeriak hildako emakume guztien ahotsa ordezkatzen saiatu dela adierazi du. Testuaren indarraz gain, testu-guru soziologikoak ere erakarri zuten zuzendaria, tratu txarrak ez direla gizarte apaletan bakarrik gertatzen erakusten duelako.



Josune Lakaren lan bat. 7 EMAKUME

EMAKUME TXOKOA

Argazkien eta horma-irudien erakusketa

Gotzone Eluren eta Josune Lakaren lanak Emakume Txokoan

E.M. > ARRASATE

Emakume Txokoak antolatuta, *7 emakume en movimiento* erakusketa ikusgai dago. Hain zuzen ere, Gotzone Eluren *Kresala eta garoa* argazki bilduma eta, *7 emakume en movimiento* izenburupean, Josune Lakaren horma-irudiak batzen ditu erakusketak. Txikitako lagunak dira Laka eta Elu, ondarrutarrak biak, Gotzone Elu Hondarribian bizi den arren. Arteak eta emakumeen egoarekiko sentsibilizazioak elkartu ditu. Josune Lakak azpimarratzen duenez, "emakumeok espazio publikoa izatea ezinbestekoa da berdintasun erreala lortzeko". Elurenak kresal usainaren arrimuan ateratako argazkiak dira. "Ikusleek itsasoaren eta lurraren koloreak aurkituko dituzte", dio.

AZAROAREN 5ERA ARTE

Erakusketa datorren egubakoitzera arte, azaroaren 5era arte, dago zabalik, Jose Luis Iñarra kaleko 10. zenbakian, astelehenetik eguenera 15:00etatik 19:00etara eta egubakoitzetan 10:00etatik 14:00etara.

MUSIKA > GAZTEMANIAK! ZIRKUITUA

Dan Baird & Homemade Sin, Estatu Batuetatik Arrasatera datorren rocka

Estadio baten gozatzeko moduko ikuskizuna Amaia antzokiko 'hall'-ean eskainiko dute gaur Dan Bairdek eta Homemade Sin taldeak

E.M. > ARRASATE

Gaztemaniak! zirkuituaren barruan, Dan Baird & Homemade Sin taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Amaia antzokiko hall-ean, 20:00etan.

Georgia Satellites, The Dusters eta The Yayhoos taldeetan ibilitakoa da Dan Baird (San Diego, Kalifornia, 1953) eta 30 urte inguruko ibilbidea daruma dagoeneko. Esan bezala, Homemade Sin taldeko kideak izango ditu alboan Dan Bairdek gaur: Mauro Magellan, Keith Christopher eta Warner E. Hodges gita-



Dan Baird (bigarrena ezkerretik) eta Homemade Sin taldeko kideak Arrasaten izango ditugu gaur.

rrista. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, estatubatuarren ikuskizuna estadio baten gozatzeko modukoa bada ere, gaurkoan, lagunartean, Amaia antzokiko hall-ean ikusteko aukera paregabea izango dute ikusleek.

14 kantu batu dituzte Dan Bairdek eta Homemade Sinek

euren lehenbiziko diskoan, *Damn thing to be done*, *Lazy monday*, *Cryin' to me* eta *Champagne sparkle* tartean.

Georgia Satellites taldeko sasoiak gogoratzeaz gain, Dan Bairden bakarkako lehen disko (*Love songs for the hearing impaired*) kantuak joko dituzte

eta bertsiotz egunendako tartea ere izango da gaur Amaian.

SARRERAK, 7 EUROTAN

Kontzerturako sarrerak 7 eurotan daude eskuragarri Kutxako kutxazainetan eta generaltickets.com webgunean. Amaia leihatilan ere jarriko dituzte salgai.

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE



Kirol ikastaroen prezioak ez dira aldatuko 2011ko irailera arte.

GOIENKARIA

UDALA > ORDENANTZA FISKALAK

Udal tasak %2 igoko dira datorren urtean

Salbuespenak ere badaude: ura ez da igoko eta estolderia %4 igoko da, besteak beste

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
2011. urterako tasa, zerga eta prezio publikoak onartu zituen udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran, aho batez. Oro har, %2ko iguera izango dute ordenantza fiskalak 2010. urtearekiko, baina badira salbuespenak. Hala eta guztiz ere, astelehenean adostutakoa jendaurrean jarriko dute eta ikusgai egongo da 30 egunez, nahi duenak alegazioak egiteko, behin betiko onartu baino lehen. %2ko iguera izango dutenen artean daude odasun higiezinaren gaineko zerga; hiri-lurren balio gehikuntzaren gainekoa; eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga. Trakzio mekaniko ibilgailuen gaineko zergari

dagokionez, 14 zaldi fiskal arteko turismoen tipoa %2 igoko da; 14-16 zaldi artekoena, %3; 16 zaldi fiskaletik gorakoena, %4; eta beste ibilgailu mota guztiena %2 igoko da.

Zerbitzu publikoei dagokionez, kanposantuko tasak %2 igoko dira, baina panteoien kasuan, %5 igoko dira.

Kiroldegietako eta igerilekuko kuotak ere %2 igoko dira. Era berean, %2 igoko dira Udal Pilotalekuen tasak.

Kirol ikastaroei dagokionez, prezioak ez dira aldatuko 2011ko irailera arte eta irailetik abendura artekoak eguneratu egingo dituzte 2011ko ekainera arteko KPIrekin.

Zabalotegi aretoari dagokionez, alokairuko tarifa izango da: 50 euro lehenengo ordua eta 40 euro hurrengo orduak.

BATZUK BERDIN

Badira igoerarik izango ez duten tasak: uragatik, esaterako, ez dugu iaz baino gehiago ordaindu beharrik izango; ezta euskaltegiatik eta txakurtegi zerbitzuagatik ere. Bestetik, badira %2 baino gehiago igoko direnak: ekonomia jardueren gaineko zerga, estolderia eta etxez etxeko zerbitzua % 4 igoko dira.

Zaharren egoitzari dagokionez, honela igoko dira tasak: %2, 2004ko abenduaren 31 baino geroago sartutakoei; %5, 2002ko ekainaren 30a eta 2005eko urtarrilaren 1a artean sartutakoei; eta %7, 2002ko uztailearen 1a baino lehenago sartutakoei.

ZER DIOTE DEBAGOIENKO GREMIOETAKO LANGILEEK?

ZER DIO JOSE LUIS ELKORO LIBRE PLATAFORMAK?

oharrak

OSPAKIZUNA

> Etzi da Elkororen aldeko bazkaria, 14:30ean, pilotalekuan

Ospakizuna 12:00etan hasiko da, plazan. Bestalde, egun horretan gogoratu nahi dute urte luzetan ikurrina debekatu ta egon zela eta garaiko herriarren lanak berebiziko garrantzia izan zuela legezkatzea lortzeko. Hala, egun horretan balkoian ikurrina jartzeko dei egin dute.

KINTADA

> 1969an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 20an

Tartufon egingo dute. 13:00etarako egin dute hitzordua, Deportivon. 14:00etan talde argazkia egingo dute pilotalekuan eta 14:30ean autobusa hartuko dute bazkaltzera joateko. Izena emateko azken eguna azaroaren 14a da, Deportivon, 20 euro aurreratuta.

KINTADA

> 1958an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 6an

Zumelagan egingo dute, 21:30ean. Eta 20:45ean elkartuko dira, pilotalekuan.

KINTADA

> 1953an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 20an

Txarrantxa jatetxean egingo dute, 21:00etan. 23:30ean dantzaldia egongo da. Izena emateko azken eguna azaroaren 18a da, Txarrantxan eta ONCEko kioskoan, 15 euro aurreratuta.

KINTADA

> 1968an jaiotakoek afaria egingo dute urriaren 30ean

19:30erako egin dute hitzordua, Deportivo tabernan. Afaria 22:00etan izango da, Azpeitxi jatetxean.

KINTADA

> 1944an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 27an

Azpeitxi jatetxean egingo dute, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, meza egongo da Santa Marinar. Izenematea azaroaren 22a baino lehen da, Bodegon Hernandezen (943 76 20 43) eta Sanchez ile-apaindegian (943 76 23 70).

KINTADA

> 1930ean jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 13an

Zumelagan egingo dute. Bazkariaren aurretik talde argazkia egingo dute Ibargarain 14:00etan. Izenematea 943 76 22 22 telefono zenbakian da.

KINTADA

> 1943an jaiotakoek (55eko kintoak) bazkaria egingo dute

Azaroaren 20an egingo dute, Erreki erretegiaren. 14:00etan txikiteoa eta talde argazkia egingo dituzte eta bazkaria 14:45ean izango da. Izenematea Errekin da, 12 euro aurreratuta.

KINTADA

> 1940an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 6an

Torrekuaren egingo dute, 14:30ean. 13:30ean meza egongo da Sierbetako elizan. Izena emateko deitu 943 76 35 76 edo 943 76 30 26 telefono zenbakira.

KINTADA

> 1947an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 6an

Tartufo jatetxean egingo dute, 21:00etan. Izena emateko 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 009.1.09901.9 zenbakian azaroaren 2a aurretik. Autobusa egongo da, 20:30ean, Santa Marina ostetik irtenda.

auzoko programa

Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Bergaran?

Topagunea Auzoko programarekin dabil buru-belarri eta horren barruan lehiaketa deitu du. Galdera bati erantzutea izango da gakoa. Galdera hori kaleetan jarritako hainbat karteletan eta

GOIENKARIAn irakurri ahal izango duzue; baita erantzuna hurrengo astean ere.

Aste honetako hor goian duzuen da eta erantzun posibleak dira: a) 7tik 22ra / b) 23tik 55era / c) 56tik 78ra.

Saria eskuratu nahi baduzu idatzi erantzuna, izen-abizenak eta telefono zenbakia papertxo baten eta sartu Jardunen, udaletxean edo igerilekuan dauden postontzietan.



Kartelok eskegi dituzte herrian.



auzokotopagunea.com

EUSKARA > JARDUN ELKARTEA

Euskarazko liburuak trukatzeko azoka antolatu dute

Jardunek antolatu du eta erabilitako liburuak batuko dituzte egoitzan azaroaren 2tik 17ra

Azaroaren 19tik 21era izango da eta euskarazko irakurketa bultzatzea da helburu nagusia

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Euskarazko irakurketa suspertzeko eta, era berean, liburuen berrerabilpena bultzatzeko, euskarazko liburuak trukatzeko azoka antolatu du Jardun euskara elkarteak.

Truke azoka antolatzeke herritarrei egiten diete dei. Hau da, herritarrek dagoeneko behar ez dituzten eta egoera onean dauden liburuak elkartera -Errotalde jauregia- eramateko dei egiten dute Jardun euskara elkartetik.

Liburuak jasotzeko epealdia izango da azaroaren 2tik 17ra, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara -egubakoitzetan 18:00ak arte.

Elkartearen egoitzara eramandako liburu horiek sailkatu egingo dira adinaren arabera -haur, gazte edo helduendako literatura- eta eroandako liburu bakoitzeko txartel bat emango dute. Gero, txartel bakoitza sailkapen bereko edozein liburugatik trukatu ahal izango da azokan.

Truke azoka azaroaren 19tik 21era bitartean egingo dute, San Martin plazako arkupeetan, honako ordutegian: hilaren 19an, egubakoitza, 18:00etatik 20:00etara; hilaren 20an, zapatua, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta hilaren 21ean, domeka, 11:00etatik 13:00etara.

EGOERA ONEAN DAUDENAK

Truke azokarako ez dute edozein liburu onartuko.

Lau baldintza bete beharko dituzte emandako liburuak: egoera onean eta osorik egon beharko dute; bildumak, edozein izanda ere, txartel bakar baten truke aldatuko dira; euskaraz izan beharko dute -haur, gazte zein helduenak-; eta ez dira onartuko sexu bereizketarik edo indarkeriaren aldeko jarrera erakusten dutenak.

Juan Luis Martin > Etxadiko psikologoa

"Umeen hazkuntzan ohikoak diren galderak erantzuten ditugu"

M.B. > BERGARA

Etxadi elkarteak 2007ko urrian hasi zen herriko familiei orientazio zerbitzua ematen, Udalaren eskariz. Ordutik hona, 293 kontsulta jaso dituzte. Edonork egin ditzake kontsultak, doan, gainera, elkarte horretan. Juan Luis Martin elkarteko psikologoarekin egin dugu berba zerbitzu horretaz.

Ze zerbitzu eskaintzen duzue?

0 eta 19 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako orientazio zerbitzua da. Familiek umeen hazkuntzaren gainean izan ditzaketen zalantzak kontsultatzen dizkigute.

Kontsulta klinikoak dira?

Ez. Umeen hazkuntzan egunerokoan ohikoak diren gauzen gaineko kontsultak dira. Esaterako: "Fardela kendu nahi diot umeari, nola egin dezaket?". Ez da arazo bat izan behar guri kontsulta egiteko.

Zein adinen gainean galde-tzen da gehien?

Kontsulta gehien 0-6 adin tartearen gainean egiten dira, eta gero, nerabeen gainean; kontsulta gutxien 6-12 urte tartearen gainean egiten dira.

Zergatik?

0-6 adin tartean gertatzen den garapen ebolutiboa oso handia da; gaitasun gehien garatzen den adin tartea da.

6tik 12ra, berriz, tarte nahiko lasaia da. Garapena dago, baina mota progresibokoa. Eta nerabezaroran, berriz, gauzak eragiten hasten dira: lehenengo alkohol edo droga kontsumoak hasten dira, lehenengo irteerak... Eta garai horretan berriz egiten du gora kontsulta kopuruak.

Zein dira galdera ohikoenak adin tarte bakoitzean?

0-6 urte bitartean dira: esfinteren kontrola, zeloak, kasketaldiak. 6tik 12ra arteko umeen kasuan, galdera ohikoenak dira portaera, autoestimua eta esko-



Juan Luis Martin.

GOIENKARIA

larekin -ikasteko arazoak, batik bat- zerikusia dutenak. Nerabezaroran, galdera ohikoenak dira portaera arazoaren gainean, kontsumoen gainean, eskola errendimendua, aisialdiaren erregulazioa, heziketa sexuala -baina beharko litzatekeena baino gutxiago-...

Aipatzekoa da, bestalde, bibliografia ere eskatzen dutela gurasoek. Hala, kontsulta bati erantzutean, gaiarekin lotutako bibliografia ere helarazten dugu.

Nola helarazi kontsultak?

Telefonoz, 944 05 15 49 zenbakira deituta; Internet bidez, www.bergara.net zein www.Etxadi.org helbideetara joz gero; eta ohiko postaz: Maximo Agirre kalea, 18 bis, 5. solairua. 10. departamentua, 48011, Bilbo.

Gehienez 15 eguneko epean erantzuten dugu.

"0-6 adin tarteari buruz jasotzen dugu galdera gehien; horren atzetik, nerabezaroz"

"Nerabeen kasuan, portaera arazoei eta kontsumoei buruz jakin nahi dute gurasoek"



MIZPIRUALDE EGOITZA

Segunda Martinezek 100 urte bete ditu

Segunda Martinezek 100 urte bete zituen astelehenean, hilaren 25ean. Mizpirualden bizi da gaur egun, eta han ospatu zuen urtebetetzea familiakoez eta egoitzako lagunez inguratuta. Familiari dagokionez, bisita ederra jaso zuen Segundak, anaia etorri zitzaion-eta Uruguaitik, mendeurren berarekin ospatzeko. Horrez gain, Udaleko ordezkariak ere izan ziren Mizpirualden Segunda zoriontzen. Argazkian, Segunda lore sortarekin, familiakoak eta Udaleko ordezkariak ondoan dituela.

trinmer
telecomunicaciones

tdt
televisión
digital
terrestre

GOITB jada LTDn!
Egokitu zure antena GOITB-DIGITALA ikusteko.

TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne



TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 **EIBAR**

Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60 | antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

> TXIRRINDULARITZA

Denboraldi amaierako irteera egingo dute Bergarako txirrindulariek domekan

Bizikleta gainean kilometro mordo egin ostean, Bergarako txirrindulariak taldeak denboraldiko azken irteera egingo du domekan, hilaren 31n.

09:00etarako egin dute hitzordua, San Martin plazan, eta Dorletako Amara joan ostean Tartufon egingo dute hamaiketako.

> SASKIBALOIA

Laugarren dagoen Soraluze BKEk Kostkasen kantxan, Donostian, jokatu du domekan

David Urbinaren mutilek jokatu dituzten lau partiduetatik hiru irabazi dituzte, eta horri esker sailkapenaren aurrealdean dira dagoeneko, Teklanen, Leihoaken eta Sustrai Aloña Mendiren atzetik. Domekan (10:00) Donostian jokatu du, puntu bat gutxiago duen Kostkasen kontra.

> FUTBOLA

Gazte mailako Euskal Ligan dabilen Bergarako Laudio hartuko du zapatuan Agorrosinen

Atzeko postuetatik ihes egiteko puntuen lehian ibiliko dira gazte mailako Bergara eta Laudio zapatu arratsaldean (16:30, Agorrosin). Bergarako mutilek oraindik ez dute partidurik irabazi, eta hiru norgehiagoka berdinduta hiru puntu batu dituzte. Laudio ez dabil askoz ere hobeto, puntu bat gehiago baino ez du-eta.



Soraluze Bergarako jokalaria, Portugaleteren kontra jokatu du partidua.

GOIENKARIA

> ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Beherakadarik gabeko partidua jokatu nahi du Soraluze BKEk

Loiola Indautxuren bisita izango dute bergarrek bihar Agorrosinen, 18:00etan

Iaz Soraluze BKEk urte ona egin zuen, taldeak erasoan zuen abiadura baliatu zuen norgehiagoka asko aurrera ateratzeko –Mikel Plazaola jokatzeko moduan dago, erasoan jokari garrantzitsua da–. Hain zuzen, abiadurak taldeak izan zitzaizkeen beste gabezia batzuk estaltzen zituen, baina kategoria berrian gabezia horiek agerian uzten dituzte kontrarioek, abilezia hori dute.

Bergarakoek, tarteka, maila ona erakutsi izan dute; tekla guztiak batera jotzen dituztenean, punteria doitzen dutenean. Bihar partidua osoan nahi diote maila on horri eutsi, esandako moduan, iritsi berria den eta bi partidua irabazi dituen Indautxuren kontra.

> XABIER URTZELAI > BERGARA

Soraluce BKEk ez ditu orain arteko lau partiduetan egindako akatsak Loiola Indautxuren kontra errepikatu nahi, euren moduan kategoriaz igo berri den taldearen kontra, alegia (18:00).

> DENBORARIK GABE

Akatsetatik ikasita egiten da aurrera, baina aurten mahone-roek apenas dute denborarik. Kategoria batetik bestera lehenbailehen moldatzea ez da gauza erraza, nahiz eta territorial maila eta Euskadiko txapelketa, biak, amateur mailakoak diren.

BEDELKAR ELKARTEAren

III. AZOKA

Bergarako Udal Pilotalekuan

Azaroak 6 (egun osoan) • Azaroak 7 (goizez)

Denboraldiko produktuak deskontuekin

Larunbata igandea
6-7

Ekitaldiak

Txaranga Gaztea ✦ Trikitixa ✦ Haizeka orkestra

Haurrentzako parkea pilotalekuan

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA SAILA
Herrikoiz Politika eta Kulturako Sailburuordetza

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

中國點心

dinsun
ekialdeko tapak

福龍食品

KOMUNIKABIDEAK > IRRATIA

Txapa Irratiko denboraldi berria aurkeztuko dute gaur

MAIALEN GONZALEZ > BERGARA
Bergarako Txapa Irrati libre-ak 26. denboraldia aurkeztuko du gaur. Bergarako gaztetxean izango da, arratsaldeko zortzietan. Programazio berriaren aurkezpena egingo dute, irratsaio ezberdinen berri emateko. Berrikuntzen artean, gaztetxekeo batzarreko gaiak jorratuko dituen *Sasi guztien azpitik* irratsaioa eta Elhuyar fundazioaren *Quark* irratsaioa daude. Bestalde, albistegiak, musika, literatura, magazine-

ak eta elkarrizketak ere izango dira. Aurkezpena behar bezala ospatzeko jaiak antolatu dute eta gonbidatu gisa Napoka Iria taldea izango da gaztetxekeo taula gainean.

SEINALEA HEDATUZ

FMko 97.20an entzuten da irrati, eta baita *www.txapairratia.org* webgunean ere. Aurten, gainera, seinalea hedatu eta herri osora eta auzoetara zabaltzeaz gain, Elgetan eta Antzuolan ere egongo da entzungai.

> BEART

'Pinturaren gorputza' ikastaroa, azaroaren erdialdean hasita

Beart elkartearen eskutik *Pinturaren gorputza* ikastaroa izango da azaroan. Naturaltasunetik eta intuiziotik lan egiten ikastea da helburuetako bat. Izenemateak 60 euro balio du eta interesatuek Bearteko Maiterengana jo beharko dute urriaren 31 baino lehen: 635 71 32 69 da Maiteren telefonoa eta helbide elektronikoa hauxe: beart.elkartea@gmail.com.

> MUSIKA

Fatal Smile Tartufon eta Six Feet Under eta Master taldeak Jamen

Fatal Smile taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, San Juan auzoko Tartufo tabernan, 23:00etan.

Jam aretoan, berriz, Six Feet Under eta Master taldeek joko dute domekan. Ateak 20:00etan zabalduko dituzte. Sarrerak 22 eta 26 eurotan (leihatilan) daude salgai. *Graveyard Classics 3* da Six Feet Under taldearen azken lana.

LAINO > URTEURREN JAI

Skate erakusketa eta musika bihar Lainon

Lehen urteurreneko jaiak ospatuko dute; Powerflip, Turboshit eta Potemkin taldeek joko dute gauean

EDU MENDIBIL > BERGARA

Amillagako Laino skate parkeak lehen urteurren jaiak ospatuko du bihar, zapatua. Arratsaldeko zazprietan hasita hainbat ekitaldi izango dira bertan: skate erakusketa antolatu dute, eta, bien-

bitartean, Kogollo Party Crew taldeko DJ Balzak jardungo du musika jartzen.

Gauerako, berriz, rock kontzertua iragarri dute: Turboshit, Potemkin eta Powerflip taldeek joko dute, 22:00etan.

HIRU TALDE

Oñatiko Potemkin taldea 2003. urtean sortu zuten eta dagoeneko bi disko kaleratu dituzte. *Gauaren zaindariak* bigarren diskoa urtarrilean aurkeztu zuten. Taldeko sortzaile izandako Iker Martinez de Zuazo (gitarra), Iban Idigoras (bateria) eta Aizibar Urteaga (ahotsa) hirukokak eta Mikel Fernandezek (gitarra) eta Alexis Alonsok (baxua) osatzen dute egun taldea.

Turboshit taldea Mikel Gallastegi, Mikel Martinez eta Iñigo Ibartzabal bergararrek osatzen dute; punk-rocka jorratzen du hirukoteak. Bermeoko Powerflip taldeko boskoteak, berriz, punka eta hardcorea egiten du.



Potemkin talde oñatiarrak Laino skate parkean joko du bihar.

FELIX SANCHEZ

azaroak

5

EGUBAKOITZA // 22:30

ELGETAKO KAFE ANTZOKIA

SARRERAK ETA ABONUAK //
SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

SARREREN SALNEURRIA 5 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
ABONUA 22 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 12 EURO

EL TRIO CALAVERA

OÑATI

ROCK PRIVADO

OÑATI-DONOSTIA


FRONT MALABAR

ARRASATE

YMOTEK

ABADIÑO

2. KONTZERTUA



www.danbaka.com

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEAK



POLITIKA > ALKATEA GOITB-N

"Parte-hartze prozesuarekin 2030ean zelako Oñati izan gura dugun zehaztuko dugu"

San Lorentzoko igogailua azaro erdialderako amaituta eta herritarrendako erabilgarri egongo da

Energia iraunkorren alkateen itunarekin bat egin du Oñatiko Udalak; konpromisoa hartu du energiaren %20 murrizteko

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Azaro bukaeran hasiko du Udalak, Metropoli 30 enpresarekin elkarlanean, herritarrek Oñati 2030erako zelakoa izan gura duten zehaztuko duen parte-hartze prozesua. "Metodo nahiko arina erabiltzen duen enpresa da. 12-15 laguneko taldea elkartuko dute, eta politikariak ez dira sartuko, ni neu bai, horrela eskatzen duelako prozesuak. Sektore ezberdinetako pertsonak izango dira, kolore eta iniziatiba ezberdinetakoak. Herritar horiek askatasun guztia izango dute esateko nola ikusten duten Oñati 2030ean", azaldu du Lourdes Idoiaga alkateak GOITBn egindako elkarrizketan.

Adibidez, prozesu horretan landuko dute ETEO zaharreko eraikinarekin zer egin.

AURREKONTUAK LANTZEN

Atzo egindako osoko bilkuran ordenantza fiskalak onartzekoak ziren, urtarrilaren 1ean martxan egon daitezten. Aurrekontuak, ostera, azaroko osoko bilkuran onartuko dituzte.

"Orain gabiltza aurrekontuak lantzen, eta nahiko itxita ditugula esan daiteke", azaldu zuen Idoiaga. 2011ko aurrekontueta inbertsio nagusiak zeintzuk diren galdetuta, Idoiaga dio aurreko urteekin alderatuta inbertsio oso gutxi egin behar dituztela: "Errekalden bigarren fasea amaituko dugu, San Lorentzonen beste fase bat egingo dugu, baina inbertsio txikiagoa eskatzen duena, eta Atzeko kale erdi oinezkoentzat egingo dugu". Beharrezkoak diren lanak egingo dituztela esan zuen; guztira, milioi bat euro bideratuko dituzte, eta guztia kreditu bidez egingo dutela gaineratu zuen Oñatiko alkateak.



Lourdes Idoiaga, GOITBko platoon.

ENENKO AZKARATE

Aurtengoekin alderatuta, hurrengo urteko aurrekontuak zerbait murriztuko dituztela esan zuen: %2 inguru. Dio Udalaren irizpidea dela gizarte zerbitzuetako diru-partida mantentzea.

ERREKALDE ETA SAN LORENTZO

"Guk jakin dugunagatik, Errekaldede auzotarrak gustura daude. Auzo estua da, noranzko bakarrek zirkulazioa dago... eta hilabete txarrak pasa dituzte lanekin. Erdiko karrila egin dugu eta gara-jeetarako sarrerak egitea falta da. Autoak lehentasuna galduko du horrela", esan zuen alkateak. Aparkalekuen arazoaz galdetuta, berretsi zuen lehen baino aparkaleku gehiago egongo direla orain: "Etxe bakoitzeko ia hiru auto daude; hortaz, fisikoki ez

dago tokirik auto horiendako guztiendako. Nik esan dudana da, eta berriro esaten dut, orain arte marraztuta egon diren aparkaleku kopurua baino gehiago irten go direla orain. Ez ditut sartzen nolabait aparkatuta egon diren autoak". Geratzen den auzo erdiko lanak datorren urtean egingo dituzte, 700.000 euroekin.

San Lorentzoko igogailuaren obra zibila bukatuta dagoela esan zuen; orain probak egin eta industria baimena jasotzea geratzen dela azaldu zuen alkateak. Asmoa da azaroaren erdialderako martxan egotea igogailua.

ENERGIA IRAUNKORREN ITUNA

Udalak bat egin du energia iraunkorren alkateen itunarekin. "Itun hori sinatzeak konpromiso serioa

eskatzen du. Lehenengo urtean egin behar da plan jakin bat, eta orain hasi eta 2020ra arte lortu behar da herrian %20ko murrizketa. Oñatik tradizio bat dauka: orain dela 20 urte erosi ziren Olateko ur-jauziak; ondorioz, herriko etxeetako argindarraren %80 argindar berdea da", azaldu zuen Idoiaga.

Gainera, kaleetako argiteria aldatuko dute Kale Barrian eta Kale Zaharrean: "%60 aurreratu dugu bai fakturan eta baita eraginkortasun energetikoan ere". EVEren dirulaguntzarekin aldatuko dituzte argiak, 2011ko lehenengo sei hilabetekoan.

AUTOBUS ZERBITZU BERRIA

Urriaren 1ean martxan jarri zen autobus zerbitzuaren gainean balorazio errealik oraindik ez dutela esan zuen alkateak. Esan zuen Foru Aldundian behin eta berriz eskatu dutela zerbitzua hobetzeko: "Lortu dugu gu geu konprometitu garelako Arantzazurako autobusarekin, Lanbusearekin... garraio publikoaren inguruan ez bakarrik eskatu, baizik eta dirua jarri eta proiektuak landu ditugulako. Hortaz, Diputazioak uste izan du zor digula", esan zuen Oñatiko alkateak.

BIDEGORRIA ZUBILLAGARAINO

Parte-hartze prozesu baten barruan herriko bidegorri sarea landu zuen Udalak; eta herritarrek eskatutakoa egiteko konpromisoa hartu zuten. Lazarraga kalean egin berri dute bidegorria, eta orain Euskadi etorbidean egingo dute: "Euskadi etorbidean autoak eta bizikletak batera joango dira. Herriko erdigunean 30 kilometro orduko abiadura jarriko dugu. Bizikletak eta oinezkoek lehentasuna izango dute autoen aurrean".

Oñati eta Elorregi arteko tartea Diputazioarena dela esan zuen. Aurreratu zuen Oñatitik Zubillagara arteko bidegorri tartea urtarrilean esleitzekoak direla: "Hala, enprekin lotuko da Oñati", gaineratu zuen.

ESANAK

"Errekalden etxe bakoitzeko ia hiru auto daude; hortaz, fisikoki ez dago lekurik auto horiendako guztiendako"

ESANAK

"Herriko erdigunean 30 kilometro orduko abiadura jarriko dugu, bizikletak eta oinezkoek lehentasuna izateko"

DATUA

%2

JAITSIERA AURREKONTUAN

2010eko aurrekontuekin alderatuta bi puntu jaitsiko dira 2011ko aurrekontuak. Batez ere, inbertsioetatik kenduko dute dirua.

ELKARRETARATZEA

Presoen aldeko agerraldia gaur plazan

Torturak salatu dituzten oñatiarrek deitu dute elkarretaratzea

A.E. > OÑATI

Hileko azken egubakoitzetan egingo dute elkarretaratzea euskal presoen alde plazan, 20:00etan. Oraingoan, torturak salatu dituzten oñatiarrek deituta izango da elkarretaratzea.

Hain zuzen, joan den zapatuan euren bizipenak azaldu zituzten, kultura etxean.

MANIFESTAZIO NAZIONALA

Oñatiko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak dei egin du bihar, urriak 30, Donostian egingo den manifestazio nazionalera joateko.

Manifestazioa 17:30ean izango da, Donostian, eta autobusa egongo da hara joateko. Autobusean joateko interesa duenak izena eman beharko du Arrano tabernan.

oharrak

AURKEZPENEA

> 'Olaitturriren herri antzerkia' liburua aurkeztuko dute

Gaur, 19:00etan, kultura etxeko aretoan *Olaitturriren herri antzerkia* liburua aurkeztuko dute. Inazio Irizar eta Jerardo Elortza liburuarren egileak egongo dira bertan; eta baita Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioko Juan Zelaia ere; sarrera hitzaldia egingo du. Bertaratutako bakoitzak liburu bat jasoko du oroigarri.

DEIALDIA

> Afari solidarioa egingo dute gaur Bidaurretan

Hitzordua 20:30ean izango da, eta, beti bezala, afaria izango da patata tortilla letxugarekin. Helburua nagusia sentsibilizazioa izaten da. Oraingoan, Jose Antonio Urteagak Argentinan bizitakoak kontatuko ditu.

IKASTAROAK

> KZguneak gertu dauka azaroko eskaintza

Dagoeneko gertu du KZguneak azaroko egitaraua. Teknologia berriei buruzko doako ikastaroak eskainiko dituzte. Kultur etxean du bulegoa KZ guneak, eta ordutegia da: astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:30era.

> KIROLA

Oñatiko karate txapelketa jokatuko dute bihar, 16:00etan

XVI. aldiz jokatuko dute Oñatiko Shotokan karate txapelketa; bihar, zapatua, izango da, 16:00etan, Zubikoa kiroldegian.

Parte hartuko dute Bergara, Antzuola, Elgeta eta Oñatiko 120 haur eta gaztetxok. Aloña Mendiko Karate sailak antolatu du txapelketa.

> KULTURA

Oñatz dantza taldeak ikastaroa antolatu du haur txikiendako

2003 eta 2004. urteetan jaiotako haurrentako da ikastaroa. Interesa duenak Errekalde eskolako beheko lokalera joan beharko du. Lehenengo bilera atzo egin zuten, eta han zehaztu zuten entsegu egunak eta ordua. Deialdia ume berriendako da, ez dantzan dabilzanendako.

> ZINEMA

'El americano' eta 'Toy Story 3' filmak aste bukaeran

George Clooney aktoreak lan egiten duen *El americano* filma emango dute aste bukaeran. Gaur, 22:30ean izango da; zapatuan, 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:30ean; eta astelehenean 19:30ean. Bestalde, umeendako *Toy Story 3* filma zapatuan, domekan eta astelehenean 17:00etan izango da.

> ANTZERKIA

'Anbotoko Mari' antzerkia domekan Santa Ana aretoan

Glu-glu taldearen *Anbotoko Mari eta orrazi galdua* umeendako antzerkia izango da domekan Santa Ana aretoan. Ikuskizuna 17:00etan izango da eta sarrerak dagoeneko salgai daude 3 euroren truke. Izaki mitologikoen protagonismo nabarmena izango dute antzezlanean.

> TXAPELKETA

Herriko xake jokalarionak lehiatuko dira bihar gaztelekuan

Gaztelekuko XVI. xake txapelketa jokatuko dute bihar, 09:00etan. Suitzar erara jokatuko dute: sei itzulira izango da eta bakoitzak 15 minutu izango ditu bandera jaitsi arte. Sariak 85 eta 200 euro bitartekoak izango dira. Herriko onenak 140 euro erango ditu eta lehenengo gazteak, 105 euro.

JENDARTEA > KULTURA HAMABOSTALDIA

Erretiratuen elkarteak antolatuta, antzerki topaketak

Azaroaren 8tik 18ra bitartean egingo dute nagusiek kultura hamabostaldia

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Erretiratuek kultura hamabostaldia egingo dute azaro erdialdeko bi asteetan. Aurten berezia izango da kultura hamabostaldia; izan ere, antzerki topaketak egingo dituzte.

Antzerki topaketok azaroaren 8tik 12ra bitartean izango dira. Astebetez, Gipuzkoako hainbat herritako erretiratuen elkarteetako antzerki taldeen bisita izango da herrian. Etorriko dira Hondarribiko Kasino Zaharra taldea, Esther Espartza zuzendariarekin; Donostiako La ONCE

taldea, Josema Langara zuzendariarekin; Usurbilgo Urre Kuttun taldea, Ixabel Agirresarobe zuzendariarekin; eta Urretxu-Zumarragako Irri-Makila taldea, Pablo Santillan zuzendariarekin.

Emanaldi guztiak Santa Ana aretoan izango dira, 17:30ean.

AZAROAREN 15ETIK 18RA

Kultura hamabostaldiaren bigarren asterako gustu guztietarako ekintzak antolatu dituzte erretiratuek.

Azaroaren 15ean, astelehena, agustindarren elizan Zarauzko

Udaberri koruak eta Oñatiko Aloña abesbatzak emanaldia egingo dute. 18:00etan izango da. Azaroaren 16an, martitzena, 17:00etan, Jose Antonio Azpiazu historialariak hitzaldia egingo du Pake-Lekun.

Azaroaren 17an, eguaztena, Errioxara irteera egingo dute. Interesa duenak izena eman beharko du aurrez erretiratuen elkartearen bertan. Azaroaren 18an, eguena, bingo joko berezia egingo dute Pake-Lekun, 17:00etan. Antolatutako ekintzetan parte hartzeko dei egin dute.



TXANTXIKU IKASTOLA

Nerea Gilek Ramon Rubial narratiba saria irabazi du

Loreak bezala narratiba lanarekin D modalitateko -13 eta 16 urte bitarteko ikasleak lehen saria eskuratu zuen Txantxiku ikastolako ikasle Nerea Gilek. Horri esker, udan hilabetez egon zen Gil Irlandan. Gainera, urriaren 7an Bilboko Euskalduna jauregian egindako ekitaldian 500 euroko saria eskuratu zuen; eta Txantxiku ikastolak 600 euroko txekoa.

JENDARTEA > OSPAKIZUNA

Trikiti jaialdia eta afaria egingo dute bihar trikitilariek

Primi Erostarbe pandero-jotzailea zena omenduko dute biharko trikiti jaialdian

A.E. > OÑATI

Bihar egun handia izango da herriko trikitizaleendako. Bigarren urtez jarraian, Lizargarate trikitizale elkarteak jaialdia antolatu du.

Oñatiko Musika Eskola, Ospas eta Janire, Izer aita-emeak eta Alabier, Landa aita-emeak, Joseba Tapia eta Eztanga anai-arrebak, lajatarak eta oriatarak izango dira jaialdiko

trikitilariak. Horiez gain, baina, protagonista izango da Primi Erostarbe pandero-jotzaile eta irrintzilaria zena. Omenaldi xumea jasoko du Santa Ana aretoan. Hitzordua 18:30ean da; sarre-ak salgai daude 10 eurotan eta bihar bertan ere salduko dituzte.

Jaialdiaren ondoren afaria egingo dute Etxeberria jatetxean. Afarirako txartelak dagoeneko saldu dituzte.

HAMAR LAGUN INGURU

Lizargarate Trikitizale Elkartearen hamar bat lagun daude. Biharko egun handia dela azaldu dute, baina urtean zehar beste hainbat ekintza ere egiten dituzte; adibidez, irailaren 18an Trikiti Eguna ospatu zuten. Bazkaria eta erromeria egin zuten; eta herriko jaietan ere ibili ziren kaleak alaitzen. Trikitia eta panderoa gertu dute, hortaz, biharko.

ZER DIOTE DEBAGOIENKO GAY ETA LESBIANEK?**ZER DIOTE DEBAGOIENKO IDAZLEEK?**

UDALA > ZUBILLAGAKO HILTEGIA

Baietza hiltegia kudeatzeko merkataritza elkarte sortzeari

Lehenengo sektorea bultzatzeko plan estrategikoaren beharra agertu zuten

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak Zubillagako hiltegia kudeatzeko merkataritza elkarte sortzea. Udal Gobernuaren baiezkoarekin batera EAJko eta EAKo

zinegotzien aldeko botoa jaso zuen proposamenak. Ezker Batua-Berdeak alderdiko zinegotzia, ostera, ez zen bat etorri eta aurka bozkatu zuen. Alderdi Sozialistako zinegotzirik ez zen izan bilkuran -ezin etorria agertu zuten.

PLAN ESTRATEGIKO BEHARRA

Joxe Anjel Antxia Ingurumen zinegotziak azaldu zuen lehenengo sektoreko egoera larria dela eta hori "suspertzeko plan estrategikoa abian jarri" beharra dago-

ela. "Ildo horretatik, hiltegia tresna bat da. Eta ez da bakarrik ikuspegi ekonomikoa kontuan hartu behar, baita soziala -sektorearen egoera- eta iraunkorra ere". Hala, gertuko harremana izatea nekazari, hiltegi eta harakinen artean eta okela gertutik ezagutzeak -nondik datorren- balio erantsia ematen diola gaineratu zuen.

Eusko Alkartasuneko Edorta Mendieta bat etorri zen Antxiarekin hiltegia tresna bat dela esatean: "Plangintza estrategikoa bultzatu beharra dago lehenen-

go sektorearen alde. Hori egin bitartean konfiantza botoa emango diogu hiltegiari".

EAJko zinegotziek ere baietza eman zuten, "hiltegian despieze edo zatiketa gela ez egitearen baldintza onartu dute eta".

Merkataritza elkarte sortzearen proposamenari zalantzak agertu zizkion bakarra Ezker Batua-Berdeak alderdiko Tomas Fernandez izan zen: "Hiru urte egon da mahai gainean kontua eta orain zergatik dago halako presa onartzeko? Zerbait egin da merkataritza elkarte horren barruan markatutako helburuekin?" Hori horrela, ez zen bat etorri kontua bideratutako moduarekin eta ezetza eman zion.

Aldeko zazpi botorekin onartu dituzte memoria eta merkataritza elkarte horren erregelamendua eta orain ikusgai egongo dira hilabetez, interesa dutenek ezagutu eta ados ez daudenek alegazioak aurkezteko. Epe hori pasatutakoan, alegaziorik ez badago, behintzat, behin betiko onartuko du.

EUSKARA

Ikastaro bi eta argazki emanaldia azaroan

Loramendi elkarteak antolatu ditu eta udaletxe zaharrea dira

M.A. > ARETXABALETA

Osasuna zaintzeko ikastaro bi antolatu ditu Loramendi elkarteak. Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa datorren martitzenean hasiko dute. Amazulo taldeko Saioa Baena adituak gidatuko du eta teoria eta praktika bateratuko dituzte zortzi saiotan (20:15-21:50). Hona egunak: 2, 3, 5, 8, 9, 10, 12, eta 15. Ikastaroaren kostua: bazkideendako, 25 euro; eta gainerakoendako, 30 euro. Izena lehenbait lehen ematea komeni da.

Reflexoterapia ikastaroa, ostera, azaroaren 13an egingo dute, zapatua. Egun bakarreko saioa da: goizean, (10:00-13:00) eta arratsaldean (15:00-18:00). Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 15 euro.

Bi ikastaro horien gaineko argibide gehiago gura izanez gero edo izena eman, Loramendira jo (16:00-20:00) -943 77 09 70 edo loramendielkar-tea@gmail.com.

ARGAZKI EMANALDIA

Bestalde, azaroaren 8an, astelehena, Larraitz Arando eta Gari Iturbe aretxabaletarrek 2008 eta 2009. urte artean munduan zehar egindako bidaiaren berri emango dute udaletxe zaharrean (19:00). Paisaia ikusgarrien argazkiak eta izandako bizipenak tartekatuko dituzte emanaldian.

TURISMOA > LIZITAZIOA

Irurikoa baserria errentan emateko lehiaketa azaroaren 30ean bukatuko da

Ostalaritza zerbitzua jartzeko emango du errentan Udalak, gehienez 40 urterako

Oraindik inork ez du aurkeztu proiekturik, baina hainbatek deitu dute interesa agertuz

M.A. > ARETXABALETA

Uztailean onartu zuen Udalak Aozaratza auzoan dagoen Irurikoa baserria eta haren zelai-inguruak errentan emateko lizitazioa deitzea. Ostalaritza zerbitzua jartzeko emango ditu eta baserriaren berritze lanak ustiapena hartzen duenaren ardurapean geratuko dira. Uztailaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen deia eta lau hilabeteko epea eman eskaintzak aurkezteko. Interesa dutenek azaroaren 30erako bideratu behar dituzte eskaintzok udaletxera.

URKULUKO PLAN BARRUAN

Udalarena den Irurikoa baserriak 222 metro koadro dauzka hiru solairutan banatuta. Gainera, 5.000 metro koadro inguruko lurak ditu inguruan. Baserria Urkulu urtegitik gertu dago, eta Udalak uste du aparteko balioa emango diola ostalaritza zerbitzuari Aizkorri-Aratz parkeko sarbidean egoteak, natura baliabideetan aberatsa den ingurunean.



Aozaratza auzoan dagoen Irurikoa baserria.

M.A.

Iaz Naturgintza Fundazioak egindako Urkuluko Plan barruan dago sartuta Irurikoa. Urtegiaren naturagune babestuen hobe-kuntza plan barruan positibotzat jo dute natura eta landa inguruarekin zerikusia duten jarduerekin osatzea, batez ere iraunkortasunarekin, biodibertsitatearekin, nekazaritzarekin, ekologiarekin eta bertakoaren sustapenarekin identifikatzen badira jarduerok.

600.000 EUROTİK GORAKO LANAK

Udalak 40 urterako emango du errentan baserria. Eta izango duen erabilera zehaztuta du: ostalaritza, hotel-industria zerbitzuak edo ingurumen gaiekin zerikusia duten dibulgazio erabilera. Baserri inguruko lurrek ere aisialdi erabilerarako izan beharko dute, ingurumenarekin zerikusia duten jarduerendako.

Baserria, baina, oso zahartuta dago eta errentan hartu oste-

an berritze lan handiak egin beharko dizkiote; baita ostalaritza jarduerarendako egokitu ere. Udalak uste du 600.000 eta 900.000 euro artean egongo dela lanon kostua eta 18 hilabete zehaztu ditu berritzeko.

Uztailetik hona ez dute ustiapen proposamenik eta berritze lanen proiekturik jaso udaletxean, baina jakinarazi dute dei batzuk izan dituztela interesa agertuz. Bada, horren gaineko argibide gehiago gura dituenak Udalaren webgunean dauzka lizitazio deiaren oinarriak -www.aretxabaleta.com.

ZER DIO MIGUEL LAZPIURREK?

ZER DIO AITOR ZABALETAK?

MENDIA > MURRUKIXO MENDIZALE ELKARTEA

Izaskun Diaz de Gereñuren argazkia agertuko da Murrukixoren 2011ko egutegian

Aguastortes natura parkeko argazkiak irabazi du lehiaketa

Mendi irteera egingo dute azaroaren 7an Opakuatik Legunbera

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Argazki lehiaketa deitu zuen Murrukixo Mendizale Elkarteak datorren urteko egutegirako argazkia aukeratzeko, eta hona irabazlea: Izaskun Diaz de Gereñu gasteiztarra. Aran bailaran dagoen Aguastortes natura parkeko paisaia dotorearekin egingo dute 2011ko egutegia.

Bederatzi lagun argazkiak jaso dituzte Murrukixoko arduradunek, eta bakoitzak lau aurkeztu ditu. Mendizale elkarteak kideen esanetan, erabakia hartzea ez da samurra izan, "oso politak zeudelako". Egutegi hori eskutitz bidez banatuko diete bazkideei datorren astean. Bazkide ez direnek ere eskuratu ahal izango dute, Murrukixok Durana kalean duen egoitzara joanda.



Aran bailarako Aguastortes natura parkeko paisaia, egutegia egiteko erabiliko dutena.

IZASKUN DIAZ DE GEREÑU

ARABA ALDERA IRTEERA

Bestalde, mendi irteera antolatuko dute azaroaren 7rako, domeka, (08:00). Araba aldera joango dira oraingoan Murrukixoko kideak: Opakuan hasi, Baiotik pasatu eta Legunbe inguruan bukatu. "Ez da

ibilbide gogorra, lau delako tar- te gehienetan. Bost bat orduko ibilaldia pentsatu dugu, baina bertan ikusiko dugu moztu beharra dagoen", diote antolatzaileek.

Argibide gehiago gura izanez gero edo izena eman, martitzene-

an, azaroak 2, Durana kaleko egoitzara jo behar da (19:00-20:00). Autobusaren kostua 15 euro da.

Eta Murrukixok Mendi Astea egingo du azaroaren 15etik 21era bitartean; ikus-entzunezkoak eta mendi irteera antolatu dituzte.

IKASTAROA

Masaje ikastaroa Kurtzebarrin azaroan

M.A. > ARETXABALETA

Kurtzebarri eskolak antolatuta, haur masaje ikastaroa egingo dute azaroan, eskolan bertan. Ume txikiak dituzten familiak gonbidatu gura dituzte, eta, datorren egunean hasita, astean bi egunean emango dituzte eskolak: astelehena eta eguenean, hain zuzen (17:30). Hona egunak: 4, 8, 11, 15 eta 18.

Urtero antolatu izan dute ikastaroa Kurtzebarri eskolan, "txikiarekin batera hazkunde goxoa bideratzen duen esperientzia" delako.

Interesa dutenek Kurtzebarri eskolara dei egin dezatela: 943 79 00 49.



Masajea ematen ume bati.

M.A.



Futbol eskolako mutikoak asteleheneko entrenamendu saioan.

M.A.

KIROLA > FUTBOL ESKOLA

Kirol eskolan jardun beharko dute futbol eskolako gazteek

Aldundiak jarritako araua da eta kirol eskolan izena emandakoak bakarrik onartuko ditu UDAK

M.A. > ARETXABALETA

Batzarra egin dute Aretxabaleta Kirol Elkarteko eta Leintz Eskola Kiroleko ordezkariak futbol eskolan dabilen neska-mutikoen gurasoekin. Aldundiak ezarritako arauaren berri emateko. Aurtengo denboraldian hasita, murrugorrez eskola kirolean jardun beharko dute gaztetxoek futbol, saskibaloia, eskubaloia... eskolatan egoteko.

Aldundiak kirol ezberdinak ezagutzeko aukera eman gura die 8 eta 12 urte arteko gaztetxoei eskola kirolaren bitartez -saskibaloia, futbola, eskubaloia, pilota...-, bakar bat hautatu aurretik. 2000, 2001 eta 2002. urteetan jaiotako gurasoei jakinarazi die UDAK eskola kiroleko zerrendetan agertzen direnak bakarrik onartuko dituztela. Oraindik izenik eman ez dutenek egunotan dute aukera.

MERKATARITZA > ARETXARTE

Rosa Mari Arrietarendako Erriberrira joateko saria

Iraileko saria banatu dute astean; urriko zenbakien zozketa egunotan egingo dute

M.A. > ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak sariak banatzen jarraitzen du. Iraileko zenbaki saritua- ren jabearen zain egon dira hiru astean -lehenengo orde- zko zenbakiduna-, baina, azke- nean, agertu da: Rosa Mari Arrieta aretxabaletarra.

Aitzorrotz Etxetresnak den- dan eman zioten zenbakia eta haraxe joan da saria jasotzera: Erriberriko (Nafarroa) La Joyosa hotelean aste bukaera pasa- zeko txartela beste lagun bate- kin. Pozik hartu du saria Arrie- tak; baita eman ere Aitzorrotz dendako ordezkariak. Izan ere, dagoeneko bigarren saria eman dute bertan.

URRIKO SARIA, 300 EURO

Egunotan egingo dute urriko zozketa. Hona saria: 300 euro- ko txartela Aretxarte elkar- teko dendetan gastatzeko.



Rosa Mari Arrieta, saria duen gutun-azala jasotzen atzo goizean.

M.A.

> ELKARTASUNA

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur osasun etxean

Udazkeneko azken odol ate- ratze saioa egingo dute gaur (16:15-20:00) osasun etxean. Arabako odol bankuko kide- ak etorriko dira eta aretxaba- letarrek orain arte eman duten erantzun onarekin jarraitu gurako lukete: urrian egingo da bi saioetan 100 lagun joan dira odola ematera eta horietatik 96k eman dute. Odol emaileen loteria izango dute salgai bertan.

> TELEBISTA

Inaxio Garro alkatea Goiena Telebistan martitzenean

Goiena Telebistako *Magazi- nea* saioan izango da Inaxio Garro alkatea, martitzenean (19:45). Herritarrek zuzene- an jarraitu ahal izango dute saioa, eta iruzkinak egin: [www.livestream.com/goie- natv](http://www.livestream.com/goiena-tv) helbidean eta goiena.net atariko azalean. Galderak bidal daitezke Twitter eta Facebook bitartez eta magazine@goiena.com helbide elektronikora. Eta zuzenean telefonoz ere deitu ahal izan- go da: 943 25 05 03.



Eguaztenean egindako osoko bilkurako une bat.

J.B.

UDALA > TASAK

Datorren urteko zergak KPIarekin batera igotzea adostu du Udalak

Gipuzkoako KPIa %1,9 igo da azken urtean baina hondakinen eta uren zergak gehiago igoko dira: lehena %1,99 eta bigarrena, berriz, %4 inguru

JOKIN BEREZIARTUA > ESKORIATZA
2011rako ordenantza fiskalak onartu ditu Udalak; hasierako tramitea behintzat egin dute. Zergak berebiziko diru-iturri dira udalendako eta, beraz, erabaki garrantzitsuak hartu ziren eguaztenean egindako osoko bilkuran. Hala, ordenantzak Kontsumo Indizeen Prezioarekin (KPI) batera igotzea erabaki zuen udalbatzak. Hau da, %1,9ko igoera izango dute, salbuespenak salbuespen. Izan ere, hondakinen eta uren zergak beste irizpide batzuk

jarraituko dituzte. Hondakinen gaineko zergak Debagoieneko Mankomunitatearen proposamenarekin batera igotzea adostu dute; zertxobait gehiago: %1,99. Uren tasak, berriz, Uren Partzuergoak Udalarari egingo dion igoerarekin batera igoko die eskoriatzarrei, hau da, %4 inguru.

Bestalde, kirol instalakuntzetan abonua erosteko orduan erretiratuek orain arte izan duten deskontua kenduko dute. Orain arte Eskoriatzako eta Oñatiko udalak izan dira deskontu hori manten-

du duten bakarrak bailara osan. Bada, erretiratuek pribilegio hori izateari utziko diote datorren urtetik aurrera.

GAZTAÑADUIKO ETXEA

Ordenantza fiskalez gain, beste erabaki garrantzitsu batzuk ere hartu ziren osokoan. Esaterako, Gaztañadui 27ko lokalak udal etxebizitza bihurtzeko behin-behineko kalifikazioa egitea onartu zuen udalbatzak, aho batez.

Azkenik, udal euskaltegia orain arte irakasle izan den Aitor Urrutia kargutik kentzea erabaki zuten. Osoko bilkuran jakinarazi zuten, arrazoia izan da Urrutiaren asistentzia falta. Urrutiaren lekua Dorleta Lezetak hartuko du aurrerantzean.

KULTURA > AITZOROCK JAIALDIA

Aitzorrotz elkarteko bazkide egiten denak, sarrera doan

Azarorako eskaintza berezia moduan atera dute; bazkide egiteko 943 250 398 telefonora deitu

J.B. > ESKORIATZA

Aitzorrotz kultur elkarteak Aitzorrock jaialdirako sarrera doan lortzeko aukera eskainiko du azaroan. Nola lor daitekeen? Bada, Aitzorrotz elkarteko bazkide eginda. Kultur elkarteko bazkide izateko hileroko hamar euroko kuota ordaindu behar da. Diru horrek herriarendako ekintzak antolatzen dituen elkarte horri aurrera irteetan lagunduko dio eta bazkideek elkarteak antolatzen dituen ekintza ezberdinetan deskontua eta bestelako abantailak jasoko dituzte trukean.

Nola eman izena? Bi aukera daude: 943 250 398 telefonora deituta edo aitzorrotz_kultura@hotmail.com helbidera idatzita. Egun 100 bazkide baino gehiago ditu Aitzorrotz-ek eta Iñaki Kortazar elkarteko kideak adierazi duenez, atek zabaliak daude edonorendako.

JAIALDIRAKO SARRERAK SALGAI

Aitzorrock jaialdirako sarrerak salgai daude dagoeneko. Kulturalive.com webgunean eta Eskoriatzako Goxo txiki, Aldatz eta Inkernu tabernetan eros daitezke, 13 eurotan. Baina Debagoieneko beste herrietan ere badau-

de: Aretxabaletan -Txiki bar eta Orly-, Arrasaten -Irati eta Ekaitz-, Bergaran -Herriko taberna- eta Oñatin -Aker-.

Lau taldek hartuko dute parte: Gatibu -disco berriaren aurkezpen kontzertua izango da-, Zea Mays, Amaiur eta Pastors of Muppets talde frantziarra. Kiroldegian, abenduaren 11n.

AZAROKO EGITARAUA

Hiru ekintza, eta aniztasuna ardatz

Aitzorrotz elkarteak aurkeztu du azaroko egitaraua. Hiru ekitaldi prestatu dituzte, erabat ezberdinak euren artean, eta aniztasuna ardatz dutenak. Hasteko, azaroaren 10ean, Gasherbrum II mendatera egindako espedizioaren ikus-entzunezkoa emango dute kultur etxean (19:00). Hilaren 13an, bestalde, Surfin Kaos talde donostiarrek zuzeneko rock kontzertua emango du Inkernu tabernan (22:30). Taldearen disko berriaren aurkezpen kontzertua izango da. Eta azkenik, azaroaren 27an ardo dastatzea egingo dute da Herriko plazan, 18:30etik aurrera.



Gatibu izango da Aitzorrock jaialdiko bigarren edizioeko talde-burua. GOIENKARIA

> OSPAKIZUNA

Sabina Abasolok 100 urte beteko ditu datorren astelehenean

Sabina Abasolo emakume eskoriatzarrak 100 urte beteko ditu datorren astelehenean, azaroak 1. Bada, urtebetetze berezia ez da oharkabean pasako herriarendako ere. Urtebetetze egunean bertan, 13:00etan, udal ordezkariak Sabinaren etxera joango dira zorionak ematera.

> HITZALDIA

Harremanak hobetzen ikasteko zita hilaren 3an, kultur etxean

Azaroaren 3an, eguaztana, Oscar Redondo Lahar elkargoko psikologoak berbaldia egingo du pertsona arteko gaitasunei buruz. Redondok aholkuak emango ditu norbera izateari utzi barik harremanetan hobetzeko. Gazteleraz izango da hitzaldia, 18:00etan hasita, kultura etxean.

POLITIKA > ALDARRIKAPENA

Ezker Batuak kubako bost presoren egoera salatu du

Mozioa aurkeztu zuten, eta aho batez onartu zen

J.B. > ESKORIATZA

Ezker Batuak udal taldeak Gerardo Hernandez, Ramon Labañino, Rene Gonzalez, Fernando Gonzalez eta Antonio Guerrero AEBetan esku preso dauden kubata-

rren egoera salatu du. 1998ko irailean AEBetako agintariak atzeman zituzten Miamin, euren lurraldean nazio atzerritar baten alde lan egitea leporatuta. 33 hilabete kartzelan izan ostean

2001ean epaitu zituzten eta 15 urteko kartzela zigorra eta biziarteko kartzela ezarri zizkieten. Bada, EBk prozedura judizialean egondako "irregularitasunak" gaitzetsi zituen eguazteneko osokorako mozio bat aurkeztu. Mozioa aho batez onartu zen.

"EUSKAL PRESOEKIN, BERDIN"

Pedro Lasagabaster alkateak, bere adostasuna erakustez gain, Ezker Batuak udal taldeari euskal presoekin "sentiberatasun berdina" izateko eskatu zion.

JENDARTEA > JAIA

Independentzia Eguna ospatuko dute azaroaren 13an, gazteek antolatuta

Patata tortilla lehiaketarako eta bazkarirako izena ematea beharrezkoa da, Mox edo Arin tabernan

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Gaur ereiten dena bihar jaso ahal izateko lelopean antolatu dute jaia herriko gazteek. Azaroaren 13an ospatuko dute, Antzuolak independentzia lortu zuen eguna.

Azaldu dute jaia antolatu dutela herriko gazteen artean "harremana sendotu" eta aurrera begira elkarlanean proiektuak garatzeko asmoz, besteak beste, gaztetxe berria: "Antzuolako gazteek gazteondako egindako jaia da, aurrera begira ditugun proiektuen alde elkarlanean aritzeko gai garena ikusarazteko gure buruari eta baita herriari ere".



Jaialdiko kartela. GAZTE ASANBLADA

la -sua, zartaginak...- norberak eraman beharko ditu. Gaztetxean izango da lehiaketa.

Ondoren, bazkaria egingo dute pilotalekuan. Bazkarira joateko izena eman beharko da Mox edo Arinen. Aurreko urtean bezala, baba-jana egingo dute.

PATATA TORTILLA LEHIAKETA

Jaia 11:30ean hasiko dute, salda beroa eta patata tortilla lehiaketarekin. Lehiaketan parte hartzeko izena eman behar da Mox edo Arin tabernan, azaroaren 7a baino lehen. Osagaiak antolakuntzak jarriko ditu, baina materia-

BERTSOAK ETA KONZERTUA

20:30ean afari pasada egingo dute gaztetxean, Aitzol Barandiaran eta Unai Gaztelumendi bertsolariekin. Eta 22:00etan, gaztetxean bertan kontzertua eskainiko dute Kasik eta Egurra ta Kitto taldeek eta erromeria ere egongo da.

ELIZA

Domu Santu eguneko hitzorduak

Gainera, 2. eta 3. mailetako haurren gurasoei dei egin diete katekesirako

A.E. > ANTZUOLA

Elizako taldeak dei egin du datorren astean egongo diren ospakizunetan parte hartzeko. Astelehenean, Domu Santu eguna, meza izango dute Antigua ermitan, 11:00etan; 16:30ean, ostera, Uzarragako San Juan parrokian izango da.

Azaroaren 2an, Arimen Eguna, meza izango da 19:00etan plazako kaperan. Amaitzeko, azaroaren 3an, eguaztena, Frai Eskoba -San Martin de Porres- eguna ospatuko dute eliza-garbitzaileek. Meza izango dute 19:00etan plazako aretoan, eta ondoren afaria. Gaineratu dute gusturaz hartuko dituztela eliza garbitzera animatzen diren lagun berriak.

KATEKESIRA JOATEKO DEIA

Bestalde, bigarren eta hirugarren mailetako ikasleen gurasoei dei egin diete azaroaren 4rako. Katekesi bilera izango dute, 20:00etan, parrokiako abade etxean.



Nagusiak eguneko zentroan, Torresoroan.

L.K.

ONGIZATEA > ZERBITZUAK

Pertsona nagusiak nola zaindu ikasteko ikastaroa

Ikastaroa azaroaren 9an eta 11n izango da eta azaroaren 5era arte eman daiteke izena

A.E. > ANTZUOLA

Pertsona nagusiak edo gaixoak zaintzen dituzten pertsonen zuzendutako ikastaroa eskainiko dute datozen egunotan. Bideberri mankomunitateak antolatu du ikastaroa, eta laguntza teknikoak zeintzuk diren eta horiek nola erabili landuko dute.

AZAROAREN 9AN ETA 11N

Ikastaroa azaroaren 9an eta 11n izango da, Olanan etxean, 15:00etatik 17:00etara. Ikastaroan parte hartzeko interesa dutenek, baina, izena eman behar dute aurrez. Horretara-

ko, azaroaren 5era arteko epea izango dute.

UDALETXEAN ETA TORRESOROAN

Izena eman gura duenak udallexera edo Gizarte Zerbitzuetako bulegoetara (Torresoroa) jo beharko du.

2007an Elgeta, Leintz Gatzaga eta Antzuolako udalek Bideberri mankomunitatea sortzea erabaki zuten, euren gizarte zerbitzuak eskaintzeko. Gizarte Zerbitzuak prestazio eta zerbitzu multzo bat dira eta pertsonen dituzten beharrei erantzuten diete, besteak beste, gizarte integratzeko.

oharrak

FUTBOLA

> **Antzuolak bihar jokatuko du, 16:30ean, Eztalan**

Antzuolak Amaikak Bat taldearen aurka jokatuko du bihar ligako 8. jardunaldia. 16:30ean izango da lehia, Eztalan. Joan den astean Elgoibarren aurka irabazi ondoren (2-3), Antzuolak saillkapeneko hirugarren postuan jarraitzen du, bigarrenarekin berdinduta (14 puntu). Azkeneko lau partiduetan jarraian irabazi dituzte etxekoek.

PALA

> **Pala motzeko azkeneko lehia jokatuko dute gaur pilotariak**

Iker Manso eta Jon Alberdi pilotariak gaur jokatuko dute pala motzeko lehia frontoian, 20:15ean. Txost taldearen aurka izango da. Modu horretan, pala motzeko txapelketa amaituko dute.

LEHIAKETA

> **Argazkiak aurkezteko azken eguna azaroaren 5a da**

Aurtengoa XVI. edizioa izango da eta Antzuolan jaio edo bizi den edonork parte har dezake lehiaketan. Lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 5a da.

IKASTAROKA

> **KZguneko tutoretzak**

Azaroan zehar tutorea egongo da KZgunean ondoko egunetan: azaroaren 2an, 9an, 16an, 23an eta 30ean. KZguneko ordu-tegia hau izango da: 16:00etatik 20:00etara.

ZER DIOTE DEBAGOIENKO DENDARIEK?

ZER DIO BEDELKARREK?

> JENDARTEA

Herriko 14 lagunek jaso zuten domekan odol emaileen oroigarria Elgetan egindako ekitaldian

Elgetan omendu zituzten joan den domekan bailarako odol emaileak. Tartean, 14 antzuolar omendu zituzten: zilarrezko oroigarria jaso zuten Idoia Conget, Julian Garitano, Jose Mari Iturbe, Olatz Lezeta, Pablo Olalde eta Maite Urretak; urrezko oroigarria jaso zuten Mari Karmen Iturbe eta Lore Kerexetak, 40 aldiz ematearren odola; eta Imanol Garmendia eta Daniel Sanchezek 50 aldiz ematearren odola. Bestalde, odol-emaile bereziak omendu zituzten, emakumezkoetan 60 aldiz ematearren odola eta gizonezkoetan 75 aldiz ematearren. Omendu bereziak izan ziren Itziar Mantzizidor, Iñaki Arregi, Juan Francisco Lamariano eta Juan Migel Lizarralde.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

> ALAIK

Aramaioko erretiratuen elkarteak urteko bazkaria iragarri du datorren azaroaren 11rako

Alaiak erretiratuen elkartekoek urteko bazkaria egingo dute azaroaren 11n. Urtean zehar hildako lagunen aldeko meza izango da 12:00etan eta 14:00etan bazkaria eta oparien zozketa. Bazkarirako txartelak 8 eurotan daude salgai, eta Vital Kutxan edo Euskadiko Kutxan egin daiteke ordainketa. Interesatuak azaroaren 5era arte dute zabalik izena emateko epea.

> UDALA

Plan Orokorren gaineko kontsultak egiteko aukera dago martitzenero udaletxean

Herritarrek aukera izango dute martitzenero Plan Orokorren gaineko kontsultak egiteko. Stoa enpresako eta Udaleko teknikariak izango dira udaletxean. Aurretik txanda hartzea eta kontsultatu beharreko gaia aurreratzea gomendatu dute. Interesatuak udaletxera, 945 44 50 16 telefonora deitu dezakete txanda hartzeko. Alegazioak aurkezteko epea abenduaren 13ra arte dago zabalik. Bien bitartean, jendaurrean dago ikusgai Plan Orokorra, osoko bilkuren aretoan, eta dokumentua www.aramaio.org webgunean ere eskuragarri dago.



Barajuen auzoa.

> UDALA

Ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 20ra arte zabalik

Udalak aditzera eman duenez, ezaugarri bereziko eta hiri eta landa-lur ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 20ra arte izango da zabalik. Helbideratuta ez dauden ordainagirien kasuan, Udalak Vital Kutxan edo Euskadiko Kutxan dituen kontuetan egin daiteke ordainketa. Ohikoa denez, borondatezko epea amaitu ondoren, ordaindu gabeko kuotak %5eko gainkarguarekin kobratuko dituztela gogorarazi eman du Udalak.



Erretiratuen Eguneko iaizko irudi bat.

GOIENKARIA

JENDARTEA > ERRETIRATUEN EGUNA

Azoka, herri bazkaria eta artzain-txakur txapelketa bihar

Nardeaga kalean jarriko dute azoka, 10:00etan; barazkiak, fruituak eta artisauak izango dira

EDU MENDIBIL > ARAMAIO
Erretiratuen Eguna ospatuko da bihar, zapatua, Aramaion. Aspalditik ohikoa denez, egitarau zabalatu du Udalak zapatutarako.

Herriko produktuen azoka 10:00etatik 14:30era jarriko dute Nardeaga kalean; barazkiak, fruituak eta artisauen lanak izango dira bertan. Antolatzaileek emandako datuen arabera, 40 bat postu jarriko dituzte bihar. Eguerdian, 12:00etan, herriko hainbat taldek lagundutako meza izango

da San Martin elizan eta ondoren Papargorri abesbatzak emandaldia egingo du; 13:00etarako herriko dantzari eta trikitilarien saioa iragarri dago.

HERRI BAZKARIA KIROLDEGIAN

Erretiratuen bazkaria, aurten ere, kiroldegian egingo dute, 14:30ean. Txartelak 8 eurotan salgai izan dituzte azken egunotan eta erantzun ona izan du deialdiak: 130 lagun inguru batuko dira bihar. Bazkalostean, erretiratu nagusiei omenaldia egingo

zaie eta sarien zozketa izango da. Tartean, bi lagunendako Benidormera bidaia zozketatuko dute herri bazkarian batutako artean.

ARTZAIN-TXAKURRAK SALASANEN
Arratsaldean, artzain-txakurren txapelketa jokatu da Salasan baserri ondoko zelaietan, 17:30ean hasita. Aramaioko Fernando Etxebarriarekin batera, Jon Zuazo (Nafarate), Jose Mari Jauregi (Ilarduia), Txuxti Larrazabal (Laudio) eta Enrique Mendiguren (Orozko) izango dira lehian. Artzainen aginduetara hainbat ariketa egin behar izango dituzte txakurrek.



ALAIK ELKARTEA

Erretiratuak Arabako Errioxan

Alaiak Erretiratuen Elkarteko 29 lagun Eltzegon (goiko argazkian) eta Guardian izan ziren aurreko zapatuan. Arabako beste hainbat elkartetako ordezkariak batu ziren, Gasteizko Cuatro Vientos elkartearen eskutik; guztira, 600 lagun inguru izan ziren ospakizun jardunaldian. Eltzegon bisita egin ondoren, Guardiara joan ziren eta han egin zuten bazkaria. Eguraldia lagun, egun ederra igaro ondoren, aramaioarrak iluntzean bueltatu ziren etxera.

KULTURA > ZUIAKO KOADRILA

'Ezagutzen duzu zure eskualdea?' lehiaketarako izenematea, martitzena arte

Bikoteka jokatu da lehiaketa eta 12 urtetik gorakoei zuzenduta dago; azaroaren 2an itxiko dute izenematea

E.M. > ARAMAIO

Ezagutzen duzu zure eskualdea? lehiaketa jarri du abian Zuiako Koadrilak. Lehiaketa 12 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta eskualdeko kohesio proiektuari bultzada ematea da helburuetako bat.

Lehiaketa Zuiako Koadrilari buruzko galdera-erantzuntan oinarrituta dago. Bikoteka jokatu da eta adinaren ara-

bera bi kategoria bereiziko dituzte: 12-16 urtera bitartekoa eta nagusia, 16 urtetik gorakoa.

Izenematea martitzenera arte, azaroaren 2ra arte, luzatu dute. Interesatuak udaletxera jo dezakete.

ATCORE: HITZALDIA EGUENEAN

Eguenean, azaroaren 4an, organo transplanteen gaineko hitzaldia izango da kultura etxean, 17:00etan. Euskadiko bihotz eta birika gaixoen eta transplantatuen Atcore elkarteko kideek egingo dute hitzaldia.

ZINEMA GAUR

Gaur, barikua, *Los hombres que no amaban a las mujeres* filma eskainiko dute kultura etxean, 22:15ean.

ELGETA > UDALA

Oñatiko hiltegiaren elkarte publikoari lehen onespena

Osokoak aho batez onartu du kudeaketa egitasmo berriari bidea zabaltzea

LARRAITZ ZEBERIO. > ELGETA

Martitzenean egindako osoko bilkuran Oñatiko hiltegiarako kudeaketa egitasmo berriari lehenengo onespena eman dio osokoak. Egitasmoaren oinarria da hiltegiaren kudeaketa udalaketotzea; hau da, kudeaketa horretan parte hartzeko interesa duten udalen artean Zubillaga SL elkarte publikoa sortzea. "Pentsatzen dugu garrantzitsua dela Elgeta hor sartzeari", esan du Oxel Erostarbe alkateak. "Zerbitzu hori edukitzea positiboa izango da herriarendako".

Elgetako Udala ez da orain arte Zubillagako hiltegiako kude-

aketa egituraren parte izan eta zerbitzuak izango dituen kostuak eta abantailak baloratzea dagokio orain. Baserritarren batzordeak datuak ditu mahai gainean: azken 12 hilabeteotan

Elgetatik 20 abelburu eraman dira Oñatiko hiltegiara eta proposamena da Elgetak hasiera baten 5.000 euroko kapital ekarpena egitea eta urtero 2.400 euroko kuota ordaintzea.

LUDOTEKA ETA GAZTELEKUA

Atzerapenarekin, baina martxan dira

Atzeratu egin da aurten ludoteka eta gazteleku zerbitzuen hasiera. "Arazoak izan ditugu pertsonalaren kontratazioarekin", esan du alkateak. "Zerbakiak berrikusi ditugu eta zerbitzua hobetzeko apustua egin dugu azkenean". Bina hezitzaile ariko dira, azkenean, eta hilabete luzatuko da eskaintza. Udaletik jakinarazi dute, halaber, umeen aisialdi zerbitzua defizitarioa dela; 19.000 euroko inbertsioa du Elgetan.

Elgetako lau odol emaile saritu dituzte

Egindako odol ateratze kopuruagatik Gipuzkoako odol emaileen elkarteak saritu egin zituen domekan Espaloian egindako ekitaldian. Isabel Richardek eta Ana Urtzelaik urrezko intsignia jaso zuten; Juan Ramon Irazabalek eta Eli Arantzabalek, zilarrezkoa.



L.Z.

4 t'erdiko pilota txapelketa

Sei norgehiagoka daude iragarrita aste bukaeran jokatu den jardunaldirako

BIGAREN JARDUNALDIKO EMAITZAK

1. J. Bolinaga-I. Izagirre / P. Larrea-M. Elgoro	12-22
2. L.A. Alkorta-G. Bolinaga / A. Morales-F. Zenitagoia	22-18
3. A. Elortza-O. Zenitagoia / M. Irazabal-Ibaibarriaga	22-04
4. K. Erostarbe-E. Garate / H. Gallastegi-E. Sarasua	22-16
5. K. Goenaga-A. Arantzabal / A. Ibarluzea-A. Telleria	22-20
6. O. Askasibar-E. Elgoro / D. Cantabrana-I. Irazabal	22-06
7. G. Arrazola-M. Ormaetxea / S. Ramos-E. Salaberria	22-13
8. J. Irazabal-I. Etxaniz / I. Retolaza-J. Larrañaga	22-12

L.Z. > ELGETA

Gaurko, barikua, hiru norgehiagoka eta etzirako, domeka, beste hiru daude iragarrita. Hala, atsedean hartuko dute aste bukaera honetan txapelketako hain-

bat bikotek. Pilotari batek baino gehiagok eskertu egingo du; izan ere, eskuak mintzen hasita daude dagoeneko. Kantxara deituak direnek, ordea, ez dute aitzakiarik izango.

GAURKO PARTIDUAK (URRIAK 29, 20:00ETAN)

1. J. Bolinaga-I. Izagirre / A. Ibarluzea-A. Telleria
2. K. Goenaga-A. Arantzabal / P. Larrea-M. Elgoro
3. D. Peñalver-S. Bouzas / H. Gallastegi-K. Odriozola

DOMEKAKO PARTIDUAK (URRIAK 31, 10:30EAN)

1. A. Morales-F. Zenitagoia / J.M. Zubiaurre-I. Ugarteburu
2. O. Erostarbe- G. Arizmendiarrrieta / D. Cantabrana-I. Irazabal
3. O. Askasibar-E. Elgoro / I. Irazabal-G. Bolinaga

LEINTZ GATZAGA > OSPAKIZUNA

Narciso Beitiak 100 urte bete ditu

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gaur, urriak 29, bete ditu 100 urte Astaisolo baserriko Narciso Beitia Elkorobarrutiak. Udalak zorionak emateko omenalditxo egingo dio bihar, zapatua (13:30), udaletxean. Gero, urtebetetze bazkaria egingo du Narcisok etxeokoen.

GERRAN IZANDAKOA

1910eko urriaren 29an jaio zen Astaisolon eta zazpi anai-arreben artean gazteena zen. Iratiko basoetan ibili zen lanean sasoi baten, errekan egurra garraiatzen; Eskoriatzako Forjas Vascasen ere bai. Espainiako gerra hasi zenean lau hilabetez egon zen

kartzelan eta borrokan egitera bidali zuten gero.

Herriko nagusiena da azken urteotan, eta gutxi ikusi eta entzun arren, osasun ona du, ez baitu inolako botikarik hartzen. Oraingo kontu batzuk ahaztu arren, lehengoak ondo gogoan dituela diote etxeokoen.



GOIENKARIA

Koldo Izagirrek irabazi du Elgetaklik

Guztira, 15 lagun aurkeztu dira aurten lehiaketara eta Eneritz Larrea eta Maite Mandaluniz izan dira hurrengo sarituak. Aipamen berezia jaso du, berriz, Nerea Villaren argazkiak. Udaletik pozik agertu dira lehiaketak izandako harrerarekin.

> ZIRKULAZIOA

Trafiko Zuzendaritzak bereganatu du Elgetako zirkulazioa eta arau-hausteak zaintzeko ardura

Ertzaintza hasita dago herrian gaizki aparkatutako autoen bila errondak egiten, eta horrela jarraituko dutela jakinarazi dute. Udalak dei egin die herritarrei autoak behar bezala aparka ditzaten, espaloiak eta oinezkoen kaleak errespetatuz.

> DANTZA

Domekan, 'Herrixa dantzan', Jainagaren eta Narbaitzaren zuzeneko musikarekin

Urriko azken domeka gainean dugu eta Espaloian egin dute hitzordua. Hilean behin Patxi Monteroren gidaritzapean egiten duten dantza saio irekia trikitilarekin egingo dute oraingoan. 19:00etan emango diote hasiera ordu eta erdi inguruko saioari.

> TURISMOA

Elgetako frontea ezagutzeko hilero bi bisita egingo dira; Udalak aukeratu du bisita gidaria

Hilero bi domeka izango dira, bat euskaraz eta bat gaztelaniaz. Lehenengoak euskaraz azaroaren 7an eta abenduaren 5ean egingo dira. Gaztelera, berriz, azaroaren 28an eta abenduaren 19an. Aldez aurretik izena eman behar da 943 71 89 11 zenbakian.

> KAFE ANTZOKIA

Berri Txarrak taldeak abenduaren 10ean egingo duen kontzerturako sarrerak salgai Interneten

Berri Txarrak taldearen emanaldirako sarrerek 12 euroko prezioa dute Internet bidez erosiz gero; 15 euro, berriz, txarteldegian. Hauxe da lotura: www.kulturalive.com/concierto_detalle.php?idioma=eus&id_conciertos=1034.

> EMAKUMEAK

Sorginak elkarteak antolatutako bazkarirako izenemate epea martitzenean bukatuko da

Bazkarirako deia egin die Sorginak elkarteak herriko emakume guztiei. Azaroaren 7an, domeka, izango da Soran hoteleko jate-txean, baina izena aurrez eman beharra dago Labidea dendan; azken eguna martitzena da, azaroak 2. *Sorginek* urtero antolatu izan dute aste bukaera pasa joateko irteera bat, azken urteotan udazkenean, baina aurten ez dute egin halakorik. Horren ordez bazkaria egingo dute, eta betiko legez umore ona eta jai giroa izango direla nagusi jakinarazi dute antolatzaileek.

Bestalde, *sorginak* San Milixan eguneko ferian izango dira lanean, azaroaren 14an. Urtero legez taloak egingo dituzte pilotalekuan, artisau feriara datozenendako.

SASKIBALOIA

Barberenak gertutik bizi izan du Euroliga

Jokatu ez arren, Valentziako taldearekin Istanbulen izan da

X.U. > ARRASATE

Beñat Barberenak maila goreneko saskibaloia bertatik bertara jarraitu ahal izan zuen eguzten gauean, Power Electronics Valentzia taldearekin Euroligan izan zelako -79-63 galdu zuten Efes Pilsen taldearen kontra. Ez zuen minuturik jokatu, baina "esperientzia ikaragarria izan da, Euroliga Txapeldunen Liga modukoa da-eta", adierazi zuen eguen goizean, Arrasate Irratiak egindako elkarrizketan [Goiena.net-en duzue elkarrizketa].

EBA MAILAN JOKATZEN

Ointxe!-ko jokalaria ohiak EBA mailan jokatzen du, Valentziaren harrobiko taldean, eta aurten protagonismo handia izaten dabil bigarren taldean: "Horregatik eraman ninduten Istanbulera, sari modukoa izan zen joan den astean partidu txukuna egin nuelako. Gustura nabil, iaz 5 minutu jokatzen nituelako eta orain 35 jokatzen ditudalako. Hori nahi nuen, jokatzea, baina oso garbi daukat goragoko kategoriak oraindik urrun daudela".



Beñat Barberena.



Zigor Urain arrasatearra (CDR) Osintxuko lasterketan, Bergaran; Oñatiko lasterketa, baina, ez da elite mailakoendako izango.

GOIENKARIA

ZIKLO-KROSA > OÑATIKO LASTERKETA

Abenduaren 18an ziklo-kros lasterketa egingo dute Oñatin

"Oñatin orain dela 30 urte baino gehiago egin zen azken ziklo-kros lasterketa"

Lehenengo urtea denez, antolatzaileek elite mailako ziklistak ez ekartzea erabaki dute

XABIER URTZELAI > OÑATI

Ziklo-krosean Oñatik hartuko dio errelebu Bergarari, abenduaren 18rako Aloña Mendiko txirrindularitza sailak lasterketa antolatuko du-eta San Martin inguruan dauden zelaietan -oraingo domekan hasiko dute ziklo-kros denboraldia, Karrantzan (Bizkaia).

Urtetako hutsunearen ostean, azken boladan Bergarako ziklisto eskolako lagunak animatu egin dira puntako ziklo-krosa gurera ekartzera, Osintxura, baina aurten beste proba batzuk antolatzearen aldeko apustua egin dute [Gipuzkoako Klasikoa eta emakumezkoen lasterketa] eta ibarrean ez dugu ziklo-krosik

izan, abendura arte: "Lehenengo urtea denez, kategoria txikiendako eta masterrendako antolatuko dugu lasterketa, eliteak ekartzeak esfortzu handia eskatzen duelako, aurrekontu aldetik, antolaketa aldetik... eurekin detaile mordo zaindu behar dira eta biderkatu egiten da lana. Lehenengo lasterketa zelan irte den ikusi ostean erabakiko dugu aurrerantzean zer egin", adierazi du antolaketa lanetan dabilen Pedro Irurtzunek.

ELITE ONENAK, KANPOAN

Etxean korrituko duenetako bat Roberto Zugasti oñatiarra izango da, master kategorian: "Egia esan, egun horietan [abenduarik

18] elite mailako onenak kanpoan izango dira. Batetik, Bizkai-ko txapelketa jokatuko dute asteburu horretan, baina, hori baino garrantzitsuago, ziklo-krosean dabilen puntako ziklistak Valentzian izango dira asteburu horretan, nazioarteko lasterketa dago-eta".

ETXEAN KORRITUKO DUTENAK

Roberto Zugasti izango da ibarrean master kategorian lehiatzen den bakarretakoa. Izan ere, CDR taldean dabilen Zigor Urain eta

Iñigo Roldan arrasatearrak elite mailan dabilta. Hori bai, kadete eta gazte mailetan Debagoienak ordezkari zabalak izango du.

Oñatin hainbat neska-mutiko dabilta lokatzetan lehiatzeko gogoz. Iker Alberdi, Iker Arkauz, Ander Iburguren eta Mainer Usandizaga dira haiek, baina oraindik ez dute erabaki abenduaren 18an etxean korrituko duten. Eta eurekin batera lehiatuko dira Sumofic taldeko ziklista bergararrak ere.

ESANAK

"Elitekoak ekartzeko aurrekontu handia behar da, eta gazteekin eta masterekin hasi nahi dugu, eta gero ikusi"

Pedro Irurtzun > Antolatzailea

ESANAK

"Asteburu horretan elite mailako onenak Valentzian izago dira lehian; bestalde, master kategorian jende mordo dabil"

Roberto Zugasti > Ziklista

BERRIA egunkariarekin

DOAN

Azaroak 5, ostirala, karpeta eta lehenengo fitxak zure kioskoan
EGUNERO FITXA BAT; 20 ENTREGA.



Babesleak:





aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**

FUTBOLA > OHOREZKO ERREGIONALA

Mondra aurreko postuetan doazen taldeen trenera igo da

Iban Rodriguezen mutilek ondo barneratu dituzte entrenatzaile berriaren nahiak; Arrasatekoek aspaldi ez dituzte hiru partidu jarraian irabazi



Oier eta Gari, Aloñaren kontrako partiduan.

GOIENKARIA

XABIER URTZELAI > BERGARA

Lehenengo jardunaldietan bikain hasi barik –porrot bat, berdinketa bat eta garaipen bat–, Mondra-ko mutilek dagoeneko bosgarren abiadura sartu diote autoari, eta azken hiru partiduak jarraian irabazi ostean –aspaldi gertatzen ez zena– Real Unioni eta Hernaniri begira dabilta, euren arrasatoa galtzeko inongo asmo barik.

Bihar (16:30, Mojategi) Trintxerpe etorriko da bolada on hori etetera, liga oso ondo hasi baina jarraikortasunik izan ez duen taldea. Zelakoa den futbola: Iban Rodriguezek defentsa lanean hobetu beharreko mezua ekarri du talde zuri-morera, baina, neurri berean, taldeak aurrean erantzun du, kategoriako talde gole-

gileetako bat bilakatuz (13 gol zazpi partidutan).

ALOÑAK HONDARRIBIAREN KONTRA
Aloña Mendik ere etxean jokatu du, domekan (16:30). Eta behar-dititik irteteko moduko kontrarioa izango dute, puntu bat gehiago batu duen Hondarribia.

Pablo Diezen mutilek ez zuten Berioeren zelaian erreakzionatzerik lortu (2-0), eta Azkoagaingo

zaleen aurrean ahaleginduko dira horretan.

Aretxabaletak eta Bergarak kanpoan jokatu dute. Hamabi puntu batuta, UDAk aurrekoen trena hartu nahi du, baina baita hamahiru puntu dituen biharko kontrario Pasaia ere (16:30, Don Bosco). Azkenik, Bergarak behetik aurrera egiteko kontrario zuzena duen Ordizia izango du aurrean bihar (16:00, Altamira).

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Lehen maila

Malaga-Reala
Domeka. 17:00. Malaga.

Gazteen liga nazionala

Aretxabaleta-Cultu. Durango
Domeka. 16:30. Ibarra.

Gazteen euskal liga

Bergara-Laudio San Rokezar
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

Ohorezko erregional maila

Aloña Mendi-Hondarribia
Domeka. 16:30. Azkoagaing.

Mondra-Trintxerpe
Zapatua. 16:30. Mojategi.

Ordizia-Bergara
Zapatua. 16:00. Altamira.

Pasajes-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Don Bosco.

Erregional preferentea

Aretxabaleta B-Tolosa
Zapatua. 18:00. Ibarra.

Antzuola-Amaiak Bat
Zapatua. 16:30. Estala.

Getariako-Mondra
Domeka. 16:30. Mendibeltz.

Lehen erregionala

Bergara B-Eibartarrak
Zapatua. 18:00. Ipintza.

Gazteak-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Unbe.

Ohorezko gazteak

Mondra-Aloña Mendi
Zapatua. 18:30. Mojategi.

Lehen mailako gazteak

Aretxabaleta B-Arizmendi
Zapatua. 15:45. Ibarra.

Bergara B-Arizmendi UDA B
Zapatua. 15:30. Ipintza.

Kadeteen ohorezko maila

Bergara-Zumaia
Domeka. 11:30. Bergara.

Aretx.Arizmendi-Ordizia
Domeka. 11:00. Aretxabalet.

Emakumezkoen liga

Arizmendi-Mondra
Zapatua. 15:30. Almen.

Emakumezkoak, gazteak

Aloña Mendi-Oiartzun
Zapatua. 16:30. Azkoagaing.

Arizmendi-Orioko
Zapatua. 12:00. Almen.

Bergara-Ordizia
Domeka. 17:45. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Txapelketa

EHU-Eskoriatza
Domeka. 17:00. Gasteiz.

Bigarren maila

Oiartzun-Aretxabaleta
Gaur. 20:30. Oiartzun.

Hirugarren maila

Hirukide-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Tolosa.

SASKIBALOIA

Lehenengo nazional maila
Seky.es-Sustrai Aloña Mendi
Zapatua. 17:20. Gasteiz.

Lehen mailako gazteak

EHU Alava-MU
Zapatua. 19:30. Gasteiz.

Senior gizezkoak

Oiartzun-MU
Domeka. 12:00. Oiartzun.

Seniorrak, bigarren maila

Kostkas-Soraluce BKE
Domeka. 10:00. Donostia.

Alde zaharra-Sustrai Aloña
Zapatua. 18:00. Donostia.

Senior emakumezkoak

Eskoriatza-Añorga
Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.

Gazte gizon, partaidetza
Erroibide de Irun-MU B
Zapatua. 20:00. Donostia.

Santo Tomas-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Donostia.

ESKUBALOIA

Euskadiko Txapelketa, giz

Askartza-Ford Mugarr
Zapatua. 20:00. Leioa.

Soraluce BKE-Indautxu Loi.
Zapatua. 18:00. Labegarai.

Gipuzkoako lehen maila

Arrasate-Hegialde Auto
Domeka. 11:00. Iturripe.

Gipuzkoako big. maila

Donibane-Izarraitz Aloña
Egubakoi. 20:00. Pasai Don.

Gazteak, gizezkoak

Amenabar-Bergara
Zapatua. 12:00. Zarautz.

XAKEA

Arrasate Hiria txapelketa.
Egubakoitza. 19:00etan
Altamiran.



MOYUA



HILETA ZERBITZUAK
24 ORDUKO ZERBITZUA




- **Kliniketara joaten gara** (Zerbitzu osoak egiten ditugu)
- **Leku aldatzeak**
- **Dokumentazioa**
- **Koroak**
- **Eskelak** (Irrati, egunkari eta paretetan)

Tel.: 943 78 34 47
943 78 06 71
Sakelakoa: 617 44 24 66
Obispo Otadui 27
(Bolibar auzoan)
20560 OÑATI

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada giri!

Arlutz taberna



Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Anduaga Jatetxea



Eguneko menua | Bokatak
Plater konbinatuak | Errazioak

Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54



Loteria eta kinielak

DORLETA TABERNA

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Matikua jatetscea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

Gurea

TABERNA



Lotoak eta kinielak


Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

IOSU

*taberna
harategia*

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08





> **BERTSOAK**
Saio bikain eta hunkigarria egin zuten Amaian finalistek > 32



> **KONTZERTUA**
Gaixotasun 'arraroak' ikertzearen aldeko emanaldia > 33

> **IRATI GALLASTEGI**
Terapia Okupazionala ikasi zuen eta nagusiekin terapeuta da; euskal dantzak maite ditu eta Txikitxu-Arrostaitzen dihardu > 34



Bailarako txistularien lehen topaketa egingo dute domekan

40 TXISTULARI

Gatzaga, Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatzakoak dira

ESKORIATZAN

10:00etan hasiko da txistularien kalejira Eskoriatzan zehar

LANDER MUÑAGORRI > ESKORIATZA

"Txistulariak garenok edo inoiz izandakoak elkartzeko aitzakia bat izan da, lagun zaharrek inoiz egon eta berriak egiteko", dio Jose Joakin Arrietak, J.J.-k, bailarako I. txistularien eguneko antolatzaileetako batek. Poteo eta bazkari baten bueltan elkartzeko asmoarekin hasi ziren Eskoriatzako txistulariak lehen topaketa horren ideia garatzen. "Entzunda geneukan Arrasateko txistulariek ere topaketa bat egiten dutela urtean behin, eta orduan bailara mailako zerbait egitea proposatu nuen", dio Arrietak.

Baina bailara noraino zabalduko da?: "Printzipioz, bailara Gatzagan hasi eta Arrasaten amaitzen da, eta oraingoz tarte horretako herriak egongo gara topaketan", dio Arrietak. Hala ere, denborarekin ez dituzte kanpoko txistulariak baztertzen. "Legazpikoak, etorri nahi badute, etor daitezela. Mugak jartzen hasia da gure helburua, ez dago ezer zehaztuta", azaltzen du J.J. Arrietak.

EGITARAU APALA

Helburua lagun zaharrek inoiz egotea den neurrian, egitarau apala antolatu dute domekarako Eskoriatzako txistulariek. 10:00etan elkartuko dira Arrasate, Gatzaga, Eskoriatza eta Aretxabaletatik joango diren 40 txistulari inguru.

Herriko kaleetan zehar kalejira egingo dute eta 13:00etan, elkartutako txistulari guztiek kontzertua egingo dute Herriko Plazan. "Kontzertuan dozena erdi abesti inguru interpretatuko ditugu, eta, beharbada, azkene-



2005ean Mario Padillari egin zitzaion omenaldian 80 txistulari eskoriatzar bildu ziren.

GOIENKARIA

Jose Joakin Arrieta > Antolatzailea

"Domeketan goiz-eresia egiten dugu, baina santuekin ez dugu loturarik"

L.M. > ESKORIATZA
40 txistulari inguru bilduko dira domekan Eskoriatzako lehen topaketan. Ekimenaren antolatzaileetako bat da J.J. Arrieta eskoriatzarra. Euren herriko txistuaren egoeraz galdetu diogu.



L. MUÑAGORRI

Nola dago Eskoriatzako txistularien egoera?

Talde polita daukagu herrian. Betiko txistularia izan zen Mario Padillak jotzeari utzi zionean, kolokan egon zen taldea. Txistua albo batera utzita geneukan batzuk berriro sartu ginen taldean. Herri askotan gertatu zen antzeko zerbait.

Goiz-eresiak egiten jarraitzen duzue Eskoriatzan...

Lehen, domeka goiz eta arratsaldean jotzen genuen, baina orain hori mugatzea lortu dugu.

Zenbateraino?

Orain, uda hasieratik herriko jaiak arte domeka goizetan bakarrik irteten gara, eta jaiegun zehatz batzuetan ere bai: Langileen Eguna eta antzekoak. Santuekin ez daukagu lotura esturik.

Ondorengotzarik baduzue?

Ez. Atzetik ez dator inor, eta gazteenak 40 urte ditu.

koa kantatuz ere egingo dugu", dio Arrietak.

Taldetxo bat elkartzeko asmoarekin sortutako ekimena, azkenean, talde handi bat bilakatu da, eta talde hau guztia gobernatzeko zuzendari baten beharra ere ikusi dute. "Horretarako, ikasketak eta jakituria zehatz batzuk zituen pertsona bat behar genuen, eta Iñaki Barrenaren izena ateraz", dio Arrietak.

Bazkaria Aitzorrotz Kultura Elkartean egingo dute, zuzeneko emanaldia amaitutakoan. Antolakuntza lanak egiteko Eskoriatzako txistulariek ez dute inongo dirulaguntzarik eskatu: "Gure artean antolatutako zerbait delako, eta guretzako delako", azaltzen du Arrietak.

AURREKARI JENDETSUA

Bailarako txistularien lehen topaketa izango baldin bada ere, Eskoriatzan izan bada gisa horretako elkarteratze baten aurrekaririk ere. Horretarako, 2005. urtera egin behar dugu atzera, Mario Padilla txistulariari egin zitzaion

omenaldia gogoratuz. Herriko hamaika haur eta gazteri erakutsi zion bere garaian Padillak txistua jotzen (eguneko taldean daudenei ere bai), eta ofizio hau alde batera utzi zuenean omenaldia jaso zuen. Egun hartan Eskoriatzako 80 txistulari bildu ziren kalejira bat egiteko, denak ere Padillaren ikasle izandakoak. "Askok ez zuen txistua aspalditik jotzen... Hainbeste jende egonda, batzuek ederki asko aprobetxatu zuen *playback* egiteko...", dio J.J. Arrietak.

Domeka honetan egingo den topaketan txistulari gutxiago bilduko dira, 40 inguru. Bailarako txistularitzaren osasunaz galdetuta, "domekan ikusi ahal izango" dela jakinarazten du Arrietak.

Oraindik lehen edizioa igaro gabe, datorren urtean Aretxabaletan egingo da txistularien bailara mailako topaketa. "Ideia urtero herriz aldatzea izango litzateke", J.J. Arrietak dioenez, kanpo geratu diren herrien parte-hartzeari muzinik egin gabe.

MUSIKA

Goseren urteroko kontzertua Gure Lekun

Laster barru disko 'IIII' disko berria argitaratuko dute arrasatearrek

LANDER MUÑAGORRI > ARRASATE
Gose talde arrasatearrak kontzertua eskainiko du zapatuan Gure Leku tabernan. Zitari 22:30ean emango zaio hasiera. Urtero egiten duten emanaldia da Arrasateko ostatu honetakoa, eta aurrean ere ez zen gutxiago izango "etxeokoa zaindu behar baitira" Ines Osinaga taldeko abeslariak adierazi digunez.

Eskainiko duten kontzertuaz gain, disko berria ere laster kaleratzekotan da hirukote arrasatearra. Oraingo honetan, nola ez, *IIII* izena izango du. Hala eta guztiz ere, zapatuko kontzertuan ez da argitaratzeaz dagoen laneko aipamenik egongo. Osinagak baieztatu duenez, "disko gorriarekin egiten ari garen emanaldi bat gehiago izango da".

Bien bitartean, aurrerapen bideo bi jarri dituzte euren webgunean (www.gose.info) edozeinen eskura ikusgai. Bertan musika alorreko hainbat pertsona ezagun agertzen dira gustukoa duten janari eta edarien inguruan hitz egiten. Horien artean topatu ahal izango dira Fermin Mugurutz, Mikel Urdangarin, Kutxi Romero, Josu Zabala, Oreka Tx, DJ Makala... Disko berria ohiko salmenta lekuetara iritsi bitartean, mokadutxo honi kosk egiteko aukera egongo da bederen.

BERTSOAK > UDALBILTZAKO AUZIPETUEN ALDEKO BERTSO SAIOA

Amaiatik Madrilera

ZER: Bertsolari txapelketako 8 finalistak.

NON: Arrasate, Amaia antzokia.

EGUNA: Domeka, hilak 24.

ZENBAT JENDE: 800 lagun, beteta.

JULEN IRIONDO > ARRASATE

Asteon egin dituzte Espainiako Auzitegi Nazionalean Udalbiltza auziko epaiketaren azken saioak, eta epaia ezagutzea baino ez da falta dagoeneko. Auzipetuek ukatu egin dute berriro ETako kide direnik eta Udalbiltza Euskal Herria eraikitzeke egitasmoa zela nabarmendu dute; defentsak absoluzioa eskatu du. Fiskalak eta herri akusazioak kartzela zigorrak eskatu dituzte, 10 eta 23 urte artekoak.

Esparru askotariko hainbat euskal eragiletako ordezkariak izan dira epaiketaren azken txanpan, auzipetuei babesa ematen; baina ez hauek bakarrik, baita domekan Arrasateko Amaia antzokia bete zuten 800 lagunak ere, "bihotzean" eraman zituztelako bertso-saioa amaitu eta berehala furgoneta bitan sartuta Madrilerako bidea hartu zutenek: "Zuen berotasuna bihotzean dugula goaz, burua tente, Udalbiltzan egindako lanagatik harro; herritarren ordezkari izatea egokitu zitzaigun, onerako eta txarrerako, eta inoiz ez dugu horren damurik izan, nahiz eta geure buruak amesgaizto honetan murgilduta ikusi. Indartsu goaz", esan zuen agertoki gainetik Mari-bi Ugarteburu auzipetuen bozeramaileak, plazak eskatzen zuen moduan metaforaz apaindutako hitzalditxoak ixteko, "irabazi egin behar dugu!" batekin amaituz, hori bai. Horiek izan ziren ekitaldiko azken soinuak; edo ez, Amaian batutako lagunek zutik eta segundo luzetako txaloz agur-



Sarriegi bertsotan, Mendiluze begira duela, Udalbiltzaren alde domekan Amaia antzokian egindako saioan. JOSETXO ARANTZABAL

tu baitzituzten auzipetuak banaban agertokitik jaisten ziren bitartean.

AURRETIK BERTSOAK

Hitz lauz amaitutako ekitaldiak, baina, bertsoak izan zituen osagai nagusi. Bertsoak, eta nolakoak, gainera; bota zituzten bertsolarien neurrikoak. Izan ere, Euskal Herriko azken txapelketako zortzi finalistak izan ziren Udalbiltzaren aldeko saioan: Maialen Lujanbio, Amets Artzallus, Jon Maia, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Aitor Mendiluze, Sustrai Colina eta Aitor Sarriegi. Euren izenak, gainera, saioa antolatzekeo ideia, auzipetuei babesa adierazi nahi eta, euren erara. Saio goxoa egin zuten, elkartasun giroan, tokatzen zenean serio, baina umorea ere erabiliz. Izan ere, Josu Goikoetxea gai-jartzaileak denetarikoko gaiak jarri zituen, nahiz eta askok Udalbiltzaren aurkako epaiketa zuten oinarri.

LEGEA ETA JUSTIZIA

Espainiako Auzitegi Nazionalean "justizia" eskatu dute auzipetuek, besteak beste, Joseba Garmendia Urretxuko zinegotzi ohiaren ahotan. Hain justu ere, Maialen Lujanbio zen Justizia eta Andoni Egaña Legea, Goikoetxeak jarritako gaietako baten, eta horrela kantatu zuen zarauztarrak: *Ni naiz legea, nik esaten dut / hau ez egin, hura bete / Ta hiritarrak, nahi edo nahi ez, / nere menpean zaudete / Nik onartzen dut, maiz eskasa naiz, / hiritar guztien kalte / Ta ona naizen kasuetan e / gaizki aplikatzen naute.*


SENIDEEI INDARRA

Auzipetuen senideei, batak Udalbiltza auziari ezer onik ikusten ez

dionaren eta besteak zerbait ona badakarrela uste duenaren papelean, plastikozko poltsa bati eta amets gozo eta gaiztoei kantatu zieten bertsolariek ia bi orduz; baina Olentzeroren eta Errege Magoen enpresetan izandako kaleratzeak, umea ziburuetan ahaztu zuen aita "zintzilikariodunaren" despistek eta perretxiko kontuak ere izan zituzten hizpide. Eta amai-

tzeko itxaropena; hauxe izan zen Maialen Lujanbio Euskal Herriko txapelkunak botatuko azken agurra: *Ilunak dira, ilunak gauak / ta nahiz sarri loa hautsi / egiten ari ginen ametsa / ezin da ahaztuta utzi / Senideei indarra eta / auzipetuei eutsi / Injustizia ozen salatzen / dakinik gure eran gutxi / Laister ospatzen badakigula / behar degu erakutsi.*

ZINEGOTZIA BERTSOLARI



Oskar Goñi Berako zinegotzi izandakoa, eta auzipetua, bertsotan. JOSETXO ARANTZABAL

"Seihun bat udalbatza, herri izaera ardatza"

Maribi Ugarteburuk ez ezik, Oskar Goñi Berako zinegotzi izandakoak ere jardun zuen, baina hark bertsotan, eta dotore, gainera; aurrenekoan Arrasaten jasotako elkartasuna eskertuz: Etorri aurretik semeak zalantza / Aita Arrasate edo Eskoriatza? / Beira sukaldin, udalbiltzaren / mapa urdinak dakartza / Seihun bat udalbatza / herri izaera ardatza / zazpi loreko baratza / Haren gainean justizia arrotzak / ezpataz jarri balantza / Lasai semetto, elkartasunak / goxatu ohi du garratza.

Bigarrena, Xabier Alegria, Udalbiltza auzian ere auzipetua eta 18/98 sumarioagatik kartzelan dagoenari erreferentzia eginez: Elkartasuna, zein hitz umila / Zorretan gaude ta esker mila / Zapalkuntzaren soro zabal / gu hogeita bi kamamila / Petalo jokoan gurrupila / bai ez bai, zalantza pila / Ta zuen laguntza hurbila / Berso ozenez, keinu otzanez / hunkiturik goaz Madrila / Baina ez goaz han gelditzeke / baizik Xabierren bila.

ZER DIO TXANDA ELKARTEAK?

ZER DIO ARETXARTEK?

MUSIKA > ONGINTZAZKO KONTZERTUA

Jai rockeroa gaixotasun arraroen ikerketarako dirua biltzeko Elgetan

Walk on Project elkarteak antolatuta, bihar, zapatua, ongintzazko kontzertua eskainiko dute Elgetako Espaloian, 22:00etan hasita

MAIALEN GONZALEZ > BERGARA

Kontzertu berezia eskainiko dute bihar gauean Elgetako Espaloian. Gaixotasun arraro moduan ezagutzen direnak pairatzen dituzten umeen egoera iker dadin dirua lortzeko ekimen gisa aurkezten du Walk on Project (WoP) elkarteak. The Longfathers, Mi Hermana Corina, NYZZ eta DJ Long John taldeak izango dira bertan.

Musika estilo ezberdinak izan arren, helburu berberaren alde eta irabazi asmorik gabe joko dute. Parte-hartzaileez gain, eta izena eman nahi ez duen arren, artista ezagun batek bisitatuko du Espaloia. Sarrera zazpi euro izango da.



Bilboko Azkena aretoan urriaren 22an egin zuten kontzertuko irudi bat.

WOP

ITXAROPENA GALDU BARIK

Irabazi asmorik gabeko elkarteak da WoP. 2009. urtean sortua, ekin-tza eta emanaldi musikalen bitar-

ESANAK

"Gaixotasun hauek sendatzen saiatzeko aukera egon beharko luke, eta ez dago"

Mikel Renteria > WoP elkarteak

tez leukodistrofien aurka egiteko terapien ikerketa egiteko dirua biltzea du helburu. NYZZ taldeko Mikel Renteriak eta haren emazteak abiarazi zuten elkarteak. Haien semea, Jontxuri, 6 urte zituela endekapenezko gaixotasun bat diagnostikatu zioten, gaixotasun arraroen taldean sartzen dituzten horietakoa. Egoera horren aurrean, gurasa-ak, amore eman beharrean, irten-bideak bilatzen hasi ziren. Mikel aitak konposatutako *Walk on* abestiaren eskutik hartu du

elkarteak izena. "Nolabait proiektuak berak dituen balioak transmititzen dituen abestia da", dio Renteriak.

Eskaintzen ari diren kontzertuez gain, disko bat grabatzen ari dira. Bertan, hainbat artista eza-gunek hartuko dute parte, besteak beste, Hertzainak taldeko Garik. Proiektuaren eta diskoaren aurkezpen ofiziala abenduaren 22an egingo dute, Bilbon. Informazio gehiago nahi izanez gero, webgunea ere badute: www.walkonproject.org.

KULTURA

'Asun Arrazola oroitzuz' jardunaldiak


Bihar, zapatua, Oñatin izango da hirugarren eta azken hitzordua

M.G. > BERGARA

Euskal ikertzaile, historialari, idazle eta hezitzaile Asun Arrazolaren lana ezagutzeko hiru jardunaldi antolatu dira. Lehena Donostian izan zen, urriaren 19an; bigarrena haren jaioterrian, Zestoan, urriaren 26an; eta hirugarrena eta azkena bihar, hilak 30, izango da, Oñatin.

BISITA GIDATUA

Goizeko hamarretan bisita gidatua hasiko da. Antxon Zubiaurre eta Edorta Kortadi gidari, unibertsitatea, San Migel parrokia, Bidaurreta-ko komentua eta protokoloen artxiboa bisitatuko dituzte. Ondoren, bazkaria egongo da Oñatiko batzokian. Izenematea beharrezkoa izango da, okelerre@gmail.com helbidean.



Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

BEILATOKIA

ETENGABEKO ZERBITZUA

LORE KOROAK

ESKELAK

TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Irati Gallastegi > Terapeuta okupazionala eta dantzaria

"Zaila da zapatuko ekitaldian bizitakoa hitzez adieraztea, ikusgarria izan zen"

Txikitatik izan du musika eta dantza presente Irati Gallastegi arrasatearrak. Ama Arrasate

Musikaleko akordeoiko irakaslea duen arren, berak zeharkako txirula ikasi zuen. Txikitxu-

Arrostaitzeko dantzaria ere bada. Urteak igarota hainbat ekintza albo batera utzi behar

izateak ez dio dantza taldean jarraitzea oztopatu. Berezia ei da Txikitxu-Arrostaitz...

MAIALEN GONZALEZ > BERGARA

Irati Gallastegik (Arrasate, 1984) Terapia Okupazionala ikasi zuen Zaragozan duela sei urte. Ikasketak amaitu eta hilabetera hasi zen lanean eta gaur egun Aretxabaletako GSR Debagoieneko terapeuta da. Bere lana gustuko du oso, baina bizitzan badu beste zaletasun berezi bat: euskal dantzak.

Zer da terapia okupazionala?

Pertsonen errehabilitazio fisiko, kognitibo zein sozialerako terapia da. Berau, pertsona horientzat zentzua duten ekintzen bidez bideratua. Ezgaitasun fisiko zein kognitiboa duten pertsonekin egiten dugu lan, baina baita ezgaitasun hori ez dutenekin ere bai. Esaterako, pertsona nagusiek prebentzio gisa erabiltzen dute, euren burua eta gorputza aktibo mantentzeko.

Ikasketak bukatu eta segituan hasi zinen lanean eta orain Aretxabaletan zaude.

Bai, ikasketak amaitu eta hilabete batera lanean nengoen jada. Legazpin eta Seguran ibili naiz. Orain dela urte eta erdi zabaldu zuten GSR Debagoiena egoitza Aretxabaletan eta orduetik hona nago bertan lanean. Etxe ondoan egotea abantaila da, egia esatearren.

Zein ekintza egiten dituzue?

Esandako hiru alorrak jarduera ezberdinen bitartez lantzen ditugu. Alde kognitiboa eta fisikoa lantzeko tailerrak, manipulazioa lantzeko ekintzak eta gimnasia egiten ditugu. Ekintza ia guztiak taldean egiten ditugu, alor soziala lantzeko: egoitzan bertan, irteeretan... aisialdiari garrantzia ematen diogu.

Dantza eta musika ere bizitzan presente izan dituzu. Noiz hasi zinen zure alde artistiko hori lantzen?

Euskal dantzetan 5 urte nituela hasi nintzen eta musikan apur bat geroago. Biak ala biak txiki-txikitatik landu ditut. Musikan, solfeoa lehendabizi eta gero zeharkako txirula jotzen hasi nintzen, unibertsitateko urteak heldu ziren arte. Bitartean, VS izeneko musika talde baten ere jotzen nuen lagun batekin. Orain, gitarrarekin hasi naiz. Gustuko dut eta, gainera, lanerako ere oso baliagarria zait. Txirularekin urte asko eman ditut eta gustura ibili izan naiz baina aldatzea ez dago gaizki, ezta?



MAIALEN GONZALEZ

PERSONALA

Herria: Arrasate. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Terapia Okupazionalan diplomaduna. **Zaletatsunak:** Euskal dantzak, lagunekin egotea eta irakurtzea. **Iku-si duzun azken filma:** Toy Story 3. **Liburu bat:** Mil soles espléndidos, Khaled Hosseiniarena. **Musikari bat:**

Bob Marley, Janis Joplin... askotariko musika entzuten dut. **Dantza estilo bat:** Euskal dantzak. **Bisitatzeko leku bat:** Menorca. **Bizi izateko leku bat:** Kostaldeko edozein. **Gustuko esaldi bat:** ¡Vaya bien qué menudo bien!

Urteek aurrera egin ahala alboratu ez duzuna dantza izan da.

Txikitik hasi eta beti oso gustuko izan dudana zerbait da. 13-14 urterekin, adina dela eta, jarraitzeko zalantza izaten dira, eskolaz kanpoko beste hainbat ekintzatan bezala. Hala ere, urte haiek atzean utzi eta nagusien taldera igaro ginen. Hortik aurrera, errazagoa izan ohi da jarraitzea.

Dantza taldean giro aparta duzuela diote... Zer du Arrostaitzek egubakoitz gauero denak entseguetara joateko?

Oso giro jatorra dugu. Txikitik, gurasoek eramaten gaituzte hara eta hona, baina gerora nork bere bidea egiten du eta urteek aurrera egin ahala gure erabakia izan da bertan jarraitzea. Entseguetan lan egiten dugu eta elkarrekin oso gustura gaude. Parrandetan gu ikustea besterik ez dago!

Urtean zehar egiten dituzun dantza guztietatik zein duzu gustukoena?

Hainbat dantza ditut gustuko, baina egun bereziana Santamas eguna da, nire iritziz. Goizean txarri-dantza, gero bazkaria, arratsaldean berriz ere dantza... Egunduz guztiari probetxua ateratzeko festa da, baita dantzari moduan ere.

Musika eta dantza, dantza eta musika... artistatzen duzu zure burua?

Ezta pentsatu ere! Musika eta euskal dantzak oso gustuko ditut, baina praktikan oso traketsa naiz. Alde dudana gogoia da. Egiten dudana egiten dudala gogoarekin eta ilusioarekin egiten dut, eta hori da sekretua, nire ustez.

Txikitxu-Arrostaitzek merezitako omenaldia jaso zuen joan den zapatuan.

Ja astebete igaro da eta oraindik oilo-ipurdia jartzen zaigu zapatukoa gogoratuta. Esker mila, benetan, dena antolatzen ibili direnei, azken hilabeteotan hara eta hona ibili diren guztiei. Oso egun polita izan zen: bai dantza emanaldia eta baita ondorengo afaria ere. Adin askotariko jendea dantzan, ilusio handiarekin dantza taldeari eta bereziki denon andereño izan den Margari merezitako omenaldia emanaz. Urtetan egin duen lana, eta gaur egun egiten jarraitzen duena, merezi bezala eskertzea ez da samurra izango, baina zapatuko eguna betiko gordeko duen zerbait izango da.

hildakoak

- **Raul Saiz Trejo.** Arrasaten, urriaren 23an, 35 urte.
- **Fidel Berezibar Altube.** Arrasaten, urriaren 24an, 78 urte.
- **Apolonia Acedo Guerrero.** Arrasaten, urriaren 24an, 94 urte.
- **Maximo Urkia Elortza.** Aretxabaletan, urriaren 26an, 73 urte.
- **Eugenio Nafarrate Telleria.** Aramaion, urriaren 21ean, 96 urte.
- **Feli Mujika Lazpiur.** Bergaran, urriaren 26an, 89 urte.
- **Esteban Mujika Arregi.** Bergaran, urriaren 27an, 77 urte.
- **Maria Jose Gilgado.** Eskoriatzan, Gasteizen, urriaren 28an.



Felix Armentia aretxabaletarra eta **Isabel Iza** bergararra Arantzazun ezkondu zirela 50 urte beteko dira domekan. Egun horretan Arantzazun bertan ospatuko dituzte urrezko ezteiak anai-arreba, seme, errain eta ilobekin. Zorionak, bikote!

URTEURRENA

Mari Carmen Zengotitabengoa Mendigutxia

Laugarren urteurreneko meza
zapatuan, urriaren 30ean,
19:00etan, Bergarako Santa Marina
parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Fidel Berezibar Altube

Arrasaten hil zen 2010eko urriaren 24an, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzunoi,
eskerrik asko etxekoen izenean.



Arrasaten, 2010eko urriaren 29an.

ESKER ONA

Raul Saiz Trejo

2010eko urriaren 25an hil zen moto istripuz.

Bere emaztea: Vanesa Pérez; semea: Daniel; ama: Benita
Trejo (Julio Saizen alarguna); anai-arrebak: Mikel eta Elena
Guijarro; ama politikoa: M. Eugenia Jorge (Manuel Pérezen
alarguna); anai politikoa: Jonathan Pérez; iloba: Nora; Noemi,
osaba-izeba, lehengusu-lehengusinak eta gainerako senideek:

eskerrik beroena une zail eta gogor hauetan
babesa eman diguzuen guztioi.



Arrasaten, 2010eko urriaren 29an.

OROIGARRIA

Esperanza Balzategi Arriola

Puri Arregi lankidearen ama

Arrasaten hil zen 2010eko urriaren 26an, 85 urte zituela.

*Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte bakarrik.*



Arizmendi ikastolako lankideak
Leintz bailaran, 2010eko urriaren 29an.

OROIGARRIA

Fidel Berezibar Altube

Arantza Berezibar lankidearen aita

Arrasaten hil zen 2010eko urriaren 24an, 78 urte zituela.

*Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte bakarrik.*



Arizmendi ikastolako lankideak
Leintz bailaran, 2010eko urriaren 29an.

OROIGARRIA

Raul Saiz Trejo

Fagor Ederlan enpresako langilea.

2010eko urriaren 25an hil zen moto istripuz.

Fagor Ederlan Uribarri eta
Markuleteko lagunak.



Arrasaten, 2010eko urriaren 29an.



ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 05

Edo zatoz ordezkartzat batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

Bergara
Goiena: Ibarra kalea 6. 943 25 05 05.

Oñati
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

Aretxabaleta
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.
Zerbitzu orokorrak: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

Aramaio
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

Antzuola:
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 122.50 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN,
bietan, argitaratuz gero, **163** euro.

Goiena klubeko bazkideek: 112 euro

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko
GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **152,50** euro.

Goienkaria: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

OROIGARRIA

Maria Jose Gilgado Gutierrez

Gasteizen hil zen 2010eko urriaren 28an.

*Zure bizitzeko gogoak
indarrak eta kemenak
gugan irauango du.
Zure aztarna sendoa
beti gurekin.*



Zure lagunak.
Eskoriatzan, 2010eko urriaren 29an.

OROIGARRIA

Raul Saiz Trejo

2010eko urriaren 25an hil zen moto istripuz.

*Izan zarenagatik
eta erakutsi diguzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.*



Zure koadrilla eta lagunak.
Arrasaten, 2010eko urriaren 29an.

Babeslea:

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Urriak 29-Azaroak 4

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



ARRASATE

> AEBetako Dan Baird & Homemade Sin taldea gaur, Gaztemaniak eskutik

Gaztemaniak programaren barruan, Dan Baird-ek eta Homemade Sin taldekoek (Mauro Magellan, Keith Christopher eta Warner E. Hodges) kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, Amaia antzokiko hall-ean, 20:00etan. Sarrera, 7 euro.

Jaia



BERGARA

> Laino skate parkearen I. urteurrena ospatzeko, erakustaldia eta musika

Bihar, zapatua, izango da ospakizuna: skate erakustaldia eta DJ Balzaren emanaldia (19:00) eta gero Turboshit, Potemkin eta Power Flip taldeen kontzertuak (22:00) izango dira. Argazkian, Lainon egindako skate ekitaldi bat.

Antzerkia



ARRASATE

> Kutxa Donostia Hiria antzerki saria irabazi zuen antzezlan, Amaian

Tanttakak Kutxa Donostia Hiria saria irabazi du *No me hagas daño* lanarekin (etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean). Sarrera 6 euro da. Luisak bere historia kontatuko digu, nahigabeza eta itxaropenez betetako.

ARRASATE

> Hasiera mailako taila ikastaroa, ARTE elkartearekin

Arrasateko Tailaginen Elkarteak hasiberriendako ikastaroa antolatu du. Azaroaren 8an hasiko da eta 30 ordukoa izango da. Astelehen, martitzen eta eguenetan izango dira eskolak (17:30-19:30). Lokal berrian daude: Nafarroa etorbideko 33. zenbakian (Fagor Arrasate aldamenean, zentro parean).

Izenematea: Gregorio (616 23 81 74) edo Jose Mari (620 17 42 55).

ARRASATE

> Antzerki tailerra antolatu du AEDk, eta izena eman daiteke

Klaseak ostiraletan izango dira, Kulturategi Loramendi aretoan, 18:00etatik 20:00etara, azaroaren 12an hasita. Hogei ordu izango dira guztira eta Iurgi Etxebarria aretxabaletarrak jardungo du irakasle. Matrikula 35 euro izango da; 30 euro, AEDko bazkideentzat.

Izenematea, AEDn (943 77 12 28, aed@aedelkarta.com).

ARRASATE

> Yoga ikastaroak ematen dituzte astean bi egunetan

Yoga ikastaroak ematen dituzte. Hiru aukera daude: astelehen eta eguaztenetan (09:30-11:00) edo bi ordutegitan martitzen eta eguenetan (14:30-16:00 edo 19:00-20:30). Harremanetarako: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

Bañez Dokorea, 1 (Txindoki dorrea).

Ospakizunak

ESKORIATZA

> I. Bailarako Txistularien Eguna ospatuko da etzi, domeka

Lehenengo aldiz, Eskoriatzako, Aretxabaleako, Arrasateko eta Gatzagako txistulariek ospakizun bateratua egingo dute. Honako ekintzak egingo dituzte: kalejira herri osoan (10:00) eta kontzertua Herriko plazan (13:00).

Etzi, domeka.

BERGARA

> Erretiratuen kultura hamabostaldiko azken ospakizunak

Oraingo aste bukaeran, honako ekintzak izango dituzte San Joxepeko erretiratuek euren kultura hamabostaldia amaitzeko: gaur, egubakoitza, belaunaldien arteko kale txapelketa eta herri jolasak (San Joxepen, 16:00etan) eta San Joxepe Abesbatzaren eta Aretxabaleako Basotxo Abesbatzaren emanaldia (Santa Marina parrokiaren, 19:30ean); eta bihar, zapatua, herri bazkaria, opariekin eta dantzaldiarekin segidan (Zabala jatetxean, 14:30ean; 14:00etan autobus urbanoa abiatuko da igerileku ondotik, eta 19:00etan itzuliko da).

Bazkaria izango dute bihar, zapatua, Zabala jatetxean.

OÑATI

> II. Trikiti Jaialdia egingo dute bihar, zapatua

Santa Ana antzokian izango da jaialdia, 18:30ean. Herriko eta kanpoko hainbat taldek parte hartuko dute. Gainera, Oñatiko Primi Erostarbe pandero-jotzailea zena omenduko dute. Sarrerak 10 eurotan salduko dituzte.

Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 18:30ean.

Musika

ARRASATE

> Gose taldeak kontzertua egingo du Gure Leku

Gose taldeak kontzertua egingo du bihar, zapatua. Disko gorriko abestiak joko dituzte. Arrasaten urtero egiten duten kontzertua da, herriko zaleendako bereziki. Disko berria gertatzen ari dira, eta euren webgunean bi aurrerapen bideo daude.

Bihar, zapatua, Zarugalde kaleko Gure Leku tabernan, 22:30ean.

BERGARA

> Uge eta Bitter Honey taldeen kontzertua

Extremoduro eta Clandestinos taldeetako partaide ohi Uge-k kontzertua egingo du. Bitter Honey taldeak ere joko du.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

BERGARA

> Six Feet Under eta Master taldeak, Jam aretoan

Six Feet Under eta Master taldeek joko dute. Sarrerak 22 eta, leihatilan, 26 eurotan daude salgai.

Etzi, domeka, 20:00etan.

PROPOSAMENA



ELGETA

> Gaixotasun bat ikertzea diruz laguntzeko rock jaialdia egingo dute zapatuan Espaloian

Jai rockeroa izango da zapatuan The Walk On Project ekimena osatzen duten taldeekin: The Longfathers, Mi hermana Corina eta NYZZ. Eta sorpresa polita izango da gonbidatu berezi batek emango duena. Sarrerak Espaloian eta www.walkonproject.org webgunean daude, 7 eurotan. Dirua izango da leukodistrofia gaitzaren gainean ikertzeko. Mikel Rementeria musikariaren semeak gaitz hori dauka.

Bihar, zapatua, 22:30ean, Espaloian; sarrera, 7 euro.

Ikastaroak

ARETXABALETA

> Psikoterapia, thailandiar masajea eta yoga

Honako ekintzak antolatu ditu Aredhana yoga eta psikoterapia zentroak: psikoterapia terapia-taldea (egubakoitzetan, hamabostean behin, 19:00-21:00); thailandiar masajea (hilean zapatu baten, 10:00-13:30) eta yoga (martitzen eta eguenetan, 10:00etan edo 17:30ean).

Izenematea: 616 96 57 95 (Encarna).

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

2010EKO ZIENTZIAREN ASTEA

Azaroak 2:

"Los secretos del cerebro" – Gurutz Linazasoro-Zelai Arezti Kultur Etxea, Zumarraga

Azaroak 3:

"El lenguaje en el cerebro" – Manuel Carreiras-Zientziaren KutxaGunea, Donostia

Azaroak 4:

"Los secretos del cerebro" – Gurutz Linazasoro-Kultur Etxea, Tolosa

Azaroak 8:

"Los secretos del cerebro" – Gurutz Linazasoro-Portalea Kultur Etxea, Eibar

Azaroak 9:

"Los secretos del cerebro" – Gurutz Linazasoro-Zientziaren KutxaGunea, Donostia

Newton Auditorioan, 19:30ean. Sarrera doan, aforoa bete arte.

Informazio gehiago: www.miramón.org edota 943 01 24 78



Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramón.org

Orduetgia
Astelehenera itxita.
Asterartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

Aspiazuren "kaxa sakratua"

ARTXIBO NAGUSIA Eusko Jaurlaritzak dokumentu oso garrantzitsuak, eta zaharrak, gordetzen ditu bertan

IÑAKI ASPIAZU Arkitekto bergararrak egin du eraikina eta LKS eta Ulma enpresek ere hartu dute parte

SUTEEN KONTRA Segurtasun neurri oso zorrotzak betetzen ditu eraikinak; sute batek ez luke kalterik eragingo

ARRITXU BARRUSO > BERGARA

Iñaki Aspiazu arkitekto bergararrak erronka garrantzitsua izan du esku artean: gure herriaren historiaren zati handi bat gordeko zuen eraikina egitea, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusia. Bada, hil honen hasieran inauguratu zuten Gasteizko Gamarra industrialdean bergararrak egindako artxibo berria.

Denetarik dokumentuak gordetzen dira bertan: babes ofizialeko etxebizitzaren inguruko informazioa, bekak, erietxeetako dokumentazioa... Guztiak ere garrantzitsuak eta oso ondo gorde eta mantendu beharrekoak.

SEGURTASUN NEURRI ZORROTZAK

Eraikina inguratzen duten datuak ere ez dira nolanhikoak: guztira, 6.000 metro koadro inguru ditu artxiboak, 460.000 kutzak egiten dute lo bertan eta 43 kilometro-apalategi ditu.

Dena dela, Aspiazuk berak kontatu digun moduan, eraikinaren berezitasun nagusia dituen segurtasun neurriak dira: "Legea



IÑAKI ASPIAZU Arkitekto bergararrak egin du Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusi berria.



ARTXIBOA Barruko irudia.

pertsonak babesteko pentsatuta dago eta kasu honetan dokumentuak babestu behar genituen. Oso desberdina da. Segurtasun neurriek oso zorrotzak izan behar zuten. Sute kasuan dokumentuak ez dira erretzen, kaxa berezi

batzuetan daudelako. Horrez gain, eraikina hamaika konpartimentutan banatuta dago eta sutea horietako baten gertatuz gero ez litzateke gainontzekoetara iritsiko. Eraikinak, bestetik, estalki bikoitza dauka temperatura alda-

ketetatik eta kanpoko erasoetatik babesteko. Nik askotan esaten dut eraikina kaxa sakratu bat dela. Horrelaxe planteatu genuen hasieratik". Konplikatu bezain azkarrira izan da. 14 hilabeteren buruan amaitu dituzte lanak.

DEBAGOIENDARRA %100

Arkitekto bergararrarekin batera Debagoieneko beste bi enpresek ere hartu dute parte proiektuan: LKSk ingeniarietza lanak egin ditu eta ULMA artxiboaren robotikaz arduratu da.

ahobero

"Sekula ez nuke aktore batekin harremanik izango; higuigarriak direla uste dut"

Milla Jovovich > Aktorea

Aktore ukrainarrak sekulakoak eta bi esan zituen lanbide bereko gizonetako inguruan: "Nork nahi du poltsa kremaz eta bainurako olio beteta daukan mutil bat aldamenen? Fisikoa bakarrik ardura zaien harropuzak dira". Harekin lan egiten duten aktoreak pozik egongo dira hitzok entzun ostean...

iturri onetik

Horia Colibasanu goi mailako alpinistaren hitzaldia Oñatin abenduaren 15ean

Aloña Mendiko mendi sailak mendi hamabostaldia egingo du abenduaren 16tik 26ra. Bada, abenduaren 15ean Horia Colibasanu goi mailako alpinista ezaguna etorriko da Oñatira hitzaldia egingo da. Colibasanu errumaniarra da eta ezaguna da, besteak beste, Iñaki Otxoa de Oltzaren aldamenen egon zelako Annapurnan haren azken orduetan. Hitzaldian landuko duen gaia zehazteke dago.

piperrautsa

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

Badator

Zantzuak ugaritzen ari dira: zerbait badator laster. Lehen esan eta esan aritu direnak "ez da ezer aldatu" orain esaten dute "zerbait aldatu da, gure irimotasunari esker". Bitxia da -eta patetikoak- politikariak entzutea aldaketa handien erdian. Batzuk bilatzen dute ez dagokien domina; besteek gorde nahi dute haizeak ezinbestean eramango dien babesa; haiek saiatuko dira erakusten gaiaren muinean daudela, jakitunaren plantak eginez; haiek kutsatuko dute giroa gurdiak ez dezan aurrera egin. Aspergarria da gero!

Badatorren egoeran herritarrok gehiago daukagu irabazteko galtzeko baino. Horregatik estimatuko genuke zerbait galtzeko dutenen eskuzabaltasuna, gu bezain txiki direnen umiltasuna, eta benetan sukaldean ari direnen diskrezioa.

ai, ene!



Ezkontzarako apropos jantzitako auto bikotea

Dotore jantzi dituzte bi auto txikiak ezkontzarako. Emaztegaia-arendako bata eta senargaiarendako bestea, kapela eta guzti.

www.fotoscuriosas.com



Eraman dotoretasuna zure etxera



Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51